PROPUESTAS LOCALES PARA OTRA GLOBALIZACIÓN
BESTE GLOBALIZAZIO BATERAKO TOKIAN TOKIKO PROPOSAMENAK

AKTAK

Biltzarra Hegoa

Giza garapenaren erronka.
Beste globalizazio baterako
tokiko proposamenak

Bilbo 2007ko otsailak 8, 9, 10

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

AKTAK

Biltzarra Hegoa

Giza garapenaren erronka.
Beste globalizazio baterako
tokiko proposamenak

Bilbo 2007ko otsailak 8, 9, 10

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Proiektuko hau babesten du:

Konpiladoreak:
Mari Cruz Martín eta Marisa Lamas

Edizioa:

Bilbao
Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbo
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Vitoria-Gasteiz
Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU
138 kutxatila - Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa. • Faxa: 945 01 42 87
hegoagasteiz@ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege Zenbakia: Bi-2780-07
Euskerazko itzulpena: Labayru Institutoa
Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi S.A.
ISBN: 13-978-84-89916-06-7

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/legalcode.eu

Aurkibidea

Aurkezpena 5

Emigrazioa eta garapena: harreman korapilotsua 11

1. Sarrera 11
2. Migrazio-lekualdatzeak azaltzeko eragileak 13
   - 2.1. Azalpen neoklasikoa 14
   - 2.2. Konplexutasun handiagoaren bila 20
   - 2.3. Errenten diferentzialaren faktore osagarriak 24
   - 2.4. Ebidentzia enpirikoa 28
3. Bidalketen papera 29
   - 3.1. Fenomenoaren neurria 29
   - 3.2. Bidalketen eraginak 33
4. Burmuinen ihesa eta giza kapitalaren galera 36
   - 4.1. Fenomenoaren neurria 36
   - 4.2. Giza kapitalaren galeraren eraginak. 43
5. Azken gogoeta 46

Bibliografia 47

Internazionalismo feministen arrasto berriak eta jarduketa-eremu berriak. Amerika Latinotik egindako begirada 51

Aldaketei buruzko sarrera laburra 51

Arrasto berriak 53

Deserosotasunaren etika: esperientziatik ikastea eta kontzeptuak zalantzan jartzea 54

Zaharkitutako paradigmak kolokan jartzea eta sen-esparru berriak eratzea 54
Txirotasuna hiritarren subjektibotasun berritik desegiten 56
Gorputz politikoa 57
Fundamentalismoen aurkako borroka agenda demokratikoetako hizpidea izan behar da 58
Eremu berriak 59
Munduko Gizarte Foroa: eztabaida demokratikorako eremua 59
Esberdintasunean oinarritutako elkarrizketa feministak 61
Erreferentzia bibliografikoak 64
Herrixkak, hiriak eta kaiukoak: oparotasunera bidaiak? 67
Sentsazionalismotik Espainiara migratzen duten afrikarren errealitatera 67
Migrazioak atzo eta gaur 71
Herrixkak 74
Hiriak 76
Kaiukoak 78
Amaitzeko: oparotasunera bidaiak? 80
Erreferentzia bibliografikoak 81
Eranskina 83
Lokalismoa, globalizazioaren beste amarru bat: hiru mito eta proposamen bat 87
1. Globalizazioaren gaineko zehaztasun kontzeptual bat 87
2. Lokalismoaren mitoa, eta erregea biluzik ez badago? 92
3. Politika poetika gisa ulertzeko mitoa 95
4. Bakezaletasunaren mitoa 98
5. Hiru proposamen 101
6. Subjektu politiko berri baterantz 103

Aurkezpena

Hegoa - Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikasketen Institutuak antolatuta, "Giza garapenaren erronka. Beste globalizazio baterako tokian tokiko proposamenak" Biltzarra izan zen 2007ko otsailaren 8, 9 eta 10ean, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatean.

Biltzarra gogoeta eta sentsibilizazio prozesu baten azken urratsa izan zen. Prozesuaren helburua zen, batetik, globalizazioari eta beronen ondorioei buruzko diagnostiko konpartitua egitea, eta, bestetik, gure gizarteetatik mundu zuzen eta solidarioagoa eraikitzen lagunduko duten proposamenak eta ekimenak prestatzea.

Lehenengo fasean, 2005eko irailetik 2006ko martxora bitartean, bost lantaldetan, mundu akademikoko eta gizarte erakunde eta mugimenduetako ehun bat lagunek Biltzarraren ardatza osatu zuten gaien gainean eztabaidatu zuten zenbait mintegitan. Lan horien emaitzak Hegoak biltzarraren gainean argitaratutako txosten batean jaso ziren.

Biltzarraren deialdia gogoetarako zenbait zehar-ardatzetan oinarrituta egin zen: a) giza garapenaren paradigmatik abiatzea, azterketa kritiko eta proposatzailea eratzeko erreferentzia teoriko eta etiko gisa; b) gaur eguneko globalizazioaren gai kritikoak eta giza garapenetik gai horien gainean ematen diren proposamenak identifikatzea; c) gizarte global bidezkoagoaren eraikuntza ezartzea kezka nagusi gisa, oinarritzat toki esparrua hartuz; bereziki, eraikuntza horretan pertsonen eta taldeen benetako partaidetza aztertzea; d) lengoaiak eta garapenaren praktikak emakumeekiko justizia defizitaren ikuspegitik planteatzen duten erronkak aztertzea; e) gogoeta teoriko eta praktikoa bateratzea, mundu akademikora zein mundu politiko-sozialera zuzenduz, eta, horretarako, mundu bi horiek eztabaida-espazio bateratu batean parte hartzera gonbidatu dira; f) herrialde pobreetako gizarteekin aliantza eta lankidetza modu berriak eztabaidatzea, tokiko giza garapeneko proposamenei dagokienez.

Biltzarraren gai-proposamena honela zehaztu zen: "Inork ez du zalantzan jartzen globalizazioaren ondorioz gure munduko harreman ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak aldatzen ari direla. Hala ere, oro har, lan handia dago egiteko, aldaketa horien efektuen benetako irismenaren eta errealitate eta arazo global eta tokikoen arteko harremanak zehaztasunez identifikatzeko. Prozesu eta harreman horien ulermenean

izan daitezkeen gabeziek geldiarazi edo zaildu egiten dituzte agenteek globalizazioaren norabidea aldatzeko tokian tokiko esparruetan sustatzen dituzten ekimenak. Era berean, hiritarren ekimena, esperientzia berritzaileak, gizarte eta antolakuntza mailako prozesuak, errealitatearen ikerketan eta ezagutzan sakontzeko interes berria eta balore alternatibo eta solidarioen hedapena berpizten ari dira. Biltzarraren helburua da planteamendu teorikoak eta ekintzarako proposamenak eskaintzea, globalizazio zuzen eta solidarioago baten aldeko konpromisoa lortzeko. Horretarako, tokian tokiko agenteen (GGKEak, sindikatuak, gizarte-mugimenduak, ikerketa zentroak, unibertsitateak, etab.) ahalmena eta zeregina ere indartu nahi du, alternatiben bilaketan konprometitu daitezen eta globalizazioaren efektuen gainean herritarrak sentsibilizatzeko lana egin dezaten."

Berrogeita hamarretik gora komunikazio aurkeztu eta onartu ziren, eta komunikazio horien testuak Hegoaren web orrian jaso dira (www.hegoa.ehu.es/congreso/bilbo/cas/index.htm), bost gai esparrutan banatuta: Globalizazio ekonomikoa eta gizarte eskubideak, Tokiko giza garapena eta garapenerako lankidetza, Partaidetza politikorako modu berriak krisi demokratikoan, Emakumeak espazio guztietan: oinarriak eta aliantza berriak, eta, Globalizazioa eta biolentzia: erresistenziak gizarte zibilean.

Biltzarraren txostenaren eta komunikazioen irakurketa derrigorrezkoa da Biltzarrean izandako eztabaidei buruzko ideia bat egiteko. Baina ekarpen horiekin batera, osoko bilkuretan izandako eztabaidak daude. Argitalpen honetan horietako batzuk jaso dira. Txostenak aurkeztu zituzten batzuen testuak argitalpen honetan integratu dira. Aurkezten diren laurak interes eta kalitate handikoak dira eta jorratutako gai nagusien zati handi bat islatzen dute. Beste hitzaldi batzuetan ahozko zuzeneko komunikazioa izan zen nagusi eta ez zeukan zentzurik hitzaldi hori testu batera transkribatzeak. Aurkeztutako argitalpenaren ezaugarriei buruzko ohar hau eginda, Hegoak bere esker ona adierazi nahi die beren lana helarazi zigutenei eta argitalpen hau egiteko aukera eman digutenei.

Batzorde antolatzailea

- Alfonso Dubois (Hegoa Institutoa)
- Gloria Guzmán (Las Dignas)
- Itziar Hernández (Hegoa Institutoa)
- Elena Martinez (UPV/EHU)
- Carlos Askunze (REAS EUSKADI)
- Irantzu Mendia (Hegoa Institutoa)
- Juan Hernández (UPV/EHU)

Egitaraua

Osteguna, otsailak 8

16:30 Akreditazioa eta material banaketa

18:00 Inaugurazio-saioa

18:30 **Osoko bilkura**
Hizlaria: **Daniel Bensaid**. Paris VIII Unibertsitatea
Crisis global, ¿alternativas locales?

20:00 Saioaren amaiera. Luncha

Ostirala, otsailak 9

09:00 **Osoko bilkura**
Ponente: **Doreen Massey**. The Open University, Reino Unido
Un enfoque político para espacios locales/globales

Hizlaria: **Marcos Arruda**.
Hego Konorako Politika Alternatiboen Institutua, Río de Janeiro, Brasil
Propuestas de desarrollo económico solidario: ¿alternativa o testimonio?

Mahaiburua: **Paloma de Villota.**
Ikasketa Feministen Institutua, Madrileko Unibertsitate Konplutensea

11:00 Atsedenaldia-Kafea

11:30 **Talde tematikoen saioak**

13:30 Saioaren amaiera

14:00 Bazkaria

15:30 **Talde tematikoen saioak**

17:30 Atsedenaldia-Kafea

18:00 **Osoko bilkura**
Hizlaria: **Virginia Vargas.** Flora Tristán Emakumearen Zentroa, Peru
Los feminismos y sus articulaciones locales y globales. Algunas nuevas dimensiones para armar "el estado de la cuestión" feminista en el nuevo milenio
Mahaiburua: **Diane Elson**. University of Essex, Erresuma Batua

Los desafíos de la globalización a los esfuerzos locales para elaborar presupuestos gubernamentales equitativos
Presidencia: **Bob Sutcliffe**. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

20:30 Saioaren amaiera

Larunbata, otsailak 10

09:00 **Talde tematikoen saioak**

11:00 Atsedenaldia-Kafea

11:30 **Osoko bilkura**

Hizlaria: **Carlos Oya**. SOAS, University of London
Aldeas, ciudades, cayucos: ¿viajes hacia la prosperidad?

Hizlaria: **José Antonio Alonso**. Madrileko Unibertsitate Konplutensea
La emigración en la agenda de desarrollo: evidencias y paradojas

Mahaiburua: **Arantza Campos**
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

13:00 Amaierako saioa

Bob Sutcliffe. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
¿Qué hay que desarrollar y dónde?

13:30 Amaierako hitzak

Gaikako saioak		
Talde tematikoa	**Koordinatzaileak**	**Hizlariak**
1. Gizarte-eskubideak	Juan Hernández Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea Patxi Zabalo Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea	Annie Pourre Red Non Vox Isabel Otxoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Erika Gonzalez OMAL, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia
		Mahai-inguru Arantza Fernández STEE-EILAS, Josu Egireun ESK, Ana Felicia Torres Red Alforja, Costa Rica, Gloria Guzmán Las Dignas, El Salvador Unai Sordo Paz y Solidaridad
2. Tokiko Giza Garapena	Alfonso Dubois Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea Luis Guridi Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea Juan Karlos Pérez de Mendiguren Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea	Marcos Arruda PACS Giancarlo Canzanelli ILS LEDA, Napoliko Unibertsitatea, Italia Catalina Victory Molne Aditua tokiko kudeaketa eta garapenean, Generalitat de Catalunya

Gaikako saioak		
Talde tematikoa	**Koordinatzaileak**	**Hizlariak**
3. Parte-hartzea	Carlos Askunze REAS EUSKADI	Joan Subirats Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Montserrat Rosa Sevilla Pablo Olavide Unibertsitatea, Sevilla José Vicente Barcia Elkartearen El Ecologista aldizkariko Erredakzio Kontseiluko kidea
4. Emakumeak	Itziar Hernández Hegoa Institutoa Elena Martínez Tola Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea	Nerea Cravioto WIDE WIDE Sare Europarra Rosabel Agirregomezkorta Emakumeak gatazka eremuetan Carmen de la Cruz Aholkularia, espezialista generoan eta garapenean Yolanda Jubeto Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea Paloma de Villota Madrileko Unibertsitate Konplutensea
5. Gatazkak	Irantzu Mendia Hegoa Institutoa Karlos Pérez Alonso de Armiño Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea	Jose Maria Tortosa Alacanteko Unibertsitatea Carlos Taibo Madrileko Unibertsitate Autonomoa Victor de Currea - Lugo Aditua giza eskubideetan eta ekintza humanitarioan Rafael Grasa Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa Carmen Magallón Bakerako Ikerketa Mintegia, Pignatelli Zentroa, Zaragoza

Emigrazioa eta garapena: harreman korapilotsua

José Antonio Alonso.
EKONOMIA APLIKATUKO KATEDRADUNA
ICEIKO ZUZENDARIA

1. Sarrera

Orain dela ia lau mende, 1609an, Marc Lescabotek emigrazioaren motiboei buruzko azalpen zehatza eman zuen. Lescabotek zioen (1907-14, I, 295): "Hiru gauzak eragiten diete gizakiei urruneko lurrak bilatzea eta etxea uztea. Lehenengoa, zerbait hobea aurkitzeko gurariak. Bigarrena, probintzia batean gainezka egiterainoko jende kopurua pilatzea (...). Hirugarrena, desadostasunek, liskarrek eta auziek". Oraintsuago, Migrazioei buruzko Munduko Batzordeak, hau da, Nazio Batuen babesarekin sortutako ikerketa taldeak, antzeko ondorioa atera zuen, eta garaiko berezko publizitate-formatuarekin, emigrazioa azaltzeko ingelesezko *hiru d'ak* aipatu zituen: garapena, demografia eta demokrazia[1]. Garapena eragozten duen *gabezia erlatiboa* da, baliabideen eta enpleguaren gaineko presioak *biztanleriaren gehiegizko hazkundea* eragiten du, eta, horrekin, bazterketa, jazarpena eta biolentzia eta, ondorioz, *eskubide demokratikoen gabezia*. Horiek dira historian migrazio mugimenduak eragin dituzten eragile nagusiak.

Jakina, garaiok eta Lescabotek *Frantzia Berriaren Historia* idatzi zueneko garaiak desberdinak dira, baina berak adierazitako arazoak, ñabardurak gorabehera, bere horretan daude gaur egun ere. Demokrazia, esate baterako, hedatu egin da nazioarteko sisteman erregimen politiko gisa, eta pertsonek izan behar dituzten eskubideei buruzko onarpena gero eta orokorragoa da, estatuetako mugez gaindi. Datuek erakusten dutenez, Nazio Batuetako 192 herrialdeetatik 140tan hauteskundeak egiten dituzte gobernuak aukeratzeko. Hala eta guztiz ere, Nazio Batuek aitortzen dute horietatik 100 herrialdetan askatasun zibilak eta politikoak oso murriztuta daudela, 70 herrialdetan ustelkeria maila oso altua dela eta 30 bat herrialdetan gatazka armatuak dituztela. Horren guztiaren ondorioz, 13 milioi lagun baino gehiago errefuxiatuak dira gaur

[1] Ikus Global Comisión on International Migration (2005): *Migration in an interconected world: New directions for action*, www.gcim.org gunean.

egungo munduan; eta, horiez gain, zehaztu ere ezin daitekeen jende kopuru batek bere herrialdeak utzi eta emigratu egin du, biolentziari ihesi, baina ez biolentzia politikoari soilik, baita biolentzia erlijiosoari eta genero biolentziari ere.

Konkista demokratikoetan apur bat aurrera egin da, baina garapen mailetan eta lekuan lekuko dinamika demografikoetan nazioartean dauden diferentziak izugarri hazi dira Lescabotek idatzi zuenetik gaur egunera arte. Izan ere, garai hartan, XVII. mendearen hasieran, planetako eskualderik aberatsenaren eta pobreenaren arteko harremana 2tik 1ekoa zen (eskualderik aberatsenak pobreenaren *per capita* errentaren bikoitza zuen), baina gaur egun 19tik 1ekoa da (eskualderik aberatsenak pobreenaren *per capita* errentaren halako hemeretzi du). Diferentzia horiek handiagoak izango lirateke eskualdekako batez bestekoen lekuan herrialdeetakoak hartuko bagenitu: 2005ean, adibidez, Estatu Batuetako *per capita* errenta Sierra Leonakoa baino hirurogei aldiz handiagoa zen, biak ala biak erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera adierazita. Gaur egungo munduan ordainsarietan dagoen aldearen eraginez, migratzeko erabakiarekin lotutako errentagarritasuna, langile ez kualifikatu baten hogei urteko bizitza horizonte batean lortutako errenten diferentzial gisa ulertuta, %200 eta %400 artekoa izan daiteke. Nork esango dio ezetz emigratzeari pizgarri horrekin?

Era berean, demografiari dagokionez ere diferentziak areagotu egin dira. Esate baterako, 1609. urtean 556 milioi bizilagun ziren lurrean eta gaur egun, ostera, 6.400 milioi baino gehiago. Populazioa, gainera, desberdin banatzen da planetaren azaleran zehar, eta hedapen dinamikak ere guztiz bestelakoak dira kasu batetik bestera. Adibidez, Saharaz behereko populazioaren hazkunde tasa EBkoa baino bost aldiz handiagoa da (%2,7 eta %0,5). Jaiotza-tasa txikiaren eta bizitza itxaropena luzatzearen ondorioz, EBn, populazioa gero eta zaharragoa da, hainbesteraino, ezen 65 urtetik gorako populazioak eta 15 urtetik beherakoak antzeko pisu erlatiboa baitute (%16 inguruan bata zein bestea). Herrialdeon arazoa, beraz, laneko adinean daudenen bidez hazkunde ekonomikoa areagotzeko eta ongizate estatuen iraunkortasuna luzatzeko behar diren giza baliabideak zelan lortu da. Saharaz behereko datuak, haatik, guztiz bestelakoak dira: populazioaren %3k baino ez ditu 65 urte baino gehiago, eta %44 dira 15 urtetik beherakoak. Arazoa, kasu honetan, populazio multzo horri heziketa nola eman eta lan bila dabiltzan gazte multzoei lan merkatuan sartzeko zein bide eskaini da, kontuan hartuta bertako ekonomien hazkunde mugatu eta ezegonkorra. Dinamika demografikoak lanpostuak sortzeko ezartzen duen beharrizanari baino begiratuko ez bagenio, EBn sortu behar litzatekeen lanpostu bakoitzeko Saharaz behereko Afrikan bederatzi sortu beharko lirateke: baina, eskualdearen hazkunde konparatua kontuan hartuz gero, zaila da helburu hori lortzea.

Testuinguru honetan, ez da mira egitekoa pertsona batzuk nazioarteko sisteman indarrean dauden desberdintasun horiek gainditzen saiatzea, aldaketarako ekimen pertsonal baten bidez saiatu ere: aukera gutxiago dagoen lekutik gehiago dagoen lekura joanda. Gizartea aldatzen ez bada, beste gizarte batera joango da: gizartearen aurrerabiderako *ahots kolektiboan* konfiantzarik ez badago, *irtenbide indibiduala* azaleratzen da alternatiba legez. Emigrazioa, beraz, erantzun logikoa da gero eta integratuago dagoen mundu honetan, diferentzia ekonomiko eta sozial nabariek agintzen dutelako bertan. Hala ere, migraziorako erabakia hartzeko ez da nahikoa desberdintasun horiek izatea; horrez gain, emigranteak bi egoerak (irteerakoa eta helmugakoa) izan behar ditu buruan eta etorkizuneko aukera efektibo-

tzat dituenen horizontean. Ez da nahi izaten ezagutzen ez denik, eta ez da eskatzen lortzeko guztiz ezinezkoa den hura. Garraiobideak merkatzearen, komunikazio teknologia berrien garapenaren eta masa komunikabideen zabalkunde unibertsalaren eraginez mundua errealitate integratuagoa eta eskuragarriagoa da, oztopo geografikoak eraitsi direlako, distantziak murriztu direlako eta bizitzeko modu alternatiboak zabaldu direlako. Globalizazioa eta nazioarteko desberdintasuna dira emigrazioa elikatzen duten sakoneko eragileak.

Ez da harritzekoa, beraz, migrazio presioak areagotzea auzotasunak bizitza moduak eta mailak errazten dituen lekuan: horixe da garatutako herrialdeen eta garapen bidekoen arteko muga geografikoen kasua, izan ere, gizarte hausturako puntu itzelak dira, nabarmenago eta berehalakoan ikusten direlako bertan nazioartean dauden errenta, segurtasun eta ongizate gradienteak. Horrelaxe jazotzen da, esate baterako, Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugako 3.600 kilometroetan, Afrikako Iparraldea eta Europako Hegoaldea bereizten dituen itsas zerrendan, Kanarietatik Greziaraino, eta Europa Ekialdean EBn sartu diren herrialde berriek osatzen duten eremuan, Errusia eta Ukraina artean, alde batetik, eta Alemania nahiz Frantzia, bestetik. Esate baterako, Greziaren eta Albaniaren arteko *per capita* BPGren aldea, monetan, 4tik 1ekoa da, Estatu Batuen eta Mexikoren artekoa edo Espainiaren eta Marokoren artekoa 4,5etik 1ekoa eta Malaysiaren eta Indonesiaren artekoa, berriz, 5,3tik 1ekoa. Muga eremu horiek bereganatzen dute migrazio presioa, eta, sarritan, zoritxarrez, igarotzen saiatzen diren askok hiltzeko arrisku bizia ere izaten dute.

Azken batean, migrazio presio handiko munduan bizi gara: baina ezaugarri hori ez da guztiz berria, eta garrantzia ez da aldizkakoa izango. Historiako beste une batzuetan gizateriak intentsitate bereko edo handiagoko migrazio-saldoak jasan zituen; eta orain bizi dugun hau gure artean egongo da, denbora batez behinik behin, nazioarteko harremanetako ezaugarri garrantzitsu legez. Lehenengoak historiatik ikasarazten digu, ikasbide erabilgarriak izateko, eta bigarrenak, berriz, fenomenoari inteligentziaz eta behar ez den dramatikotasunez egin behar zaiola aurre diosku. Horretarako, emigrazioa azaltzen duten motiboak eta nazioarteko desberdintasunerako dituen eraginak ikertu behar dira. Horixe da hurrengo orrialdeetan, ahalik eta laburren, egin gura duguna.

2. Migrazio-lekualdatzeak azaltzeko eragileak

Azterketa honetan aurrera egin aurretik, komeni da ohartaraztea arreta, batez ere, eta ia esklusiboki, emigrazioarekin zerikusia duten eragile ekonomikoetan jarriko dela. Horrela egiterakoan, onartzen dugu azterketan nahitako akotazioa egiten duguna, izan ere, agerikoa da arrazoi ekonomikoak, oso garrantzitsuak izan arren, ez direla migrazioarentzako azalpen bakarra. Beste faktore batzuk ere izan dira, tradizionalki, emigraziora jotzeko arrazoiak, hala nola, jazarpen politikoari itzur egin nahi izatea, biolentziak eragiten dituen arriskuak eta sufrimenduak ekidin nahi izatea, generoagatiko bazterketari ihes egin nahi izatea zein murriztailetzat hartzen diren gizarte arauak utzi nahi izatea. Eta, batez ere arrazoi ekonomikoengatik gertatzen diren migrazioetan ere, ekonomikoak ez diren beste faktore batzuek ere eragiten dute azkeneko erabakian. Halatan, beraz, azterketarako eremua, kasu honetan, partziala izango da nahita.

2.1. Azalpen neoklasikoa

Hasiera batean, teoria ekonomikoa saiatu zen giza migrazioak oreka orokorraren teoriak emandako tresna analitikoen bidez azaltzen. Teoria horretan merkatua ontzi komunikatuen joko bat da, eta herrialdeen arteko faktore hornidura desberdinen ondoriozko ordainsarien diferentziala orekatu egiten da. Populazioa, beraz, eskulan hornidura erlatibo askoko ekonomietatik (garapen bideko herrialdeak) faktore hori nahiko eskasa den ekonomietara (herrialde garatuak) joaten da, ordainsari handiagoen bila (1. laukia).

1. laukia: Emigrazioaren azalpen neoklasikoa

Grafiko bat lagungarria izan liteke azalpen teorikoaren logika ulertzeko. Pentsatu mundua bi herrialdek osatzen dutela (Iparralde eta Hegoalde deituko diegu). Lehenengoan, dagoen lanari dagokionez, kapital piloa dago, eta bigarrenean kontrakoa. Abzisa-ardatzean, kontrako zentzuan, bi herrialdeotako biztanleria (O_NL_1 Iparralden eta O_SL_1 Hegoalden), bien batuketa munduko populazio osoa izan dadin. Era berean dagozkien ordenatu-ardatzetan lanaren produktibitate marjinala irudikatzen da eta, hala badagokio, soldata. Ikus daitekeen bezala, kapital jakin baterako, produktibitatea kasu bietan PML_N eta PML_S beheranzkoa da: kapitala aldatu gabe langile kopurua handitzen den neurrian enplegatutako azkeneko langileari dagokion produktibitateak behera egiten du.

Pentsa dezagun, hasiera batean, bi herrialdeak, Iparralde eta Hegoalde, elkarrekiko inolako loturarik gabe bizi direla. Kasu horretan, kontratatutako azkeneko langilearen produktibitateak ezarriko du ekonomiako indarreko soldata: horrela, enplegu beteko baldintzetan, Iparraldeko soldata W_N izango da, eta hegoaldekoa W_S. Kontuan hartu Iparraldeko soldata handiagoa dela, izan ere, kapitalaren hornidura erlatiboa handiagoa denez, langileen produktibitatea ere handiagoa da. Era berean, ekoizpenaren balioa, bai Iparralden, bai Hegoalden, ardatzen eta laneko produktu marjinalaren arteko trapezioaren eremuak emango digu: hau da, O_NEAL_1 Iparralden eta O_SFBL_1 Hegoalden. Balio horretatik, langileei ordaindu beharrekoak $O_NW_NAL_1$ eta $O_SW_SBL_1$ laukizuzenak izango dira, eta gainerakoa dagozkien kapitalei ordaintzeko erabiliko da.

Gauzak horrela ekonomiak zabaltzen badira eta ez badago emigrazioarentzako murrizketarik ez kosturik (ez arlo ekonomikoan ez giza arloan), Hegoaldeko langile batzuk prest egongo dira beren herrialdea uzteko, Iparralden soldata hobeak jasotzeko. Zenbat langilek emigratuko du? Munduko merkatuan lanaren ordainsaria orekatzeko behar bestek: hau da, W_M soldata komun bihurtu arte. Egoera horretan L_1L_2 joango dira Hegoaldetik Iparraldeko langile-populazioa hornitzeko.

Grafikoa: Emigrazioaren eragin ekonomikoak



Hauek dira aldaketa horrek dituen eragin ekonomikoak:

A. Lehenengo eta behin, nazioarteko sistemaren eragingarritasunak gora egiten du: munduko ekoizpenaren balioak ABC hirukiaren eremuko balioaren pare egiten du gora.

B. Bigarrenik, munduko produkzioaren banaketa aldatu egiten da, langileak lekualdatu egiten direlako. Hain zuzen ere, Hegoaldek ez du L_1BL_2C eremuaren pareko baliorik ekoitziko; eta Iparraldek L_1ACL_2 kopuruari dagokion eremua irabaziko du. Kontura zaitezte ez dela zero batuketako joko bat: aldaketaren etekin garbi bat dago.

C. Azkenik, onartzen badugu kapitalen ordainketak goi mailako klaseen errenta ordezkatzen dutela eta soldatak behe mailakoena, emigrazioak desberdintasuna areagotu egingo du harrera herrialdean (kasu honetan, Iparralden), soldatek behera egingo dutelako; eta herrialde igorlean (Hegoalden), berriz, ekitate handiagoa izango da, langileen soldatek gora egingo dutelako. Nazioarteari dagokionez, bi herrialdeen arteko ordainketa baldintzak, emigrazioaren aurretik indarrean zeudenei dagokienez, gerturatu egingo dira.

Baina, zein ondorio ekonomiko izango ditu prozesu horrek? Labur-labur adierazita hauek izango lirateke:

A. Lehenik eta behin, nazioarteko sistemaren eragingarritasuna hazi egiten da: munduko produkzioaren balioa areagotu egiten da ekoizgarritasun marjinal txi-

kiagoa den leku batetik handiagoa den beste batera joatean (eta, beraz, baita ordainsaria ere). Prozesua, beraz, ez da zero baturako jokoa: aldaketari lotutako etekin garbi bat dago.

B. Bigarrenik, munduko produkzioaren banaketa aldatu egiten da: dauden giza baliabideen hornikuntza aldatzean, ekoizpenerako potentziala areagotu egiten da herrialde hartzaileetan, bidaltzaileen pentzura. Herrialde hartzaileetan sortzen den errentaren parte bat herrialde bidaltzaileetara itzul liteke, emigranteek bidalita, baina bidalketon neurria eta iraunkortasuna emigrazioaren beraren ezaugarrien mende egongo da erabat.

C. Hirugarrenik, onartzen bada kapitalen ordainketa goiko klaseen diru-iturria eta behekoen soldata dela, emigrazioak desberdintasuna areagotuko du herrialde hartzailean eta ekitate handiagoa eragingo du bidaltzailean, izan ere, lehenengoan soldatak txikituko dira, eta bigarrenean handitzeko joera hartuko dute.

D. Nazioartean, alabaina, ekitate handiagorako joera dago, izan ere, bi herrialdeen arteko ordainsari baldintzak gerturatzen ari dira, pertsonen joan-etorriak sortu baino lehen indarrean zeuden baldintzekiko, hain zuzen ere.

Argudio hau eraikitzen duen esparru teorikoa bat dator ondasunen eta zerbitzuen merkataritza azaltzen duenarekin (Heckscher-Ohlin eredua), hau da, elkartrukeetako espezializazioa herrialdeetako faktoreen hornikuntza erlatiboarekin eta dagozkien ondasunen ekoizpenean faktore horiek erabiltzeko intentsitatearekin dituena. Azalpen horren arabera, herrialde batek bi bide izango ditu faktore jakin batean nagusi den hornikuntza erlatiboa errentagarri bihurtzeko: faktore horretan intentsiboki erabiltzen dituzten ondasunak saltzea, edo faktorea bera esportatzea. Lana ondasun intentsibo gisa esportatzea eta emigrazioa, beraz, garapen bideko herrialdeetako eskulan ugariak osatzen duen hornikuntza erlatiboa errentagarri bihurtzeko ordezko isuriak dira.

Lehen esan da nazioarteko elkartrukeek eragingarritasun agregatua handitzen dutela, faktoreak emankorragoak diren lekuetara joan daitezkeelako. Hortik ondorioztatzen da aktibo baten errentagarritasuna nazioartean duen mugikortasunaren mende egongo dela erabat. Ez da mira egitekoa beraz kapitalak eta eskulan oso kalifikatuak (faktore mugigarrienak) kualifikazio gabeko giza baliabideen aurrean abantaila izatea (Rodrik, 1997). Mugigarritasun eza beste ahulezia faktore bat da: globalizazioak beste gizarte segregazio bat eragin du, nazioartean mugitzeko aukerarik ez daukaten pertsonekin lotutakoa, hain zuzen ere (Bauman, 2003).

Ez dago lekuz kanpo aurreko azalpen teorikoaren azpian dauden balizkoetako parte handi baten izaera murriztailea aipatzea: lehiakortasun perfektuko mundu bat hartzen da kontuan, faktoreen, kapitalaren eta lanaren etekin marjinal beherakorrak dituena indarrean; homogeneotzat eta beraien artean zeharo ordezkagarritzat jotzen dira; ekoizpenean etekin agregatu konstanteak daude; eta ez dago egokitze kosturik. Balizko horiek horren murriztaileak izan arren, eredua erabilgarria da emigrazioak, ikuspegi estatiko batetik, eragin ditzakeen aldaketa batzuk imajinatzeko.

Hala ere, oinarrizko arazoa da errealitatea balizko hauek adierazten digutena baino nahikoa konplexuagoa dela. Izan ere, lehen lortutako ondorioak goitik behera aldatzen dira erabilitako balizkoren bat bazterrean utziz gero. Esate baterako, faktoreen

artean nolabaiteko osagarritasuna dagoela pentsatuz gero, merkataritza eta emigrazioa ez lirateke ordezkagarriak izango, baizik eta osagarriak; eskulana ez dela homogeneoa pentsatuz gero eta emigranteen eskulanaren "kalitate" konparatu handiagoa onartuz gero, biztanleriaren segmentu kualifikatu hori galtzen duen herrialdeak aparteko kostu bat izan lezake (horixe da, esate baterako, "burmuinen ihesaren" kasua); eta, azken batean, ekoizpenean goranzko etekinak daudela onartuz gero, herrialde hartzailearen abantailak, denboraren joanean, metatu eta hazkundea intentsoago bihur liteke eta, ondorioz, herrialde bidaltzailearen aukera dinamikoak narria ditzake. Benetako esperientziatik oso urrun ez dauden balizkoak dira, eta komeni da kontuan hartzea.

Baina, sinplifikazioa gorabehera, aurreko ereduak emaitza nabarmena ematen du: pertsonen nazioarteko mugimendurako askatasun handiagoko erregimen bat ona izango litzateke ekonomiaren ikuspegitik, nazioarteko sistemaren eragingarritasun (eta ekitate) maila areagotzen duelako. Adimenerako interesgarria da balizko etekin horien tamainaz galdetzea. Horrela bada, 1984an, bi ikertzailek (Hamilton eta Whalley -1984-) zeregin horri ekin zioten oreka orokorreko eredu erraz bat sortuta. Egileek bazekiten sinplifikazioak egin behar zituztela, eta ez zitzaizkien arrotzak mundu errealean pertsonen mugimendurako erabateko askatasuna ezartzeak zituen zailtasunak, baina balizko horrek izango zituzkeen etekinak neurtu nahi zituzten. Emaitzak oso harrigarriak izan ziren: kontuan hainbat agertoki hartu ostean etekinak 4,7 eta 16 bilioi dolar arteko zenbatekoan ezarri zituzten (une hartan -1977- munduko BPG 7,82 bilioi dolar ingurukoa zen). Alegia, pertsonen mugimendu askatasuna onartzetik sortutako irabazia munduko BPGren %60 eta %204 artekoa izango litzateke (1. koadroa).

Oraintsuago, beste bi ikertzailek (Moses eta Letnes -2002-) Hamiltonen eta Whalleyren (1984) ariketa berrikusi zuten, muga batzuk zuzentzeko eta kalkulua 1998. urtera arte luzatzeko. Horrela, beste datu batzuk ere erabili zituzten (BPGak Erosteko Ahalmenarekin parekatuta), herrialdeak eskualde agregatutan sartu zituzten, erlatiboki arruntagoak, (dagokion giza garapen mailaren arabera) eta biztanleria aktiboarekiko (ekonomikoki) eta lanaren ekoizgarritasun konparatuarekiko egokitzapenak eguneratu zituzten. Faktoreen aldaketak eragindako elastikotasunak eragina zuenez emaitzetan, kalkuluak egiteko parametro bat baino gehiago erabili zituzten. Aldaketa horien guztien emaitza legez, liberalizazioaren etekinak mugatuagoak dira, baina, hala ere, nabarmenak izaten jarraitzen dute: 1eko ordezpen-elastikotasuna onartuta, irabaziak 7,19 bilioirenak izango lirateke 1977an, hau da, urte hartako BPG baino apur bat txikiagoa; eta 34 bilioirenak 1998an, hots, urte hartako munduko BPGren %96. Lanaren eragingarritasun egokitzapenak ezartzeak balioespenak txikitzen ditu, baina balizkorik murriztaileenean ere, 1977ko BPGren %9,4ko irabaziak eta 1998koaren %12,6koak ematen ditu (1. koadroa).

1. Koadroa: Emigrazioari ezarritako murrizpenak kentzearen ondoriozko eragingarritasun irabaziak (munduko BPGren %-tan adierazita)					
	Ordezpen-elastikotasunak				
	1,5	1,25	1,00	0,75	0,5
Egokitzapen gabe					
1977	109,5	102,7	92,7	76,4	47,6
1998	118,1	109,4	96,5	75,6	43,6
Egokitzapenekin (1)					
1977	28,2	26,4	23,8	20,2	14,8
1998	36,0	33,3	29,7	24,4	17,3
Egokitzapenekin (2)					
1977	11,6	10,6	9,4	7,9	5,9
1998	15,5	14,2	12,6	10,7	8,3

Iturria: Etxean egina, Moses eta Letnes (2002) aintzat hartuta

1. eta 2. egokitzapenak, oinarrian, eskualdeen arteko ekoizgarritasun diferentzialen arabera soldata diferentzialak zuzentzeari dagozkie.

Berrikiago, Munduko Bankuak (2006) antzeko ariketa bat egin zuen, baina beste ikuspegi batekin. Pertsonen erabateko mugimendu askatasuna hartu beharrean, oinarri errealistago bat hartu zuen kontuan: 2001 eta 2025 artean herrialde garatuetan lan egiteko adina duten biztanleen hazkundea urtean %3koa dela onartzea eta biztanle langileen beharrizana, behar den neurrian, immigrazioak beteko duela onartzea. Horrek esan nahi du, kontuan hartutako tarteko 24 urteetan etorkinen biztanleria 14 milioi haziko dela (27,8 milioitik 42 milioira), hau da, etorkinen stocka, urtean, %1,9 haziko litzateke, azkeneko bi hamarkadetan bizi izandakoaren antzekoa. Balioespenak egiteko Munduko Bankuak eszenatoki hedakor hori, eskualdeka, etorkinen proportzioa konstante mantentzetik sortutako eszenatokiarekin konparatu zuen. Halatan, ondoriozko ongizate irabazi garbiak 674 milioi dolar ingurukoak izango lirateke, munduko BPGren[2] %1,19koa. Herrialdeetako bizitza kostu desberdinen arabera egokituko balitz, etekinak murriztu egingo lirateke apur bat, baina, hala ere, munduko BPGren %0,63 izango litzateke. Etekin horien banaketa garapen bideko herrialdeen aldekoak izango litzateke (emigratzen duten pertsonak barne), sarreretan %1,8 inguruko hazkundea izango luketelako; herrialde garatuek, aitzitik, %0,4ko hazkundea izango lukete.

[2] Munduko Bankuaren balioespenak ia bikoiztu egiten du urte batzuk lehenago Walmsleyek eta Wintersek (2003) kalkulatutako etekina, oso gertuko balizkoen bidez, hau da, migrazio erregulazioetan malgutasun bat dakarten balizkoen bidez, garatutako herrialdeetan laneko indarraren %3ko hazkundea ahalbidetzeko. Balioespen baxuena (150 mila milioi inguru) populazio immigrantearen eta harrera herrialdeko bertako populazioaren soldaten arteko desberdintasunarekiko balizko murriztaileago baten ondorioa da.

2. koadroa: Errenta errealaren aldaketa 2025ean migrazio prozesuaren ondorioz						
	Errenta erreala			Errenta erreal egokitua		
	Privada	Pública	Total	Privada	Pública	Total
Herrialde garatuetakoak bertakoak	0,44	-0,01	0,36	0,44	-0,01	0,36
Aspaldiko migratzaileak herrialde garatuetan	-9,41	-0,02	-6,02	-9,41	-0,02	-6,02
Garapen bideko herrialdetako bertakoak	0,94	0,44	0,86	0,94	0,44	0,86
Immigrante berriak	584	607	589	198	203	199
Mundukoa guztira	**1,20**	**1,15**	**1,19**	**0,67**	**0,45**	**0,63**

Iturria: Munduko Bankua (2006).

Munduko Bankuaren balioespenak badu aparteko ekarpen interesgarri bat, izan ere, alde batetik, emigrazioaren eragina kontsumo pribatuaren eta publikoaren artean bereizten du, eta, bestetik, parte hartzen duten gizarte sektoreen artean. Horrela bada, etekinik handienak emigratzen duten pertsonek lortzen dituzten arren, jatorrizko herrialdean geratzen diren familiek ere ateratzen dute etekinik prozesuari esker. Prozesu honetan kalterik handienak dituen segmentua, argi eta garbi, aurretiaz finkatuta dauden emigranteena da, izan ere, beraiek dira immigrazio berriaren ordezpen-faktore nagusia.

Irabazien eskualdekako banaketan eragin handiak izango lituzke abiaburutzat hartzen diren soldata diferentziek. Hain zuzen ere, Hegoaldeko Asiako eta Latinoamerikako bizilagunak dira migrazio fenomenoari etekin handiena ateratzen diotenak; baina emigrante komunitate berrientzat, etekinik handienak Saharaz behereko Afrikan kontzentratzen dira, soldatarik txikieneko eskualdea baita (1. grafikoa).

1. grafikoa: Etekinen banaketa eskualdeka



Iturria: Munduko Bankua (2006).

Finean, balioespenek egiaztatu egiten dute migrazio arloan politika ez hain murriztaileak ezarriz gero irabazien eragingarritasunak aukera handiagoak izan ditzakeela. Irabazi horiek, gainera, adibiderik txarrenean ere, garapenerako Dohako Errondarako iragarritako merkataritzako liberalizazioaren ondoriozkoen parekoak (edo handiagoak) dira; eta, horrez gain, etekin horien banaketa bidezkoagoa ezarrita[3]. Garrantzitsua da, bestalde, gogoraraztea etekinen parte handi bat lortzeko nahikoa dela soldaten arteko diferentziala apur bat zuzentzea. Alegia, eragingarritasunaren irabazi nagusiak liberalizazioaren lehenengo tarteetan lortzen dira, eta horrek esan nahi du gaur egun indarrean dauden migrazio araudien izaera murriztailea apur bat zuzenduz gero (erabateko askatasuna ezarri beharrik gabe), eragingarritasun agregatuan irabazi handiak lor litezkeela. Eta hori argudio indartsua da pertsonen mugimenduak arautzeko arloan jarrera malguagoak har daitezen.

2.2. Konplexutasun handiagoaren bila

Iradokitzeko gaitasuna izan baduen arren, aurreko azalpen multzoak badu arazo bat: migrazio mugimenduen kartografiak ez dio zehatz-mehatz erantzuten nazioarteko lan ordainsarien gradienteari. Izan ere, migratzaile taldeek NPGrengan daukaten eragina migrazio-intentsitaterako gerturatze onargarritzat onartzen badugu, ez dirudi harreman sendorik dagoenik herrialde bidaltzaileko garapen maila erlatiboekin: joera beheranzkoa da, baina malda txikikoa eta dispertsio maila handikoa (2. grafikoa). Ez du ematen, finean, soldaten arteko desberdintasunak soilik zehazten dituenik migrazio isuriak, bestela, zergatik aukeratzen dute emigrante ekuadortarrek Espainia helmugatzat eta ez, esaterako, Herbehereak, *per capita* BPG %30 handiagoa badauka? Eta zergatik dira ekuadortarrak, masiboki, Espainiara emigratzen dutenak eta ez, esaterako, haitiarrak, azkeneko horiek Ekuadorren *per capita* BPGren erdia baino zerbait gutxiago badute? Behar-beharrezkoa da, beraz, migrazio fenomenoa azaltzeko beste faktore batzuk ere bilatzea.

2. grafikoa: Migrazio-intentsitatea eta per capita errenta



Iturria: WDI, Munduko Bankua.

[3] Hain zuzen ere, Anderson et al-en (2005) oraintsuko lan batean munduko BPGren – baliokideak diren merkataritza irabaziak kalkulatzen dira, Dohako Errondatik ondorioztatutakoak. Hala ere, etekin horiek eskualdeka banatzerakoan %0,6 herrialde garatuei dagokie eta %0,8 garapen bidean dauden herrialdeei.

Ildo honetan aurrerapauso bat eskaintzen dute Todarok (1968, 1969) eta Harris eta Todarok (1970), onartu zutenean emigrazioa eragiten duena ez dela horrenbeste une jakin batean laneko indarraren ordainketan dauden desberdintasunak, baizik eta *ziklo aktiboan jasotzea espero duten itxaropenetan* dagoen diferentzia. Espero diren errentak kontuan hartzean, gaur egungo soldatak ez ezik, etorkizuneko errenten isuria baldintzatzen duten beste faktore batzuk ere ari gara kontuan hartzen, baita enplegu egonkorra izateko probabilitatea, laneko sustapenerako aukerak zein etorkizunean diru-sarreren egonkortasunari eragin diezaioketen arrisku mailak ere.

Harrisen eta Todaroren (1970) planteamenduari esker *dinamika demografiko konparatua* sar dezakegu migrazio fenomenoaren barruan. Herrialde bidaltzailean espero diren errenten balioa nabarmen murriztuko da erritmo bizietan hazten ari den biztanleria barneratzeko gaitasunik ez duten lan merkatuko herrialdeetan. Hori dela eta, ugalkortasun tasa handia eta biztanleria oso gaztea erronka bat dira lan merkatuen absortzio aukeretarako. Esate baterako, Saharaz behereko Afrikan batez besteko ugalkortasun tasa 5,4koa da, eta biztanleriaren %44 inguru 15 urtetik beherakoa da: parametro horiek, hurrenez hurren, 1,8koa eta %18koa dira ELGAko herrialdeen kasuan. Hazkunde txiki eta ezegonkorreko inguru batean, hau da, herrialde garaturik gehienetan gertatzen den bezala, oso zaila da merkatuek laneko adinera heltzen diren biztanleria multzo handientzako beste enplegu sortzea. Baldintza horietan, langabezi handiko (edo azpienplegu ugariko) aukerek eragina dute espero diren errenten itxaropenetan jatorriko herrialdean, eta kanpoko merkatuetan bilatzeko nahia bizitzen da. Datuek argitzen dute, badagoela migrazio intentsitatearen eta herrialdeen dinamismo demografikoaren arteko harreman positibo bat, dispertsio handiarekin bada ere, biztanleria gaztearen pisuak adierazten duena, hain zuzen ere (3. eta 4. grafikoak).

3. grafikoa: *Migrazio intentsitatea eta ugalkortasuna*



Iturria: WDI, Munduko Bankua.

4. grafikoa: *Migrazio intentsitatea eta 15 urtetik beherako biztanleria*



Iturria: WDI, Munduko Bankua.

Kontrako fenomeno demografikoa gertatzen da herrialde garatu batzuetan, hau da, dinamismo demografiko txikia eta biztanleria gero eta zaharragoa dute. Esate baterako, Europari dagokionez, ugalkortasun tasa (1,4) ez da berrezartze demografikorako behar denera heltzen, eta biztanleriaren %16 65 urtetik gorakoa da. Baldintza horietan kontua zera da, zelan bete hazkunde prozesurako behar den eskulana eta zelan eutsi belaunaldien arteko banaketa printzipioan oinarritzen diren ongizate sistemei. Immigrazioa, kasu hauetan, nahitaezko aukera bihurtzen da ia-ia. Halatan, bada, hazkunde demografikoko erritmoen diferentzial a, enpleguaren zabalkuntza erritmoetako diferentziek konpentsatzen ez dutena, faktore garrantzitsua da migrazio korronteak azaltzeko.

Etorkizuneko errentetarako itxaropenak areagotu egiten dira emigranteak *aktibo mugigarriak* baditu eta, horiek, merkatuak *balioesteko modukoak badira*. Aktibo horien arteko garrantzitsuena, zalantza izpirik gabe, emigrantearen giza kapitala da. Merkatu oso lehiakorretan, lehen hezkuntza eta bigarrena birtualki unibertsalak diren merkatuetan, emigranteak heziketa apur bat badauka, aktibo garrantzitsua izaten da enplegua eskuratzeko, baita kalifikazio baxuko lanetan ere. Aktibo horren balioa areagotu egiten da immigrazio politika selektiboak dituzten herrialdeetan, giza baliabide oso kualifikatuak nahi izaten dituztelako (zientzialariak, medikuak, informatikariak, etab.). Horrela, prestakuntzak areagotu egin dezake migratzeko erabakia elikatzen duen errenta-itxaropenaren diferentziala. Gertakari horrek, "burmuinen ihesa" ez ezik, emigranteek jatorriko herrialdearen batez bestekoa baino hezkuntza maila handiagoa izatea ere azaltzen du, fenomeno orokorra bera.

Azkenik, jasotzea espero den errentetan etorkizuneko sarreren jarioaren gainean dagoen zalantza mailak ere eragiten du. Faktore hori izugarri baldintzatzen dute *herrialdearen ezegonkortasunak* eta etorkizunean garapenerako dituen itxaropenek. Hazkunde egonkorrik ezak arriskua dakar, eta ekoizpen jardueratik jasotzea espero den etekina (deskontu tasaren bidez) txikiagotu egiten da. Ez da mira egitekoa,

beraz, migrazio isuriak areagotzea herrialdeetan geldialdi ekonomikoko prozesu baten edo ezegonkortasun errepikari baten mende daudenean.

Sjaastad (1962) faktore multzo hori emigratzeko aukera inbertitzeko erabaki batekin parekatzen duen eredu batean sartzen saiatu zen. Inbertsio guztietan bezala, emigrazioaren alde egiterakoan langileak uneko kostu batzuk onartzen ditu, etorkizunean etekinak izateko. Agenteek, emigratzeko erabakiari lotuta, mozkinak eta kostuak hartzen dituzte kontuan, ekonomikoak zein ez ekonomikoak, unekoak eta etorkizunekoak. Ordainsarietako diferentziala edo jatorrian eta helmugan lan arloan aurrera egiteko dauden probabilitateen diferentziala, eta emigratzearekin zerikusia duten kostuak, beraz, erabaki horren oinarrizko azalpen-aldagarri gisa agertzen dira. Emigrazioa, beraz, ez da gertatuko jatorriko herrialdeak berak laneko etekin handiak jasotzeko posibilitatea eskaintzen badu, edo langileak pilatutako aktiboak (jakinduria edo esperientzia, esate baterako) etxeko merkatuan baino ez badira erabilgarriak. Horrek laguntzen du ulertzen emigrazioa zergatik den hain mugatua, herrialdeen arteko errenta diferentzialak hain handiak izan arren; eta biztanleria emigranteko gazteen aldeko isuria ere azaltzen du. Gazte bati errazago zaio emigratzea heldu bati baino: lehenengoak herrialdeko bertako merkatuan sartzeko egin duen inbertsioa txikiagoa da (eta desplazamendua, beraz, merkeagoa da); eta, ordainetan, migrazioaren bidez egindako inbertsioaren trukean jasotzea aurreikusitako etekin kopurua handiagoa da, izan ere, gaztearen bizitza-etorkizuna luzeagoa da. Faktore horiek guztiak enpirikoki egiaztatzeko eredu batean sartzeko gaitasuna, ordea, mugatua da (2. laukia).

2. laukia: Emigrazioa azaltzeko ereduaren itzulpen bakuna

Bertsiorik bakunenean, h herrialdetik f herrialdera emigratzeko erabakia soldaten arteko diferentzialaren (w_f - w_h), jatorriko lekuari lotutako konpentsazio faktore baten (z) eta emigrazioaren kostu zuzenen (c) mende dago. Hau da:

$$a^{i} = w_{.} - w_{,} - z - c \geq 0$$

Diru-sarreren balio eguneratua hartuz gero kontuan, kasu horretan garrantzitsua da emigrantearen adina, izan ere, errenten diferentziala hazi egingo da pertsonaren laneko horizontearekin batera. Era berean, lanaren ordaina hartutako abildadeek (s) baldintzatuta dagoela pentsa liteke. Hau da: $w = \alpha + \beta s$

Beraz, lehenengo funtzioa honela geratuko litzateke:

$$a^{i} = \alpha_{.} \quad \alpha \cdot (\beta_{.} \quad \beta_{.}) \quad - \quad c$$

Borjasek (1989) dioenaren arabera, s eta z normaltasunez banatzen badira, herrialde baten emigrazio tasa tarteko balioen eta aldagai horiek jatorriko eta helmugako lekuetan duten banaketa mailaren arabera adieraz daiteke.

Teoria batzuek emigrazioaren azalpenean ekonomikoak ez diren eragileek duten garrantzia azpimarratzen dute, eta z aldagaian bil daitezke. Faktore horien artean garrantzitsuenetakoen artean helmugako herrialdean lehenagotik dagoen immigrante kopurua izan daiteke (eta horrek z murriztu ez ezik, emi-

grazio kostuak (c) ere murritz ditzake). Beste alde batetik, c aldagaian harrera herrialdean migrazioari ezartzen zaizkion murrizketak sartu ohi dira, desplazamenduaren kostutzat har badaitezke.

Azkenik, aldagai osagai bat ere har liteke kontuan, emigrantearen ezaugarri indibidualak jasotzeko, hau da, gaitasun pertsonala, xede herrialdean familiartekorik duen edo garrantzitsutzat jotzen den beste edozein kontu. Kasu horretan, hauxe izango litzateke eragiketa: $d_i = \alpha \quad - r_{..} \quad - \quad - \; + \gamma_i$

2.3. Errenten diferentzialaren faktore osagarriak

Orain arte aipatutako faktoreek ez dute migrazio ekintzaren azalpena agortzen. Beste faktore nabarmen batzuek ere badute eragina emigratzeko erabakian, eta batzuk interesgarriak izan daitezke lagundutako garapenerako estrategia egoki bat diseinatzeko.

Arlo honetan azpimarragarriak dira Starken taldeak egindako ekarpenak, Harvardeko Unibertsitateko *Migrazioak eta Garapena* programaren barruan, hain zuzen ere. Lan horretako hiru ekarpen nabarmendu gura genituzke hemen: lehenengo eta behin, emigrazioa errenta handiagoak lortzeko estrategia ez ezik, pertsonen arrisku eta urrakortasun maila murrizteko estrategia ere badela; bigarrenik, emigratzeko erabakiak, norbanakoak hartutakoak diren arren, familia izaerako estrategia zabalagoak direla; eta, finean, migrazio fenomenoak kapital merkatuen izaera inperfektuari erantzuteko bide bat direla.

Stark eta Levharik (1982) eta Katz eta Starkek (1984) diote, emigrazioa, errenta hobetzeko bide bat izateaz gain, familiaren partetik *arriskuari itzur egiteko estrategia* ere badela. Proposamena harrigarria izan liteke, izan ere, tradizionalki, emigrantea arriskuan bizi den agentetzat hartzen da. Hala eta guztiz ere, esparru pertsonalean abentura gisa hartzen dena familiaren arriskuak murrizteko estrategia agregatu bat izan liteke, etxe bateko diru-sarrerak dibertsifikatzearen bidez. Jatorriko merkatuko eta xede merkatuko sarreren bilakaeren artean kobariantza baxua dagoen neurrian, familiako kide baten emigrazioa familia nukleoaren arriskua eta urrakortasuna murrizteko estrategia egokia izan liteke. Emigrazioaren bidez diru-sarrera iturriak dibertsifikatu egiten dira eta, ondorioz, murriztu egiten da familiak ezusteko gertakarien aurrean duen esposizio maila. Kontuan hartu kasu honetan erabakiaren logika ez dela soilik norbanakoarena, familiarena baizik[4]. Hortik ondorio garrantzitsu bat ateratzen da: familiako kide batzuen emigrazioa erabakitzen duten faktoreak, kasu batzuetan, gainerako kideek emigratzeari uko egitea azaltzen duten faktore berberak izan daitezke.

Emigrazioaren azterketa egiteko *familia erreferentzia-unitate gisa* hartzearen egokitasuna nahikoa frogatuta dagoela ematen du. Bidalketen presentzia eta garrantzia,

[4] Oraingoz ez diegu kasurik egingo familia barruko desberdintasunei, genero desberdintasunak barne, ardura diguna ez direlako familia barruko erabaki prozesuak, jarrera agregatua baizik. Komeni da esatea, hala ere, migrazio prozesuaren gizarte azterketan sakontzeko desberdintasun horiek ere kontuan hartu beharko liratekeela.

emigrantearen eta bere familiaren arteko era guztietako komunikazioen intentsitatea, geratzen direnen artean familiako obligazioak banatzea (umeak eta etxea zaintzea) eta emigranteak familia berriz batzeko egiten dituen ahaleginak dira, besteak beste, neurri handi batean emigratzeko erabakiaren oinarrian dauden famili konpromisoak egiaztatzen dituzten faktoreak. Garapenerako Banku Inter-amerikarrak honela islatu du ekuadortarren emigrazioari buruz oraintsu egindako ikerketa batean: datuen arabera, emigranteen %83k diote atzerrirako bidaia "familiari dirua bidaltzeko" egiten dutela. Familiako harremanak, beraz, berriz definitzen dira, baina ez dira galtzen, ez ezabatzen, emigrazioaren ondorioz, eta famili nukleoaren morfologi berriak agertzen dira (*familia transnazionalak*[5]). Planteamendu honen bidez, Starkek eta Bloomek (1985) dioten bezala, migrazioaren teoriaren oinarrizko puntua norbanakoaren erabaki huts batetik (batzuk besteen aurreko optimizazioa) talde aukera batera (familiaren optimizazio agregatua) mugitzen da; eta migrazioa "estrategia kalkulatu" bihurtzen da, eta ez "etsipenak edo muga gabeko optimismoak eragindako ekintza" huts.

Starkek eta Chauk (1998) landutako hirugarren alderdi bat emigrazioaren eta *kapitalaren merkatuen inperfekzioen* arteko harremana da. Lehen ere aipatu den bezala, emigrazioa inbertsio estrategiatzat har genezake: migrazio esperientziaren bidez emigranteari eta bere familiari bizimodu seguruago eta erosoago baterako oinarriak ezartzeko baliabideak lortu gura dira. Kapitalaren merkatuek informazio perfektuko esparru batean jardungo balute, erakundeak (kreditu- zein aseguru-erakundeak) gai izango lirateke proiektu horiek babesteko. Aseguramendurako edo familian aktiboak pilatzeko emigrazioaren estrategia hartzen bada, kapitalen merkatuak eragingarritasun irizpide horiek ez dituelako da neurri batean. Kapital merkatuen ezaugarria den informazio inperfektuak eta asimetrikoak bazterketa prozesuak eragiten ditu, eta kreditua eskuratzeko kolateralik ez duten sektoreei eragiten die azkenean. Kapitalaren merkatura jotzeko zailtasunen aurrean, emigrazioa da familia askorentzat aurrezteko estrategia bideragarri bakarra.

Emigrazioak xede herrialdera heltzeko garraioari eta bertan ezartzeari lotutako kostuak ditu. Kostu horiek nabarmen arin daitezke jatorriko eta helmugako komunitateen arteko *famili sareen, lotura etnikoen eta kultur harremanen* presentziaren bidez (Borjas, 1992, 1994 eta 1995). Hain zuzen ere, Borjasek (1999) galdetzen du nola litekeen, munduan dauden desberdintasun mailak ikusita, hain migrazio gutxi egotea (munduko biztanleriaren %3koa baino ez). Beste era batera esanda, nola liteke, esate baterako, Etiopiatik Norvegiara hain migrazio isuri txikia egotea bien arteko *per capita* BPG harremana (erosteko ahalmenaren parekotasunean), gutxi gorabehera, 1 eta 53koa bada? Horri erantzuteko Borjasek herrialdeen arteko ezberdintasun etnikoak eta kulturalak (hizkuntza, ohiturak, erakunde-esparruak) aipatuko ditu, migrazioari hesi efektiboa jartzen baitiote; eta, aitzitik, herrialde bidaltzailearen eta hartzailearen artean lotura komunak eta konfiantzazko sareak badaude migrazio erabakia bultzatuko dute. Lotura komunak eta konfiantzazko sareak kanpotiko zoria dira eta etorkina harrera lekuan finkatzeko kostua eta arriskua murrizten dute (Bartel, 1989, zein Jaeger, 2000). Faktore horrek azaltzen du jatorri bereko immigranteak egotea leku jakinetan, esate baterako, "Little Habana" Miamin, "Greektown" Chicagon, auzo turkiarra Berlinen edo ekuadortarrak Madrilen.

[5] Oso iradokitzailea da emigrazioak eragiten duen "afektuen katea" berrosatzea, adibidez, emakumezko emigrante batek harrera herrialdean familia bateko seme-alabak zaintzea eragiten baitu, bere seme-alabak jatorriko herrialdean utzi osteran senideren baten kontura (Hoshschild, 2001).

Alderdi hori kontuan hartzeak migrazioak herrialde bidaltzaileko eta hartzaileko kapital sozialeko horniduran duen harreman kontraesankorra uzten du agerian. Emigrazioak, lehenengo eta behin, kapital sozialeko galera bat eragiten du jatorriko herrialdean, lotura komunalak hausten dituelako: "kapital sozialaren ihesa" (*social capital drain*). Eta antzeko prozesua biziko da harrera herrialdean, emigrazioak heterogeneotasun elementuak ezartzen dituelako (balio, ohitura, hizkuntza eta kultura ugaritasuna), eta, horrek, aurreko konfiantzazko loturak ahul ditzake. Galdutako kapital sozialaren parte bat etorkinen komunitateko eremurik mugatuenean berreraikitzen da harrera herrialdean, eta hori segurtasun faktore bat da heldu berriak gizarteratzeko. Atalase jakin batetik aurrera, ostera, etorkin kopuruaren gorakadak harrera herrialdeko kapital sozialak etorkinen komunitatearen barruan izandako irabazia baino galera handiagoa izan dezake. Eta horrek azalduko luke immigrazio berriekiko dauden erresistentziak, ez soilik bertakoen artean, baita dagoeneko instalatuta dauden etorkinen beraien artean ere (Schiff, 1998)[6].

Alderantzizko U baten itxurako kurba horren interpretazioa iradokitzailea izan liteke, baina oinarritzat duen kapital sozialaren kontzeptuaren ahultasun teorikoak baldintzatu egiten du. Egia esan, ez litzateke beharrezkoa izango kapital sozialaren aritmetikara jotzea etorkinek migrazio isuriak handitzearen aurrean izan dezaketen erresistentzia azaltzeko: azken batean, Munduko Bankuaren balioespenak (2006) identifikatzen duenaren arabera, etorkin gehiago heltzeak sektore horretan izan ditzake eragin negatibo gehien.

Emigrazioan dituen eraginak direla-eta, eztabaidatzen den aldagaietako bat herrialde bidaltzailean dagoen desberdintasun maila da. Egile batzuentzat, hala nola Starkentzat (1984) eta Stark eta Yizhakirentzat (1988), harreman zuzena dago desberdintasunaren eta migrazio-irrikaren artean: desberdintasun maila zenbat eta handiagoa izan (*gabezia erlatiboa,* Starken esanetan), hainbat eta emigrazio intentsitate handiagoa pobrezia maila jakin baterako. Beste egile batzuentzat, aldiz, besteak beste Clark, Hatton eta Williamsonentzat (2002), desberdintasunak gerturatu egiten ditu kualifikazio maila ugarien ordainsari mailak, hau da, hura zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txikiagoa izango da prestakuntza maila hobeak dituztenen emigratzeko estimulua. Harreman horietako lehenengoa Mexikorako konstatatu zuten Starkek eta Taylorrek (1986), eta bigarrena, berriz, badirudi Clark, Hatton eta Williamsonen (2002) emaitzetara egokitzen dela, eskualde ugarietatik Estatu Batuetarako emigrazioa aztertzen baitu.

Araztasunean, interpretazio biak ez dira hain kontraesankorrak mugikortasunaren eragin osagarria kontuan hartuz gero. Gizarte mugikortasun nahikoa badago, desberdintasunak ez luke zertan emigratzeko erabakia harrarazi, izan ere, jatorriko herrialdean bertan lortu ahal izango litzateke gizarteko hobekuntza. Gizarte-mailarik pobreenek aberatsagoetan aurki lezakete beren balizko etorkizunaren irudia: "tunelaren efektua" da, Hirschmanek (1984) aipatu zuen efektua, hain zuzen ere. Kasu honetan, Clarkek, Hattonek eta Williamsonek (2002) iradokitzen duten interpretazioaren aurrean geundeke. Hala ere, mugikortasunik ez badago (hau da, desberdintasuna enkistatuta badago eta kronikoa bada), emigrazioa izaten da pobreenei geratzen zaien

[6] 1993ko Latino National Political Survey batean jasotako datuak azalduko lituzke horrek, izan ere, bertan dio Estatu Batuetan bizi diren hispanoen %65ek etorkizuneko immigrazioari mugak jarriko lizkiekeela (ikus Schiff, 1998).

bide bakanetako bat gizarteko beren egoera (eta beraien familiarena) hobetzeko: Starkek eta Yizhakik (1988) egiten duten interpretazioa da.

Ikuspegi dinamiko batetik ere antzematen da desberdintasunaren eta migrazio presioaren arteko harremanen konplexutasuna. Badirudi hori guztiori harreman ez monotonikoa dela: jatorriko herrialdean errentaren banaketa ez denean batere bidezkoa, desberdintasunaren gorakada batek emigrazio-tasaren beherakada ekarriko du; eta, alderantziz, jatorriko herrialdeak gutxi gorabeherako banaketa bidezkoa badauka, desberdintasunaren gorakadak emigrazio-tasaren gorakada eragingo du. Azkeneko horrek, beraz, alderantzizko U baten itxurako kurba bat ematen duela dirudi, tasa lehenengo hazi egiten da, eta gero jaitsi egiten da desberdintasun mailetan aurrera egiten den neurrian.

Emigrazioaren eta pobreziaren arteko harremana gardenagoa da. Jakina denez, ez dira ez herrialderik ez gizarte sektorerik txiroenak gehien emigratzen dutenak (Hatton eta Williamson, 2003). Neurri handi batean migratzeko erabakiak berak ere baduelako kostu ekonomiko bat, eta sektorerik pobreenek, sarritan, horri ere ezin diote aurre egin. Emigratzeko gutxienezko kapital bat behar izaten da, bidaiako gastuak ordaintzeko, bitartekariei ordaintzeko xede herrialdean sartu ahal izateko (*koioteak*, *oilasko-saltzaileak*, etab.) eta, harik eta lana aurkitu arte, bizirauteko fondo bat. Kasuetako parte handi batean emigranteak izan daitezkeenen aurrezteko gaitasunaren gainetik dagoen kapital kopurua izaten da, eta, ondorioz, maileguan eskatu behar izaten diete finantza sektore formalari edo, sarriago, sektore informalari (lukurariak) zein bitartekariei beraiei. Migrazio esperientziaren arrakastarako aukera emigranteak xede merkatuan balioan ipin ditzakeen aktiboen (ahal dela ukiezinak) aurretiazko metaketak baldintzatzen du. Eta horrek ere pobrezia mailaren gainetik bizi diren sektoreek abantaila dutela adierazten du. Azken batean, emigrazioak dituen eskakizunei aurre egiteko nolabaiteko gaitasun ekonomiko bat behar du aurretiaz emigranteak: pobreenek, beraz, aukera hori ere ez dute.

Baina, emigrantea izan daitekeenak, aurretiaz, kapital metaketa bat behar badu (norberak aurreztutakoa edo mailegua), hauxe izan liteke galdera: zergatik ez du kapital hori bere jatorriko lekuan inbertitzen eta, horrela, emigrazioa ekidin? Jokoen teoriak, *gatibuaren dilemaren* bidez, eman lezake itaun horren lehenengo erantzuna (Ellerman, 2003)[7]. Emigrante guztiek ebatziko balute beren aurrezkiak eta energiak modu koordinatuan inbertitzea, emigrazioa ez zatekeen beharrezkoa izango. Hala eta guztiz ere, ekintza koordinatu baten aukerekiko mesfidantzaren aurrean, bakoitzak bere irtenbide propioaren alde egiten du emigrazioaren bidez. Emigrazioa, horrela, gabezia edo beharrizan egoera baten irtenbide bilakatzen da arazoari aurre egiteko ekintza koordinatu batek (ekintza kolektiboa, finean) izan ditzakeen aukeren aurrean konfidantza gutxi dagoenean.

Hirschmanek (1977) iradokitako heuristikara joz gero, emigrazioa *irtenbide indibidualeko* adierazpidea da instituzioekiko *leialtasuna* galtzen bada eta espero den gizarte aldaketa eragingo lukeen *ahots kolektiboa* artikulatzeko aukerekiko mesfidantza nagusitzen denean. Azalpen honen harira, ez da harritzekoa, beraz, emigrazio presioak areagotzea gobernu gabeko egoerek, instituzioen ahultasun egoerek, gizarte

[7] Jakina denez, dilema horrek estrategia indibidual autonomoen eta interes kooperatiboaren estrategiaren artean kontraesana dagoenean sortzen den arazoa azaltzen du.

desartikulazioak edo mesfidantza kolektiboak bat egiten dutenean. Kasuotan emigrazioa, gizarte krisietarako *irteera-balbula* izaten da, baita jatorriko herrialdeetan erantzun kolektiborik ezaren aurreko *salaketa isila* ere.

Planteamendu horrek berorrek ondorio oso artegatsu batera eraman gaitzake: baldintza jakin batzuetan, emigrazioak ezabatu egin ditzake herrialde baten eraldaketarako aukerak, izan ere, eraldaketa ezinezko bihurtzen da emigrazioak baliabideetan eragiten duen galerarengatik. Rosestein-Rodanen (1943) arabera, emigrazioak ezinezko bihur lezake herrialde batek *goragoko mailako* oreka lortzea, eta *behe mailako* oreka baten egotera kondena lezake (herrialde azpigaratu baten berezkoa)[8].

Gogoratuko dugun bezala, teoria neoklasikoak iradokitzen du faktoreen (kapitala edo lana) mugimenduek, nazioartean, zeregin orekatzailea dutela. Emigrazioaren bidez, eskulana ugaria den herrialdeetatik falta den herrialdeetara doa: ondorioz, faktore horren ordainsari baldintzak gerturatu egiten dira nazioartean. Funtzio orekatzaile horrek, ematen duenez, jardun zuen Europatik Ipar Amerikarako emigrazioaren kasuan lehenengo saldo globalizatzailean, halaxe erakusten baitute azterketa historiko batzuek (0´Rourke eta Williamson, 1999). Hala eta guztiz ere, emaitza oso bestelakoa izango litzateke emigrazioak garapen prozesua eragiteko eta herrialdeak oreka dinamiko bat lortzeko (goi mailakoa) behar den baliabide baten gainean jardun izan balu (giza kapitala edo kapital instituzionala).

Demagun, esate baterako, goi mailako oreka bat lortzeko behar diren giza baliabide jakin batzuei eragiten dien inbertsio prozesuan osagarritasunak daudela. Baliabide horien jabeek bi aukera dituzte: i) herrialdean gera daitezke estrategiako gainerako osagarriak eskura egongo direla espero izanda eta, ondorioz, oreka dinamikoa (edo goi mailakoa) lortu ahal izango da, hau da, guztientzat onuragarria; edo bestela, aldizka, ii) norberaren hobekuntzarako aukeraren alde egin liteke, emigrazioaren bidez. Jatorriko herrialdean bertan kalitatezko ekintza kolektibo baten aurreko mesfidantza zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta erakargarriagoa izaten da emigratzearen aldeko aukera indibiduala. Baina, arazoa da emigratzen duten indibiduoen kopurua zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta urriagoak izango direla goi mailako oreka lortzera bideratutako estrategia kooperatibo batek izan ditzakeen arrakasta aukerak. Era berean, arrakasta kolektiborako itxaropena murrizten den neurrian gero eta indibiduo gehiagok erabakitzen dute emigratzea, eta, ondorioz, autoelikatzen den prozesu bat sortzen da, eta dagokion ekonomia horrek, nahitaez, behe mailako orekan jarraitu beharko du. Kasua hori balitz, emigrazioa, orekarako faktorea izan beharrean, ekonomia garapenerako helburutik urrunduko lukeen indarra izango litzateke.

2.4. Ebidentzia enpirikoa

Hemen aztertu ditugun faktoreak neurketa enpirikora eramatea, nahitaez, oso mugatua da. Izan ere, ikerketa kuantitatibo askok eta askok eredu nahiko sinpleetara jo izan dute, azterketa eremua faktore ekonomiko neurgarrienetara mugatu nahirik (2. Laukia). Horixe da Hattonen eta Williamsonen (1998) kasua, Estatu Batuetarako emigrazio tasak jatorriko lekuaren eta xede lekuaren arteko soldaten batez besteko ordainsariaren (erosteko ahalmenaren parekotasunean) diferentzialarekin harreman

[8] Inbertsio prozesuak osagarritasunak egoteak garapen prozesuan askoratiko orekak daudela azaltzen du. Rosestein-Rodanek (1943) beren "Big Push" doktrina justifikatzeko aurkeztutako aspektu bat. Gaur egungo planteamentu bat aztertu nahi izanez gero, ikus Murphy, Shleifer eta Wishny (1989).

positiboa duela egiaztatzen baitute, hots, herrialde bidaltzaileko biztanlerik gazteenen kohortearen pisuarekin eta harrera lekuko immigranteen stockarekin. Faktore horiei, Fainik eta Venturinik (1994), Italiako kasua aztertzean, bidaltzailearen pobrezia mailak emigratzeko aukeraren aurrean duen eragin negatiboa gehitu zieten.

Oraintsueneko emigrazio garaiari buruzko ikerketek lehenago adierazitako aurkikuntza batzuk berresteko joera izan dute. Oro har, Estatu Batuetarako immigrazioan oinarrituta, herrialde bidaltzaileko *per capita* errentaren (Borjas, 1987) harreman negatiboa eta aurretiaz dagoen etorkin stockaren eragin positiboa (Yang, 1995). Jasotzea espero den errenten diferentzialen papera, emigrazioa azaltzeko faktore legez, Karemerak (2000) ere egiaztatu du. Anbizio handiko lan berri batean, Clarkek, Hattonek eta Williamsonek (2002) Estatu Batuetarako emigrazio tasa hauekin lotzen dute: *per capita* errentaren diferentziala, giza kapitalaren maila konparatua, eskolatze urteen bidezko gutxi gorabeherakoa, eskualde bidaltzaileko 15 eta 29 urte arteko biztanleen portzentajea, desberdintasun maila konparatua (ordainsaria abildadeetara gerturatzen duena), herrialde bidaltzaileko pobrezia maila, hizkuntza komunitatea egotea, xede merkatuari dagokionez dagoen distantzia eta eskualdeko bertako beste aldagai *dummy* batzuk. Aldagai guztiek dute espero den maila, baita pobrezia mailari dagokionak ere, zeina negatiboki lotuta azaltzen baita emigrazio tasari, eta, beraz, emigraziorako errenta atalase bat dagoela egiaztatzen da[9].

Faktoreotako asko egiaztatzen dira, era berean, nazioarteko migrazio ereduak azaltzen saiatzerakoan, immigrazio tasa garbiaren bidez neurtuta (Hatton eta Williamson, 2003). Datuak ez dira hain fidagarriak, baina berriz ere agertzen dira, azalpenerako aldagai garrantzitsuen bezala, jatorriko herrialdeko biztanle gazteen portzentajea, harrera herrialdeko etorkinen stocka, hezkuntza mailen arabera egokitutako errenten diferentziala (munduko batez bestekoari dagokionez eta eskualdeko batez bestekoari) eta herrialde bidaltzailearen pobrezia mailak. Espero zitekeen bezala, eskualdeko *per capita* errenta maila zenbat eta txikiagoa izan orduan eta esanguratsuagoa da pobreziaren eragina, eta horrek atalase legez jarduten duela erakusten digu.

3. Bidalketen papera

Emigrazioen eta garapenaren arteko harremana aztertzeko ezinbestekoa da migrazio erabakian eragina duten faktoreak ez ezik, emigrazioaren ondorioak ere kontuan hartzea, bidaltzailearen garapen aukeretan eragina duten neurrian. Horri dagokionez, bidalketen transferentzia kontuan hartu beharreko faktoreetako bat legez agertzen da.

3.1. Fenomenoaren neurria

Aurreko orrialdeetan adierazi den bezala, migrazio korronteei esker herrialde bidaltzaileak dituen onuretako bat emigranteek familiei bidaltzen dizkieten aurrezkiak dira, emigranteen bidalketa legez. Munduko Bankuak emandako kopuruen arabera (2006), emigranteen bidalketak 230 mila milioi dolar baino zerbait handiagoak dira. Horietatik 167 mila milioi garapen bideko herrialdeetara doaz, eta 65 mila milioi, berriz, herrialde garatuetara. Banaketa horrek esan nahi du, bidalketak garapen bidean dagoen munduko kontu hutsak ez diren arren, esparru horretan duela garrantzirik handiena (3. koadroa).

[9] Horrela, herrialdean errenta areagotzeak kontrako esangurako efektu bikoitz bat du: negatiboa, *per capita* errentaren diferentzia murrizten duelako, eta positiboa, igortzailearen pobrezia maila murrizten duelako.

3. koadroa: Bidalketen bilakaera								
	1990	1995	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Garapen bideko herrialdeak	**31,2**	**57,8**	**85,6**	**96,5**	**113,4**	**142,1**	**160,4**	**166,9**
Eskualdeak								
Latinoamerika	5,8	13,4	20,1	24,4	28,1	34,8	40,7	42,4
Hegoaldeko Asia	5,6	10	17,2	19,2	24,2	31,1	31,4	32,0
Ekialdeko Asia	3,3	9,7	16,7	20,1	27,2	35,8	40,9	43,1
Afrika Iparraldea eta Ekialde Hurbila	11,4	13,4	13,2	15,1	15,6	18,6	20,3	21,3
Europa eta Erdialdeko Asia	3,2	8,1	13,4	13	13,3	15,1	19,4	19,9
Saharaz behereko Afrika	1,9	3,2	4,9	4,7	5,2	6,8	7,7	8,1
Diru-sarrera mailak								
Sarrera txikia	8,1	13,3	22,8	26,8	33,1	41,8	43,9	45,0
Sarrera ertain txikia	13,9	30	42,6	47,4	57,3	72,5	83,5	88,0
Sarrera ertain handia	9,1	14,5	20	22,3	23	27,8	33,0	33,8
Mundua	**68,6**	**101,6**	**131,5**	**147,1**	**166,2**	**200,2**	**225,8**	**232,3**

Iturria. Munduko Bankua (2006).

Jarraitu aurretik, esan behar da ez dela erraza bidalketen neurriari buruzko ideia zehatz bat egitea: kontularitzako erregistro irizpide desegokiak eta ezkutatze-mailak izugarri zailtzen dute zeregina. Arazoetako lehenengoari dagokionez, Kontu Nazionaletan immigrantearen definizioa bera ere ez dago argi zein den. Izan ere, ordainketa-balantzen erregistroetan elkarloturiko hiru kontzeptu ager daitezke: langileen bidalketak (*worker remittances*), langileen konpentsazioak (*compensation of employees*) eta, desagregazio maila handiago batean, migratzaileen transferentziak (*migrant transfers*). Osagaiok zehaztasunez definitzea, ezkutatzeak eragotzita eta oharren jatorria identifikatuta, oso zaila da (Bilsborrow, Graeme, Oberai eta Zlotnik, 1997). Are gehiago, De Lunak (2005) dioen bezala, herrialdeen artean ere desberdintasun nabarmenak daude erregistro eta kontabilizazio sistemetan: NMF lanean ari da arlo honetan.

Erregistro egokiaren zailtasunari gehitu behar zaio transferentzia bideen parte handi batek kontrol estatistikoari aurkezten dion opakotasuna. Kasu askotan, emigranteen aurrezkiak aktibo ez monetarioetan bidaltzen dira (kontsumo ondasunak edo etxeko ekipamendurakoak, esate baterako) edo transferentzia bide informalak erabiltzen dira (ezagunen edo familiakoen bidaiak), eta kontrolerako aukera ekiditen dute (Latinoamerikako bidaltzaileak, Asiako *hawala*-k edo Txinako *fei ch´ien*-ak). Horrela, beraz, emigranteek bidalitako aurrezkietako parte bat baino ez da sartzen erregistro estatistikoan, eta horiek agertzen dira herrialde hartzaileetako ordainketa balantzetan. Balioespen kontserbadore batzuek ezkutuko bidalketak, gutxienez, erregistratutakoen heren bat direla diote[10], baina Munduko Bankuaren oraintsuko ikerketa batek (2006) ratio hori %50era arte jasotzen du. Ondorioz, balioespen zuhur bat eginez gero, esan daiteke, garapen bideko herrialdeek jasotzen dituzten bidalketa errealak

[10] Puri eta Ritzema (1999) egileek erregistratu gabeko bidalketen neurriari buruzko kalkulu bat egin zuten 11 herrialdetan. Lortutako marjinak oso zabalak dira, benetan dokumentatuaren %8 eta %85 artekoak. Ikertutako laginerako batez bestekoa %36an ezarri zuten egileek, erregistratutako bidalketei dagokienez.

220 eta 250 mila milioi dolar artekoak direla. Kopuru horrek erraz bikoizten du AODren urteko kopurua (106 mila milioi dolar), eta %30 eta %50 arteko ratio batean gainditzen du garapen bideko herrialdeek jasotzen duten atzerriko inbertsio zuzena (166 mila milioi dolar).

Perspektibaz begiratuta, harrigarria da emigranteen bidalketek azkeneko urteetan izan duten hazkunde azkarra. Hain zuzen ere, garapen bidean dauden herrialdeetarako bideratutako eta ofizialki erregistratutako bidalketak, 1990ean, 31 mila milioi dolarrekoak izatetik, 2005ean, 167 mila milioi estimatukoak izatera pasatu ziren. Progresio hori, batez ere, azkeneko hamarkadan nabarmendu zen, izan ere, ia hiru bider handitu zen erregistratutako bidalketen bolumena (57 mila milioi dolarretik 167 mila milioi dolarrera) (3. koadroa). Eragin estatistiko baten presentzia kontuan hartu behar den arren (transakzio horien erregistro onenaren emaitza), kopuruek erakusten dute nazioarteko sisteman gero eta garrantzi handiagoa duela fenomeno horrek. Izan ere, garapen bideko herrialdeek jasotako finantza-jarioetako bakar batek ere ez zuen epe horretan antzeko zabalkunderik izan (bidalketen urteko tasa %12 hasi zen, inbertsio zuzena %5 eta laguntza, azkenik, %3) (5. grafikoa).

5. grafikoa: 1995-2004ko jarioen hazkundea % agregatuko tasa



Iturria: Munduko Bankua (2006)

Bidalketen bilakaerak garapenari dagokionez esanguratsuak diren beste bi ezaugarri aurkezten ditu. Bata baliabideen eskualdeko banaketari dagokio, eta bestea denboran duten bilakaerari.

Lehenengoari dagokionez, bidalketen banaketak, ñabardura txiki batzuekin, eskualdeek emigrante igortzaile legez izan duten garrantziari erantzuten dio. Ez da mira egitekoa zama demografiko handiko eskualdeek, hala nola, Asiakoek, baliabideen %44 kontzentratzea (Hegoaldeko Asiak %19 eta Ekialdeko Asiak %25). Garrantziaren arabera hurrengoa Latinoamerika da, %25ekin, eta hurrengoak Iparraldeko Afrika eta Ekialde Ertaina %13rekin eta Ekialdeko Europa %12rekin. Zerrenda Saharaz behereko Afrikak ixten du, %4,8rekin. Dena dela, komeni da adieraztea bidalketak ez daudela beste jario ekonomiko pribatu batzuk bezain kontzentratuta. Esate baterako, inbertsio zuzena jasotzen duten garapen bideko herrialdeetan lehenengo hamarrek baliabideen %70 dituzte, eta bidalketen kasuan, berriz, kuota hori %59koa da.

Baliabideen banaketak, herrialdeen errenta mailaren arabera, beste informazio interesgarri bat eskaintzen du: aipatu dugun bezala, ez dira herrialderik pobreenak baliabide gehien jasotzen dituztenak. Zehatz-mehatz, bidalketen erdien baino gehiagoren (%52k) helburua errenta ertain txikiko herrialdeen multzoa da; errenta ertain handiko herrialdeek baliabideen %20 jasotzen dute; eta, azkenik, herrialde pobreek bidalketen %27 jasotzen dituzte. Hala eta guztiz ere, eskualdeko banaketaren kasuan legez, emaitza hori agregatu guztien biztanleria zamaren mende dago erabat (eta migrazio potentzialaren mende). Garrantzitsua da, beraz, baliabideok herrialdeko beste neurri erlatibo batzuekin batera jartzea (4. koadroa).

4. koadroa: Bidalketen garrantzi erlatiboa (2003)

	BPGren gaineko %			Bidalketak ondorengoen portzentaje bezala			
	Bidalketak	Atzerriko inbertsioa	Laguntza ofiziala	Atzerriko inbertsioa	Laguntza ofiziala	Inportaz.	FBC
Mundua	0,65	2,49	0,22	26,4	289,9	2,49	2,9
Garapen bideko herrialdeak	1,61	2,31	0,63	70,0	254,2	5,38	5,8
Errenta txikiko herrialdeak	3,79	0,97	1,78	388,1	212,2	18,2	16,4
Errenta ertain txikiko herrialdeak	1,13	2,70	0,50	42,0	225,1	3,7	3,6
Errenta ertain handiko herrialdeak	1,54	2,05	0,23	75,2	671,6	4,4	7,6

Iturria: WDI, Munduko Bankua.

Halatan, herrialderik pobreenetan bidalketek BPGren gainean duten eragina dirusarrera ertaineko herrialdeetan dutenaren bikoitza da ia. Izan ere, herrialderik pobreenetan bidalketak dira nazioarteko finantziazio iturri nagusia, eta jasotzen duten laguntzak edo atzerriko inbertsio zuzenak BPGren gainean duten pisua baino askoz ere handiagoa dute. Hori, aitzitik, ez da gertatzen errenta ertaineko herrialdeetan, inbertsio zuzenak bidalketen pisu erlatiboa gainditzen duelako.

Arazo bera ikusteko beste modu bat bidalketak beste aldagai makroekonomiko garrantzitsu batzuekin erlazionatzea da. Horrela, errenta txikiko herrialdeetan dute bidalketek atzerriko inbertsioak, herrialdeko bertako ekoizpen inbertsioak (kapitalaren sorrera gordina) edo inportazio fakturak baino kuota handiagoa. Eta horrek erakusten du herrialderik txiroenetan bidalketek zer-nolako garrantzia duten nazioarteko finantziazio legez.

Bidalketen bigarren ezaugarri garrantzitsua da denboran zehar izan duten egonkortasun onargarria. Adibidez, 1990az geroztiko aldagaiak kontuan hartuta, bidalketen aldakuntza-koefizientea (0,23) nazioarteko laguntzarena (0,09), baina inbertsio zuzeneko isuriena (0,46) zein beste isuri pribatubatzuena (0,43) baino askoz txikiagoa da. Bidalketen egonkortasun handiagoari esker merkatu pribatuetatik datorren finantziazio iturria baino hobeto aurreikus daiteke. Are gehiago, batzuetan bidalketek nolabaiteko izaera antizikliko bat ere izan dezakete, eta laguntza familiarrak ugaritu

egiten dira jatorriko herrialdeak zailtasun handiagoak dituenean: Kapurrek eta McHalek (2005) egiaztatu dute gertakari hori hamalau herrialderi buruzko datupanel baten bidez. Kasuen azterketak berretsi egiten du irizpide hori, besteak beste 1997ko finantza krisiaren ostean Filipinetan gertatutako (Yang, 2004) edo Jamaikan gertatutako natur hondamendi baten ostean (Clarke eta Wallsten, 2004).

Finean, kapitalaren merkatu pribatuetatik datorren finantziazioari dagokionez, bidalketen ezaugarria egonkortasun handiagoa eta banaketa orekatuagoa dira; eta finantziazio ofizialari dagokionez –garapenerako laguntza eta beste iturri ofizial batzuk–, bidalketek zenbateko handiagoa ez ezik, dinamismo handiagoa ere badute.

3.2. Bidalketen eraginak

Bidalketak jasotzen dituzten gizarteetan diru horrek dituen eraginak ugariak dira, eta guztiek ez dute helburu berbera. Ondorioz, irakurketak beti ez datoz bat. Alde batetik, batzuek diote bidalketek aukera handiak ematen dituztela jasotzen dituzten herrialdeetan garapena sustatzeko faktore gisa. Nazioarteko dibisetako baliabide gisa, hazteko kanpotik dituzten murrizpenak arintzeko bide bat dira bidalketak garapen bideko herrialdeentzat, inportazioak finantzatzen laguntzen dutelako eta ordainketa-balantza orekatzen dutelako; eta transferitutako aurrezki gisa, etxeko aurrezki txikia osatzen dute, inbertsio ahalegina, apur bat baino ez bada ere, areagotzeko. Horrez gain, herrialde batzuetan (hala nola Brasil, El Salvador zein Mexiko) bidalketei beste funtzio bat ere eman nahi izan zaie, hau da, kapitalaren merkatuetan sartu ahal izateko berme gisa erabili izan dira eta, horrela, nazioarteko finantziazioa handitzeko laguntza izan dira (Ketkar eta Ratha, 2001).

Jakina, bidalketak jaso eta jasotzeak eragin makroekonomiko maltzurrak ere izan ditzake, besteak beste, benetako kanbio-tasa efektiboaren balio-irabaztea, eta horrek dagokion ekonomiaren lehiakortasunaren galera dakar. Eragin horren komunikazio bidea "Herbehereetako gaixotasunaren" berezko eragina da, nazioarteko dibisen gehiegizko sarrerarengatik. Egia esan, era honetako eragina bidalketen erabat mende dauden ekonomietan (txikietan) baino ez dirudi onargarria. Osterantzean, bidalketen zabalkunde gradualeko joera mantsoak berak eragiten du eragin maltzur hori kolpetik gainbaliotutako nazioarteko beste baliabide batzuek eragiten dutena baino txikiagoa izatea. Rajanek eta Subramanianek (2005) ere, ez dute bidalketei egotz dakiokeen lehiakortasun galeraren sintomarik aurkitu: hala ere, ez da komenigarria diruiturri horren oso mendean dauden herrialdeetan (Haiti, Jordania, Jamaika, Cabo Verde edo El Salvador) eragin hori izan dezakeenik baztertzea.

Beste ikuspegi batetik, ikuspegi mikroekonomikoagoa bera, positibotzat jotzen da bidalketek zuzen-zuzenean konektatzea baliabideen hornitzailea hartzailearekin, zuzen-zuzenean eta baldintza gabe ia. Laguntzatik oso argi desberdintzen dira, izan ere, laguntzek, eskuarki, bitartekaritza prozesu bat jasan behar izaten dute, bai ematen dituen herrialdeko instituzio publikoen bitartekaritza, bai herrialde hartzailekoena. Ikuspegi horretatik, bidalketek laguntza pribatu gisa jarduten dute, eta baliabideen azken hartzaileei zuzenduta daude batez ere.

Aldeko argudio horien aurrean, beste batzuek diote bidalketek gaitasun mugatua dutela, emigrazioaren jatorriko komunitateetan garapen prozesu eragingarri bat finantzatzeko gaitasun mugatua, alegia. Arrazoi bi erabiltzen dira, batez ere, hori azaltzeko. Lehenik eta behin, esaten da, migrazio esperientzia luzatu ahala, bidalke-

ten garrantzia gero eta txikiagoa izaten dela. Lehenengo eta behin, herrialde jakin bati dagokionez migrazio ekintzak berak iraungitze data duelako, hau da, epe ertainera eta luzera gutxitu egiten dela (dela bidaltzailearen galera demografikoagatik, dela elikatzen duten errenta desberdintasunen zuzenketarengatik). Baina, horrez gain, emigranteak kanpoko egonaldia luzatu ahala, jatorriko familia inguruneareKiko harremanak ahuldu egiten dira, eta xede lekuan famili berria sortzen du (edo berriz batzen da familia bertan). Ondorioz, bidalketek ere behera egiten dute. Bidalketak, beraz, aldi baterako baliabidea dira, oso garrantzitsuak migrazioaren goraldi sasoietan, baina, epe ertain edo luzean garrantzi ekonomikoa galtzen dute.

Bigarrenik, baliabideei ematen zaien erabilera aipatzen da, izan ere, beti ez daude inbertsio helburuekin lotuta. Sarritan, bidalketak ohiko kontsumoak asetzeko erabiltzen dira, edo etxeko ekipamendurako, etxeko ondarea handitzeko (etxea hobetzeko edo lurrak erosteko) edo negozio bat ezartzeko, emigranteak, itzultzean, erretiroa bermatuta izan dezan. Jatorriko komunitateetan ekoizpen gaitasunak bultzatzera (errenta eta enplegua sortzeko) bideratutako bidalketen proportzioa, ordea, mugatua izaten da. Horrez gainera, kasu askotan, bidalketak jasotzeak, inbertsio ekimena sustatu beharrean edo onuradunen ekintzaile gaitasuna suspertu beharrean, errentadun bihurtzen ditu, eta hori ez da batere egokia garapenerako.

Migratzaileen familiei egindako inkestek badirudi iritzi hori berresten dutela. BIDek (FOMIN, 2004) Latinoamerikako herrialde batzuetan egindako inkesta baten arabera, kontsumo gastuetara bideratutako bidalketen proportzioa %61ekoa da Ekuadorren, %77koa Ertamerikan eta %78koa Mexikon. Oinarrizko kontsumoen pisuaren aurrean, oinarrizkoak ez diren kontsumoen pisua %3 eta %17 artekoa da, hezkuntzari dagokiona %2 eta %7 artekoa, aurrezteko bideratua %6 eta %8 artekoa, eta, azkenik, ekoizpen inbertsioetara bideratutakoa %6 eta %8 artekoa. Eskainitako perdoiek portaeren ugaritasuna erakusten dute, eta portaera horiek ondorengoek baldintzatzen dituzte: emigrazioaren ezaugarriek, familiaren inguruabarrek eta inguruko baldintza ekonomikoek. Hala ere, baldintza horiek guztiak bateratuz gero, bidalketa horiei apenas ematen zaien ekoizpen erabileraren bat.

Irudi hori, alabaina, ez da berresten Egiptori (Adams, 1991), Pakistani (Adams, 1998), Guatemalari (Adams, 2005) eta Filipinei (Young, 2004) buruzko ikerketa estatistiko eta ekonometrikoetan: kasu horietan guztietan bidalketen kontsumorako erabilera txikiagoa da, eta handiagoa, berriz, inbertsio gastuekin duten zerikusia. Desadostasun horren parte baten arrazoia izan liteke inkestetan kontsumorako batez besteko joera jakin nahi dela, eta ikerketa ekonometrikoetan, ostera, joera marjinala balioetsi nahi dela. Azkeneko hori da garrantzitsuena familien portaera ekonomikoan bidalketek duten inpaktua zein den jakiteko.

Bidalketei ematen zaien erabilera gorabehera (kontsumoa edo inbertsioa), hartzailearen BPGan, nahitaez, eragin positiboa izango duela itxaroten da (Faini, 2000). Halatan, adibidez, Adelmanen eta Taylorren (1990) balioespenen arabera, bidalketek Mexikoko ekonomian duten eragin biderkatzailea 2,69 eta 3,17 dolar artekoa da jasotako dolar bakoitzeko, hurrenez hurren, hiri-inguruneak edo landa-inguruneak hartzen baditugu kontuan[11]. Ondorio horixe bera atera zuten Dessaik, Kapurrek eta McHalek (2001) Indiari buruzko ikerketa batean. Haiek balioetsitako eragin biderka-

[11] Hiri-inguruneetan kontsumoak ondasun inportatuen osagai handiagoa dauka landa-eremuetan baino.

tzailea 1,5 eta 2 artekoa da jasotako dolar bakoitzeko. Hazkundearengan eragin hori lortzeko bideak ugariak izan daitezke, baina, horietako parte handi bat familiako aktiboen metaketarekin (Stark eta Lucas, 1988) eta jasotzaileen finantza murrizketak lasaitzearekin lotuta daude. Emaitza positibo horiek gorabehera, ikerketa handiagoa behar lukeen alor bat da: halaxe erakusten dute NMFk (2005) bidalketak *per capita* BPGren hazkundearekin, hezkuntzako gastuekin eta inbertsioaren hazkundearekin lotzen saiatzeko egindako ikerketan lortutako emaitza ahulek.

Badago beste alderdi osagarri bat ere, alegia, bidalketek ekonomia jasotzaileetako pobrezia eta desberdintasun mailetan duten eragina. Bidalketak jasotzen dituzten familien diru-sarrerak handitzen dituzten neurrian, itxarotekoa da bidalketek pobrezia maila murrizteko eragin garbia izatea. Alderdi hori aztertzeko, Munduko Bankuak (2006) eredu bakun bat egin zuen, hau da, bidalketak hazkundera gehitu zituzten eta pobreziarengan zuen eragina aztertu zuten. Emaitzen arabera, pobreen proportzioa murrizten dela erakusten dute, hots, %5 eta %12 artean dira, bidalketen neurri erlatiboaren arabera; horrez gain, inpaktua handiagoa da (%70 inguru gehiagokoa) herrialdearen pobrezia maila handiagoa bada. Emaitza hori ahuldu egiten dute hala ereduaren eraikuntza teorikoak (ez da kontuan hartzen, esaterako, emigrazioaren ondoriozko errenta potentzialaren galera) nola balioespen metodoak (ez baitu kontuan hartzen pobreziaren eta emigrazioaren arteko endogenotasuna). Dena dela, emaitza horiek bat datoz NMFk (2005) 101 herrialdeko lagin zabal batean izandakoekin eta Adamsek eta Pagek (2005) lortutakoekin. Hain zuzen ere, azkeneko egile horiek berresten dute bidalketak %10 haziz gero herrialdeen pobrezia tasa %3,5 murrizten dela. Kasu-azterketek ere egiaztatzen dute harreman hori, nahiz eta azpimarratzen duten bidalketen eragin nagusia dela pobreziaren sakontasuna (*poverty gap*), pobrezia iragankorraren (eta ez kronikoaren) maila eta erasandakoen urrakortasuna murrizten dutela, eta horien kontsumo gaitasuna egonkortzen dute eta arriskuari aurre egiteko gaitasuna hobetzen dute.

Ez da hain argia, aitzitik, bidalketek herrialde hartzaileko desberdintasun mailetan duten eragina. Ikerketa batzuek iradokitzen dute bidalketek eragin orekatzailea dutela: horixe da, esate baterako, Adelmanek eta Taylorrek (1990) Mexikori buruz egindako ikerketaren kasua, edo Dek eta Rathak (2005) Sri Lankari buruz egindakoaren kasua. Beste batzuek, ordea, aurretiaz dauden desberdintasun mailak bere horretan jarraitzen dutela (edo hazi egiten direla) diote: horixe dio Adamsek (1998 eta 2005), hurrenez hurren, Pakistaneko eta Ghanako kasuak aztertu ostean, izan ere, *per capita* bidalketak hazi egiten direla dio diru-sarrera maila handiagoko familiak hartuz gero kontuan, eta, horrela, indarreko desberdintasun mailak berrindartu egiten direla.

Alderdi ekonomikook baino harago, badaude kontuan hartu behar liratekeen beste osagarri bi ere. Lehenengoa baliabide mobilizatuei eta horien kanalizazio bideei buruzkoa da, zeintzuek erantzun kolektiboen (edo publikoen) gaineko konfidantza murritz dezaketen pobreziaren aurrean. Esan liteke diru-bidalketak jasotzea *irtenbide indibidualeko* aukeraren aldeko estimulua dela, eta ez *ahots kolektiboaren* balizko baliabidearena. Egia da bidalketak garapenerako laguntzak baino finantziazio zuzenagoa direla (eta ez hain baldintzatuak), baina, garapenerako laguntzak nagusiki erakunde publikoen bidez bideratzen direnez, ezinbestean onuradunen eta administrazioaren arteko harreman bat sortzen dela ere egia da, eta, horrek, hiritartasun kontzeptua sendotzea eragiten du, botere publikoen aurrean eskubideak eskatzearekin lotutako kontzeptua.

Bigarren alderdia da emigrazioaren etekinak, gizarte igortzailearentzat, ez direla amaitzen diru-bidalketen transferentziarekin: emigranteek balio, ohitura, jarrera eta gizarte harremanetarako eredu berriak ere eramaten dituzte, eta jatorriko komunitateei transmititzen dizkiete etenik gabeko komunikazioetan, bisitetan eta balizko itzuleretan. *Bidalketa ukiezinak* legez izenda ditzakegunak dira, hau da, balioak, gizarte ikuspegiak, jarrera aldaketak, etab. Beharbada, aldaketa horiek guztiak ez dira herrialde bidaltzaileko garapen beharrizanetarako funtzionalak, baina, horietako batzuk, ziurrenik, izan daitezke, eta, beraz, emigrazioaren faktore positibo osagarri bat ere badira.

4. Burmuinen ihesa eta giza kapitalaren galera

4.1. Fenomenoaren neurria

Onura ekonomikoez gain, emigrazioak kostuak ere eragin diezazkioke herrialde bidaltzaileari, neurri handi batean, erasandako biztanleria segmentuak izaten dituen ezaugarri jakinei lotutako kostuak. Emigrazioaren azalpen neoklasikoaren oinarria den lanerako indarraren homogeneotasuna ez dator guztiz bat fenomenoaren errealitatearekin. Auto-aukeraketa argia dago emigratzeko erabakian, eta horrek jatorriko biztanleriarekiko bereizgarri garbiak ematen dizkio kolektiboari: batez bestekoarekin konparatutako terminoetan, biztanle gazteagoak izaten dira, ekimenerako gaitasun eta autokonfiantza handiagokoak eta arriskuak hartzeko joera handiagokoak. Emigrazioaren bidez, beraz, gizarte bidaltzaileak biztanleriako segmentu oso baliotsua galtzen du.

Baina, faktore psiko-sozial horiek gorabehera, badago ikuspuntu sozialetik eta ekonomikotik berebiziko garrantzia duen beste ezaugarri bat ere: sarritan pentsatzen denaren guztiz kontra, emigrazio korrontea elikatzen duten pertsonen prestakuntza maila, sarri askotan, jatorriko herrialdeko batez bestekoa baino handiagoa izaten da. Beste era batera esanda, emigrazioaren bidez, herrialdeak daukan giza kapital mugatuaren parte garrantzitsu bat galtzen du, xede herrialdeetako lan merkatuetara joaten direlako. Prozesu horrek prestakuntza handieneko gizarte mailei eragiten dienean eta intentsitate jakin bat hartzen duenean "burmuinen ihesa" dela esaten da[12]: eta fenomeno hori kontuan hartzea komeni da, bai kuantitatiboki, bai dituen ondorioei dagokienez.

Beste esparru batzuetan bezala, zaila da fenomeno honen neurrien iritzi zehatz bat izatea. Herrialde igortzaileek eta herrialde jasotzaileek ez dute behar den bezala jasotzen migrazio korronteak elikatzen dituzten pertsonen prestakuntza maila. Beharbada Estatu Batuak izango dira horri buruzko estatistika onenak dituena. Estatu Batuetako 1990eko errolda erabilita, Carringtonek eta Detragiachek (1998) immigranteen hezkuntza mailaren kalkulua egin zuten. Ikerketa hartako datuek Estatu Batuetara zihoazen emigranteen prestakuntza maila handia nabarmendu zuten: Ertamerikatik zihoazenak salbu (Mexiko barne), gainerakoen artean goi-mailako ikasketak zituztenak erdiak edo gehiago ziren. Informazio horretatik ondorioztatzen den panorama orokorra zen immigranteen prestakuntza maila jatorriko herrialdeetako batez bestekoa baino handiagoa zela.

[12] "Burmuinen ihesa" dagoela esan ohi da emigrazioak herrialde bidaltzailean hirugarren hezkuntzako ikasketak dituztenen %10i baino gehiagori eragiten dienean.

5. koadroa: Estatu Batuetako immigranteen prestakuntza maila				
Eskualdeak	Guztira	%		
		Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza	Hirugarren hezkuntza
Asia eta Ozeano Barea	2.376.277	4,0	34,4	61,5
Afrika	127.853	1,6	2,8	74,4
Ertamerika	3.761.084	11,6	71,1	17,2
Hego Amerika	616.004	2,6	51,1	46,2

Iturria: Carrington eta Detragiache (1998).

Oraintsuago, Adamsek (2003) emigranteen prestakuntza mailen kalkulu zorrotza egin zuen. Horretarako, Estatu Batuetara emigranterik gehien bidaltzen dituzten 24 herrialdeetako lagin bat hartu zuen, ikuspegi selektiboago horren bidez, aldagaiaren erregistro zailtasunak gainditzeko asmoarekin[13]. Adamsek (2003) Estatu Batuetako 2000ko biztanle-errolda hartu zuen oinarritzat, eta arreta 25 urtetik gorako eta AEBetatik kanpora jaiotako bizilagunengan ezarri zuen, immigranteen prestakuntza maila zein den jakiteko, hain zuzen ere. Datu horiek Barrok eta Leek (2000) immigranteen jatorri herrialdeetako hezkuntza mailei buruz egindako kalkuluekin alderatu zituen: horrela, jatorriko herrialdean prestatutako migratzaileen kuota zein zen kalkulatu zuen. Bada, emaitzek berretsi egin zituzten Carringtonek eta Detragiachek (1998) lortutako inpresioak: Estatu Batuetan dauden etorkinen %67k bigarren hezkuntzako edo goragoko ikasketak dituzte; eta, laginetik Mexikoko datuak kenduz gero (hau da, erregistratutako emigranteen erdiak inguru), erdi- edo goi-mailako ikasketak dituztenen kuota %83koa izango litzateke (6. Koadroa). Kuota nabarmenak dira beraz. Dena dela, emigranteen prestakuntza mailak asko aldatzen dira kontuan hartzen diren herrialdeen arabera. Horrela, adibidez, hirugarren hezkuntzako ikasketak dituztenen kuota %14 (Mexiko) eta %80 (India) artekoa da.

"Burmuinen ihesa" kalkulatzeko ezinbestekoa da emigrazioak goi-mailako prestakuntza dutenen artean zenbaterainoko galera eragiten duen jakitea. Bada, tasarik nabarmenenak herrialdeotan daude: Jamaika, El Salvador, Guatemala, Dominikar Errepublika eta Mexiko. Horietako emigranteen artean, hirugarren hezkuntzako ikasketak dituzten emigranteak herrialdean bertan geratzen direnen %10 baino gehiago dira (6. koadroa). Hala eta guztiz ere, hori ez da fenomeno orokor bat: kontuan hartutako 20 herrialdeetatik 14tan atalasea ez da "burmuinen ihesa" gertatzen dela esateko gutxieneko mailara heltzen.

[13] 2000. urtean 500 milioi dolar baino gehiagoko bidalketak izan zituzten herrialde guztiak aukeratu ziren. Herrialde hauek aukeratu ziren: Albania, Armenia, Bangladesh, Brasil, Txinako Herri Errepublika, Kolonbia, Kroazia, Dominikar E., Guatemala, Egipto, El Salvador, India, Indonesia, Jamaika, Mexiko, Maroko, Nigeria, Pakistan, Peru, Filipinak, Sri Lanka, Sudan, Tunisia eta Turkia.

6 koadroa: Estatu Batuetako immigranteen prestakuntza mailak						
	25 urtetik gorakoak	Emigranteekiko %			Jatorriko biztanleriarekiko %	
		Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza	Hirugarren hezkuntza	Lehen hezkuntza	Hirugarren
Txina	846.780	20,5	25,6	53,8	0,2	2,2
Indonesia	53.170	2,7	22,7	74,5	0,1	0,7
Filipinak	1.163.555	7,7	19,6	72,5	2,2	11,7
Albania	25.785	13,7	48,0	38,2	nd	Nd
Armenia	44.380	8,5	40,5	50,9	nd	Nd
kroacia	35.455	18,9	40,4	40,5	1,2	4,7
Turkia	64.780	13,7	27,9	58,3	0,4	1,3
Brasil	154.250	9,0	36,3	54,6	0,5	1,1
Kolonbia	402.935	13,2	40,5	46,1	4,0	9,9
Dominikar E.	527.520	29,5	42,9	27,6	42,4	24,8
El Salvador	619.185	41,2	41,5	17,2	114,8	39,5
Guatemala	341.590	42,9	37,4	19,6	29,9	25,8
Jamaika	449.795	8,1	46,6	45,2	40,9	367,6
Mexiko	6.374.825	48,3	37,6	14,0	17,2	16,5
Perú	220.815	7,6	39,4	52,8	2,5	4,2
Egipto	96.660	3,6	18,6	77,7	0,2	2,3
Maroko	29.670	5,4	29,9	64,5	nd	Nd
Tunisia	5.555	7,0	29,2	63,7	0,2	1,3
Bangladesh	69.180	8,6	29,0	62,2	0,3	2,3
India	836.780	4,9	15,2	79,8	0,2	2,8
Paquistan	165.425	7,0	26,2	66,7	0,5	6,4
Sri Lanka	21.820	2,2	26,1	71,6	0,1	5,6
Nigeria	109.160	2,4	14,5	83,0	nd	Nd
Sudan	12.730	7,5	29,1	63,2	0,3	3,4
GUZTIRA	12.671.800	32,4	33,8	33,6		

Iturria: Adams (2003).

ELGAren kasuan, Adamsek (2003) Errolda mailarik ez duen iturri batetik lortu ditu datuak (*Trends in Internacional Migration: Annual Report*, 2001), eta, beraz, informazioa ez da osoa. Horrez gain, iturri horrek ez du immigranteen prestakuntza mailaren berririk ematen. Hala eta guztiz ere, Adamsek (2003) egiten duen balizkoa da ELGAra bideratutako emigranteen hezkuntza mailen banaketa Estatu Batuetara bideratutakoaren antzekoa izango dela (eta hori zalantzagarria da). Horrela, muga horiekin, bigarren edo hirugarren hezkuntza gainditzen dutenen proportzioa erregistratutako immigrante guztien %88koa da (7. Koadroa). Hirugarren hezkuntzako ikasketak dituztenen proportziorik handiena herrialdeotako emigranteena da: India, Egipto, Indonesia, Filipinak eta Sri Lanka. "Burmuinen ihesaren" neurketari dagokionez, 5ek baino ez dute gainditzen dagokion ratioa, hauek: Jamaika, Maroko, Tunisia, Turkia eta Sri Lanka.

7. koadroa: ELGAra doazen immigranteen prestakuntza mailak						
	Immigranteak	Emigranteekiko %			Jatorriko biztanleriarekiko %	
		Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza	Hirugarren hezkuntza	Lehen hezkuntza	Hirugarren hezkuntza
Txina	722.400	20,5	25,6	53,8	0.1	1.9
Indonesia	142.540	2,7	22,7	74,5	0.2	2.0
Filipinak	356.134	7,7	19,6	72,5	0.7	3.6
Turkia	1.913.782	13,7	27,9	58,3	11.5	39.1
Brasil	176.519	9,0	36,3	54,6	0.6	1.3
Jamaika	117.199	8,1	46,6	45,2	10.6	95.8
Maroko	560.658	5,4	29,9	64,5	6.9	43.5
Tunisia	142.828	7,0	29,2	63,7	5.2	33.3
Egipto	20.373	3,6	18,6	77,7	0.1	0.5
Bangladesh	44.417	8,6	29,0	62,2	0.2	1.5
India	375.283	4,9	15,2	79,8	0.1	1.3
Pakistan	85.668	7,0	26,2	66,7	0.3	3.3
Sri Lanka	64.143	2,2	26,1	71,6	0.4	16.5
GUZTIRA	4.721.944	11,4	26,7	61,8		

Iturria: Adams (2003).

Orain dela gutxi, Docquierren eta Marfouken (2004) lan batean, kalkulu berri bat aurkezten da, eta, bertan, aurreko zifra batzuk zuzentzeaz gainera, unibertsitateko biztanleria tasak, emigrazioaren ondorioz, izan duen galeraren bilakaera egiazta genezake. Informazio horrek egiaztatzen duenez, fenomenorik larrienak Jamaikakoa, El Salvadorrekoa, Guatemalakoa, Dominikar Errepublikakoa eta Mexikokoa dira. Herrialde guztietan izan da, gainera, giza kapitalaren galera dakarren tasaren gorakada bat.

8. koadroa: Goi-mailako ikasketak dituzten migratzaileen bilakaera AEBetan.				
	AEBetan bizi den biztanleria		Unibertsitateko biztanleria tasa jatorriko biztanleriari dagokionez	
	1990	2000	1990	2000
Mexiko	2.743.638	6.374.825	10,3	14,2
FilipinaK	728.454	1.163.555	6,6	10,5
India	304.030	836.780	1,1	2,7
TXina	404.579	846.780	1,4	2,2
El Salvador	263.625	619.185	26,1	28,3
Dominikar E.	187.871	527.520	14,2	19,9
JamaiKa	159.913	449.795	67,5	78,6
Kolonbia	162.739	402.935	5,6	9,0
Guatemala	127.346	341.590	13,5	20,5
Peru	86.323	220.815	3,0	4,0
Pakistan	52.717	165.425	2,4	6,0
Brasil	53.904	154.250	0,6	1,1
Egipto	53.261	96.660	2,5	2,2
Bangladesh	12.385	69.180	0,6	2,2
Turkia	43.605	64.780	1,5	1,3
Indonesia	32.172	53.170	1,4	0,7
Sri Lanka	8.715	21.820	3,8	5,3
Sudan	2.496	12.730	1,8	3,3
Tunisia	2.816	5.555	1,6	1,3

Iturria Docquier eta Marfouk (2004).

ELGAko herrialde guztietara bideratutako emigrazioari dagokionez, datuek aurretiazko emaitzak berresten dituzte. Giza kapitalaren galerak gehien eragiten dien herrialdeak berberak dira, eta horiei Filipinak eta Sri Lanka gehitu behar zaizkie. Eta horietan ere, kasurik gehienetan, arazoaren neurrian goranzko joera antzematen da.

Gráfico 6: Población con estudios superiores respecto a la de origen (%)



Aurrerago erabili ditugun datuetatik ondorio interesgarri bi atera daitezke. Batetik, "burmuinen ihesaren" arazoak (goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen %10 baino gehiago galtzea), orokorra ez baldin bada ere, emigrazio igortzaileak diren herrialde asko eta askori eragiten die. Bestetik, "burmuinen ihesik" ez daukaten kasuetan ere, emigrazioak prestatutako giza errekurtsoen galera nabaria eragiten du. Eta hori adierazten da nola biztanleria emigrantearen prestakuntzaren araberako osaeraren bitar-

tez –batez bestekotik gorako hezkuntza mailadunak– hala jatorriko populazioko segmentuen emigrazio tasaren bitartez, hau da, prestakuntza mailaren arabera.

Emigrazioan goi-mailako prestakuntzadun populazioaren pisu gero eta handiagorako joera hainbat faktorek baldintzatzen dute (Kapur eta McHale, 2005). Lehenengo eta behin, eragina dauka, zalantza barik, hazkunde ekonomikoko ereduak intentsitate teknologikorako daukan norabide gero eta argiagoak. Gaitasun teknologiko berriak erabileran jartzeko gaitasunak ekonomia baten nazioarteko lehiakortasuna baldintzatu ez ezik, epe luzerako aukera dinamikoak ere baldintzatzen ditu. Halatan, beraz, hazkunde ereduak berak eskulan espezializaturako eskaria zabaltzen du, jakinduria tekniko handiko eskulana. Eta herrialdeak etxeko merkatuetan ez ezik, nazioartean ere saiatzen dira eskari hori asetzen.

Beharrizan horren jakitun, herrialde batzuek kanpoan eskulan espezializatua hartzeko politika aktiboak abiarazi dituzte: politika horiek elikatu egiten dute hemen azaldutako fenomenoa. Kasu batzuetan politika generikoetan (adibidez, kuotak zehaztuta) eskatzailearen prestakuntza-mailaren eta espezializazioaren araberako irizpideak sartzen saiatzen dira (Kanada eta Australia, esate baterako), beste batzuetan politika fokalizatuak zehaztu dira, sektore jakinetako eskulan espezializatua atzemateko, hala nola, telekomunikazioetan eta osasunean (Alemania eta Erresuma Batua, esate baterako); kasu batzuetan politika horren asmoa emigrazio etengabea erregulatzea da, beste batzuetan, aldiz, emigrazioa onartzeko aldi baterako formulak dira (Alemaniako “green card” esaterako, edo Estatu Batuetako H-1B). Dituen ezaugarriak dituela, politika mota hau migrazio fenomenoari lotutako “burmuimen ihesa” sustatzen duen bigarren faktore bat da.

Prozesu horretan eragina daukan hirugarren faktore bat da goi-mailako irakaskuntzan dagoen internazionalizazio fenomeno gero eta handiagoa. Mundu garatuko unibertsitate indartsuenek garapen bideko herrialdeetako ikasleentzat irekita dauden prestakuntza programak eskaintzen dituzte. Ikasle horietako asko harrera herrialdean geratuko dira beren laneko bizitzaren parte handi bat bertan garatzeko. Hain zuzen ere, 2003an erregistratutako 2,3 milioi ikasle atzerritarretatik, %88 herrialde garatuetako unibertsitateetan zeuden matrikulatuta. Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta, batez ere, Estatu Batuak dira, batik bat, atzerriko ikasle gehien dituztenak (7. grafikoa). Bada, ikerketa batek dioenez, Estatu Batuetan doktore ikasketak egiten dituzten atzerriko ikasleen %68 bertan geratzen dira; eta portzentaje hori %45 eta %73 artekoa da zientzietako eta ingeniaritzetako ikasleen kasuan (Kapur eta McHale, 2005).

4.2. Giza kapitalaren galeraren eraginak

Orain arte, giza kapitalaren galeraren prozesua herrialde igortzailearen garapen aukeretarako kostutzat hartu izan da. Pentsatzen da, emigrazioaren bidez, herrialde igortzailea duen giza kapital mugatuaren parte esanguratsu bat galtzen ari dela, eta, horrek, etorkizunean, hazteko aukeretan eragin negatiboa izan dezakeela. Hazkundearen teoria berriaren irizpideek, giza kapitalak ekonomiaren dinamikan duen paper erabakitzailea azpimarratuz, indartu egin dute irizpide hori.

Kontuan hartuta prestakuntza prozesuen parte handi bat aurrekontu publikoen pentzura egiten direla, prestatutako pertsonen emigrazioak beste arazo bat ere sortzen du, hau da, emigratzen duten pertsonek duten interes pribatuaren eta jatorriko herrialdearen gizarte interesaren artean sor daitekeen kontraesana. Lehenengoentzat, emigrazioa beren prestakuntza curriculuma hobetzeko aukera izan daiteke, garapen profesionalerako edo beren ordainsari baldintzak hobetzeko aukera. Era berean, bigarrenarentzat, emigrazioa hezkuntza arloan egindako inbertsio publikoen parte bat galtzea izan liteke, eta kolektiboaren ahaleginaren etekina murriztea. Azken batean, bide honen bidez paradoxa bat sortzen da: “pobreak aberatsei laguntzen egotea” (Kapur eta McHale, 2005).

7. grafikoa: Ikasle atzerritarrak



Iturria: Kritz (2006).

Hauxe da hirurogeiko hamarkadaren azkenetan Johnsonen (1968) eta Don Patinkinen (1968) arteko eztabaida piztu zuen gatazka. Eztabaida hartan jarrera "kosmopolita liberala" zeritzona (pertsona guztiei beren aukerak askatasunez egitea ahalbidetzen zion ordena bat defendatzen zuena –Johnson, 1968–) eta orduan jarrera "nazionalista" zeritzona (hezkuntza arloan egindako inbertsioen nolabaiteko etekin soziala defendatzen zuena –Don Patinkin, 1968–) jarri ziren aurrez aurre. Eta kontraesan horri heltzen dio Bhagwatik (2003) ere bere jardun profesionala kanpoan garatzeko herrialdetik ateratzen den eskulan prestatuari tasa bat jartzea justifikatzeko; hau da, horren bidez, pertsona horien prestakuntzan inbertitutako ahalegin sozialaren parte bat konpentsa dadin.

Ikuspegi horren aurrean, badaude prestatutako baliabideen emigrazioan faktore positiboak ikusten dituztenak ere. Alderdi bi aipatzen dira batez ere hori defendatzeko. Lehenengo eta behin, pentsatzen da, emigrazioaren bidez, prestatuta dagoen populazioak esperientzia (edo bikaintasuna) hartzen duela, hau da, jatorriko herrialdean nekez jasoko lukeena. Horrela, emigranteek gero beren jatorriko herrialdean prestakuntza, edo ikerketa jardueretan zein jarduera teknikoetan parte hartzea sustatzen bada betiere, emigrazioa herrialdearen garapen zientifikorako eta teknologikorako estrategia egokia izan liteke. Langile espezializatuen irteera eta gero haiek kontratatzea (edo itzultzea) oso eskura ez leudekeen gaitasunak inportatzea izango litzateke, hau da, herrialde igortzaileak beste era batera eskuratzerik izango ez lukeen hura eskuratzea. Oso zaila izango litzateke ulertzea, esate baterako, Bangalore (India) inguruan goi teknologiako enpresen kontzentrazioa ezartzea, emigrante indiarrak, aurretik, Estatu Batuetara joan ez balira eta bertako unibertsitateetan eta zentro teknologikoetan prestatu ez balira; eta azaltzen zaila izango litzateke Hego Afrikako zerbitzu medikoen esportazioaren garapena, aurretik osasuneko langileek Erresuma Batura emigratu ez balute.

Bigarrenik, esaten da emigratzeko aukerak prestakuntzan egindako saiakeraren etekina handitzen duela, eta horrek era horretako jardueretarako pizgarriak hobetzen ditu. Horren oinarria da garapen bideko herrialde batean oso mugatua dela prestakuntza espezializatu bati lotutako etekina, sustapen aukera eta enplegu egoki gutxi daudelako. Horren ondorioz oso pertsona gutxik egiten dute hezkuntza arloko saiakera hori. Emigratzeko aukerak handitu egiten du prestakuntza prozesurako itxaroten den etekina, eta, ondorioz, gehiagok egiten dituzte ahaleginak, nahiz eta herrialdetik irteteko asmoarekin egiten duten. Baina, batzuek baino ez dute lortzen azken helburua eta, ondorioz, multzoa kontuan hartuz gero, emigratzeko aukera kenduko balitz baino hobeto geratzen da herrialdea (Meyer eta Brown, 1999)[14].

Jarrera horiek ez daude eragozpenetatik salbu, baina hemen aztertzen ari garen fenomenoa zein konplexua den azaltzen dute. Azken finean, emigratzeko aukerak areagotuz gero eragin kontraesankorrak sortzen dira, izan ere, eta alde batetik giza kapitalaren prestakuntzarako pizgarriak areagotzen dituen arren, beste aldetik murriztu egiten du herrialdearen giza kapitaleko stocka. Horrek hauxe iradokitzen du: i) lehenengo eta behin, balitekeela onena ez etortzea bat zeroren berdina den emigratzeko probabilitate batekin; ii) baina, bigarrenik, giza kapitalaren gehiegiz-

[14] Horrela interpretatu beharko genuke esate baterako, Jamaikatik Estatu Batuetara emigratzen duten medikuen tasa hain handia. Alde batetik, pertsona batzuek medikuntza ikasten dute Estatu Batuetara joateko bidea edukitzeko, baina gertakari horrek herrialdean bertan mediku klase bat sortzea eragiten du.

ko ihesak prozesuaren kostuak handiegiak izatea eragin lezakeela. Fenomenoaren eredutze erraz batek berretsi egiten du hipotesi hori, hau da, emigratzeko probabilitatearen eta langile kualifikatuen bitartez espero diren errenten balioaren arteko alderantzizko U baten itxurako harreman bat iradokita (3. Laukia).

3. laukia: Migrazioa eta giza kapitala

Emigratzeko probabilitateak hainbat izaeratako eraginak izan ditzake herrialde batean giza kapitala metatzeko prozesuan. Emigratzeko probabilitatea handitzean, alde batetik, giza kapitalaren *ex ante* etekinak areagotzen dira, baina, beste alde batetik, metatutako giza kapitalaren galera ere areagotu egiten da. Erlazio konplexua da. Horretarako demagun espero diren etekinen balioa inbertitutako giza kapitalaren (h) produktibitatearen (a) eta deskontu tasaren (r) mende dagoela. Emigratuz gero produktibitate nazionalaren bestelako etekin (a^f) bat izango du. Horrela, espero diren errenten balioa honela adieraz liteke:



Hau da, operazio honekin



Hezkuntza prozesuaren kostuen funtzio bakun bat onartzen bada; hau:

Hauek izango dira maximizazio baldintzak:



Emigratzeko probabilitateak (m) zeinu bikoitzarekin eragiten du h-ren oreka baldintzan.

Logikoa denez, emigratzeko probabilitate jakin batean, dagozkien produktibitateetako diferentzialak ezarriko du giza kapitalean egindako esfortzua:



Lehen aipatu dugun faktore kontraesankorren jokoaren oinarria (baita 3. Laukiko argudioena ere) giza kapitala faktore homogeneo legez hartzea da, eta merkatuetan lehiakortasun perfektuaren irizpideek araututakoa. Argi dago horrek larregiko sinplifikazio bat eragiten duela. Balizko horiek baztertzeak fenomenoa balioesteko interesgarriak diren ñabardura batzuk hartzea dakar. Hemen bost adierazi nahi ditugu:

- Lehenengo eta behin, emigratzeko posibilitateak ez dio soilik giza kapitala sortzeko dinamikari eragiten, sustatzen den giza kapital motari ere eragiten dio. Izan ere, homogeneoa ez izateaz gain, giza kapitala aktibo oso espezifikoa da, eta barietate guztien artean ordezgarritasun maila oso baxua dauka. Sektore batean giza baliabideak galtzea (medikuntzako profesionalak, esate baterako) ezin daiteke konpentsatu beste sektore bateko baliabideekin (ingeniariak, adibidez) ordeztuta. Beraz, emigrazioak ematen duen estimuluak desberdin eragiten die giza kapitaleko osagaiei, hau da, onura gehiago dakarkie errazago mugi daitezkeenei,

muga nazionalak kosturik gabe gaindi ditzaketenei. Horregatik eragiten die fenomeno honek oso internazionalizatuta dauden gaitasunei, hala nola, telekomunikazioekin zerikusia dutenei, eta ez horrenbeste izaera idiosinkrasikoagoa dutenei (legeen ezagutza, esate baterako).

- Bigarrenik, emigrazioaren bidez baliabide espezializatuak galtzeak herrialdean geratzen direnen negoziazio gaitasuna areagotzen du eta, hedaduraz, ordainsariak ere bai. Sektore horiek errenta maila altuenetan dauden bitartean, prozesuak jatorriko herrialdeko desberdintasuna areagotuko du. Batzuetan, gizarte desberdintasun iraunkorra bera ere justifikatu nahi izaten da, eta espezialisten ihesa geldiarazteko ezinbesteko erantzun gisa aurkezten da. Horixe da, esate baterako, Brasilen kasua, izan ere, bertako giza kapitalaren galera txikia, batzuetan, espezializazio handiko sektoreek duten errenta kontzentrazioarekin lotzen da.

- Hirugarrenik, sektore profesionalak edozein ekonomiatako zerga-bilketako oinarri esanguratsua izaten dira. Hori dela eta, herrialde bat profesional kualifikatuak galtzen ari bada, zerga-bilketarako aukerak ere nabarmen ariko da murrizten. Esate baterako, Indiari buruzko ikerketa batean, Desaik, Kapurrek eta McHalek (2003) diote giza baliabide kualifikatuaren emigrazioaren ondoriozko galerak eragindako zerga galerak herrialdeko NPGren %0,24 eta %0,58 arteko proportzioa duela. Eta galera hori pertsona horien prestakuntzarako erabilitako inbertsio publikoari gehitu beharreko galera garrantzitsua da.

- Laugarrenik, giza kapitalaren ezaugarri jakin batzuek oso garrantzitsu bihurtzen dute jarduera ekonomikoen multzo osorako. Halatan, lehenik eta behin, jakinduriaren oinarrizko ezaugarrietako bat daukan hedapen gaitasuna da, jario-eraginak sortzeko eta sistema ekonomiko osoari mesede egiten dieten kanpo-eraginak sustatzeko gaitasuna. Bigarrenik, jarduera batzuetan giza kapitala beste produkzio faktore batzuen osagarria izaten da (kapital fisikoarena, esaterako), eta, beraz, espezialista dosiren bat ez badago nekez iraungo du produkzio jarduerak. Eta, azkenik, giza kapitaleko inbertsioari eten jakin batzuk ere aitortzen zaizkio, eta kontuan hartu behar dira, erabat eragingarriak izateko behar diren inbertsio-atalaseak zehazten baititu. Ezaugarri horiek guztiek –kanpo-eraginak, osagarritasunak eta banaezintasunak– eragin dezakete giza kapitalaren galerak galdutako giza kapital horren balio hutsa baino eragin handiagoa izatea, bizimodu ekonomikoko beste jarduera eta prozesu batzuei ere eragiten dielako.

- Azkenik, giza kapitala oinarrizko faktore bat da gizarte bateko instituzioak eraikitzeko (Kapur eta McHale, 2005). Instituzioak sortzeko eta aldatzeko dinamiken gainean asko ez dakigun arren, giza kapitalean intentsitate handiko prozesua dela iradokitzen du guztiak. Ikuspegi horretatik, langile kualifikatuen emigrazioak eragin dezakeen zuloak dagokion herrialdeko esparru instituzionalaren kalitatean ere izan dezake kosturik. Garapenaren azalpenean erakundeek faktore garrantzitsu bat osatzen duten neurrian, giza kapitalaren galerak bide horretatik ere eragin liezaieke garapenerako aukerei.

5. Azken gogoeta

Aurreko orrialdeetan migrazio erabakiarekin zerikusia duten faktoreak aztertu nahi izan ditugu, kontuan hartuta, aldi berean, giza korronte horrek gizarte igortzaile-

aren garapen aukeretan dituen eraginik esanguratsuenak. Egindako ibilbideak galdera asko utzi ditu erantzunik gabe, baina nahikoa da ohartzeko, gizartearen bizitzako beste alor batzuetan bezala, zaila dela baieztapen kategorikoak egitea edo iritzi bakarreko usteak ematea. Emigrazioak garapenerako aukerak ematen dizkie pertsonei eta herrialdeei, baina kontuan hartu beharreko arriskuak eta kostuak ere baditu. Bi faktoreon arteko balantzak lehenengoaren aldera egiten duela ematen du: emigrazioa, besteak beste, nazioarteko desberdintasunak zuzentzen lagundu duen eta garapena sustatzen duen faktorea izan daiteke (eta izan da historian). Eta horrek fenomenoa erregulatzeko formula libreagoak defenditzea komeni dela iradokitzen du. Hala ere, emigrazioak kontuan hartu beharreko kostuak ere eragiten ditu, bai gizarte hartzaileetan, bai igortzaileetan. Kostuotako batek ere ez du justifikatzen, eta alferrikakoa da gainera, fenomenoari balazta jartzeko asmoa, baina komeni da prozesuak formarik egokienean kudeatzea, eragin negatiboak murrizteko, batez ere baliabide gutxien dutenen artean. Erreakzio nazionalisten eta identitarioen aurrean, komeni da azpimarratzea gizarte bidaltzaileek zein hartzaileek emigrazioa behar dutela; eta horixe da fenomenoaren indarraldiaren eta aurreikus daitekeen iraunkortasunaren arrazoi nagusia. Ondo legoke, beraz, bere presentzia desdramatizatzea eta eragiten dituen aldaketei inteligentziaz erantzutea, elementu positiboak indartzeko eta kostuak arintzeko.

Bibliografia

Adams R.H. (1998): "Remittances, investment, and rural asset accumulation in Pakistan", *Economic Development and Cultural Change*, October, 155-173.

Adams, R.H. (2003): "International migration, remittances and the brain drain: A study of 24 labour-exporting countries", *World Bank Policy Research Working Paper 3069*, Ekaina.

Alonso, J. A. (ed) (2004): *Emigración, pobreza y desarrollo*, Editorial Catarata, Madril.

Anderson, K. eta W. Martin (2005): *Agricultural Trade Reform and the Doha Development Agenda*, World Bank, Washington.

Appleyard, R. (1992): "International migration and developent: an unresolved relationship", *International Migration*, 30. lib., ? zk., 251-66.

Banco Mundial (2006): "Economic Implications of Remittances and Migration", *Global Economic Prospects*, 2006.

Barret, A. eta Ph. O´Connell (2001): "Is there a wage premium for returning Irish migrants?", *Economic and Social Review*, 32: 1-21.

Bartel, A.P. (1989): "Where do the new US inmigrants live?", *Journal of Labor Economics*, 7 (4): 371-91.

Bauman, Z. (2003): *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Editorial Siglo XXI, Madril.

Bhagwati, J. (1991): "Free traders and free immigrationist: stragers or friends?", *Working Paper nº 20*, April, Russell Sage Foundation, New York.

Bhahwati, J. (2003): "Borders beyond control", *Foreign Affairs*, 82. lib., 1. zk., 98-104. or.

Bilsborrow, R. E. eta H. Graeme, A. S. Oberai eta H. Zlotnik (1997): *International Migration Statistics: Guidelines for improving data collection systems*, ILO, Geneva.

Borjas, G. (1992): "Ethnic capital and intergenerational mobility", *Quarterly Journal of Economics*, 107, 123-50.

Borjas, G. (1994): "The economics of immigration", *Journal of Economic Literature*, 32, December, 1667-717.

Borjas, G. (1995): "The economic benefits from immigration", *Journal of Economic Perspectives*, 9. zk., 3-22.

Borjas, G. (1995): "Ethnicity, neighbourhoods, and human-capital externalities", *American Economic Review*, 85. lib., 3. zk., 365-90.

Borjas, G. eta B. Bratsberg (1996): "Who leaves? The outmigration of the foreign-born", *Review of Economics and Statistics* 78: 165:76.

Carrington, W. J. eta E. Detragiache (1998): How big is the brain drain?, *IMF Working Paper 98/102*, International Monetary Fund.

Clark, X., T. J. Hatton eta J. G. Williamson (2002): "Where do US immigrants come from? Policy and sending country fundamentals", *NBER Working Paper* 8998.

Dessai, M. A., D. Kapur eta J. McHale (2001): The fiscal impact of the brain drain : Indian emigration to the US», *Weekly Political Economy Discussion Paper*, Harvard University.

Docquier, F. eta A. Marfouk (2004): Measuring the international mobility of skilled workers (1990-2000)", *Policy Research Working Paper* 3381, World Bank, Washington.

Ellerman, D. (2003): "Policy Research on Migration and Development", *World Bank Policy Research Paper*, 3117, Washington.

Faini, R. (2001): *Development, Trade, and Migration*, International Monetary Fund, mimeografiatua.

Gammeltoft, P. (2002): "Remittances and other financial flows to developing countries", *Working Paper 02/11*, Centre for Development Research, Copenhaguen.

Hamilton, B. eta J. Whalley (1984): "Efficiency and distributional implications of global restrictions on labour mobility", *Journal of Development Economics* 14; 61-75.

Hatton, T. eta J. Williamson (2003): "What fundamentals drive world migration?", *Discussion Paper* 2003/23, WIDER.

Harris, J. R. eta M. Todaro (1970): "Migration, employment, and development: A two sector analysis", *American Economic Review*, 60, 126-42.

Hirschman, A. O. (1977): *Salida, voz y lealtad*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

Hirschman, A. O (1984): "La tolerancia cambiante de la desigualdad del ingreso n el curso del desarrollo económico", in *De la economía a la política y más allá*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

IADB-MIF (2004): "Sending money home: Remittance to Latin America and the Caribbean", Washington.

IMF (2005): *World Economic Outlook: Globalization and external imbalances*, Washington.

Jaeger, D. (2000): "Local labor markets, admission categories, and inmigrant location choice", Hunter Colege, New York.

Johnson, H. (1968): "An internationalist model", in W. Adams, *The Brain Drain*, Macmillan, New York.

Kapur, D. eta J. McHale (2005): *Give us your best and brightest*, Center for Global Development, Washington.

Karemera, D., V. I. Oguledo eta B. Davis (2000): "A gravity model análisis of international migration to North America", *Applied Economics*, 32: 1745-55.

Katz, E. eta O. Stark (1984): "Migration and Asymmetric Information: Comment", *American Economic Review*, 74, 533-34.

Ketkar, S. eta D. Ratha (2001): "Development financing during a crisis: Securitization of future receivable", *Policy Research Working Paper* 2582, World Bank, Washington.

Lindert, P. H. eta J. G. Williamson (2001): "Does globalization make the world more unequal?", *NBER Working Paper* 8228, National Bureau of Economic Research.

Maddison, A. (2001): *The World Economy. A millennial perspective*, OECD, Development Centre Studies, Paris.

Meyer, J. B. eta M. Brown (1999): "Scientific diasporas: A new approach to the brain drain", *Discusión Paper*, 41. zk., Management of Social Transformations, MOST.

Moses, J. W. eta B. Letnes (2002): "The economic cost to international labour restrictions", *WIDER Conference*, 2002ko iraila.

Mundell, R. (1968): *International economics*, Macmillan, New York.

Murphy, R., A. Shleifer eta R. Wishny (1989): "Industrialization and the Big Push", *Journal of Political Economy*, 97, 1003-1026.

Orozco, M. (2004): "Oportunidades y estrategias para el desarrollo a través de las remesas", en J.A. Alonso (ed), *Emigración, pobreza y desarrollo*, Editorial Catarata, Madril.

O´Rourke, K. H. (2001): *Globalization and Inequality: Historical Trends*, Trinity College, Dublin, CEPR eta NBER.

O´Rourke, K. H. eta J. G. Williamson (1999): *Globalization and History*, MIT Press Cambridge Mass.

Ozden, C. eta M. Schiff, *International Migration, Remittances and the Brain Drain*, New York, Palgrave Macmillan.

Patinkin, D. (1968): "A nationalist model", in W. Adams, *The Brain Drain*, Macmillan, Nueva York.

Puri, S. eta T. Ritzema (1999): "Migrant worker remittances, microfinance and the informal economy: prospects and issues", *Working Paper nº 21*, ILO, Geneva.

Rajan, R. eta A. Subramanian (2005): "GAT undermines aid´s impact on growth?", *NBER Working Paper* 11657, National Bureau of Economic Research.

Ratha, D. (2003): Worker remittances: An important and stable source of external development finance", *Global Development Finance*, 2003: 157:75.

Rosestein-Rodan, P. (1943): "Problems of Industrialization of Eastern and South-Eastern Europe", *Economic Journal* 53, 202-211.

Schiff, M. (1998): *Trade, migration and welfare: The impact of social capital*, Development Economics Department, World Bank.

Sjaastad, L. A. (1962): "The costs and returns of human migration", *Journal of Political Economy*, 70, 80-93.

Solimano, A. (2001): *International migration and the global economic Order: An overview*, Macroeconomics and Growth Development Economics Research Group, World Bank.

Stark, O. (1984): "Rural-urban mgration in LDCs: A relative deprivation approach", *Economic Development Change*, 32. lib., 3. zk., 475-86.

Stark, O. (2003): "Rethinking the brain drain", *World Development*, 32 (1): 15-22.

Stark, O. eta D. E. Bloom (1985): "*American Economic Review*, 75.

Stark, O. eta D. Levhari (1982): "On migration and risk in LDCs", *Economic Development and Cultural Change,* 31. zk., 1. zk., 191-96.

Stark, O. eta R. Lucas (1988): "Migration, remittances, and the family", *Economic Development and Cultural Change*, 36: 465-81.

Stark, O. eta S. Yitzhaki (1988): "Labour migration as a response to relative deprivation", *Journal of Population Economics*, 1, 57-70

Stiglitz, J. E. (1974): "Alternative theories of wage determination and unemployment in LDCs: The labour turnover model", *Quarterly Journal of Economics*, 88. lib., 2. zk., 194-227.

Stiglitz, J. E. (2002): *El malestar en la globalización*, Editorial Taurus, Madril.

Sutcliffe, B. (1998): *Nacido en otra parte. Un ensayo sobre la migración internacional, el desarrollo y la equidad*, Hegoa, Bilbao.

Todaro, M. P. (1968): "An analysis of industrialization, employment and unemployment in LDCs", *Yale Economic Essays*, 8. lib., 2. zk., 329-492.

Todaro, M. P. (1969): "A model of labour emigration and urban unemployment in less developed countries", *American Economic Review*, 59. lib., 1. zk., 138-148.

Williamson, J. H. (1997): Globalization and inequality: past and present", *World Bank Research Observer* 12: 117:35.

Woodruff, Ch. eta R. Zenteno (2001): "Remittances and microenterprises in Mexico", Kaliforniako Unibertsitatea.

Yang, D. eta C. Martínez (2005): Remitances and poverty in migrants´ home areas: Evidences from the Philippines", in C. Ozden y M. Schiff, *International Migration, Remittances and the Brain Drain*, New York, Palgrave Macmillan.

Internazionalismo feministen arrasto berriak eta jarduketa-eremu berriak. Amerika Latinotik egindako begirada

Virginia (Gina) Vargas.
Flora Tristan Zentroa
Marcosurreko Egituraketa Feminista

Aldaketei buruzko sarrera laburra

Garaiko eraldaketek, kontraesanek, gabeziek eta sentsibilitateek gizarte-mugimenduetan (eta euren adierazgarri eta osagai diren feminismoetan) daukate eragina. Azken hamarkadotan, feminismoak testuinguru aldagarrietan hedatu direnez, eragin handia eduki dute euren estrategietan eta eragin-esparruen aukeraketan.

Amerika Latinoko eta Karibeko Topaketa Feministak (orain arte 10 egin dira) hasiera-hasieratik (1981etik) eta 25 urtez izan dira herrialdeetan sortutako ikuspegiak, lehentasunak eta estrategiak trukatzeko, eztabaidatzeko eta adosteko eremuak. Gainera, alderdi horiek guztiak batera jartzean, euren partikulartasuna galtzen zuten, eskualde-mailako eta maila orokorreko hausnarketa berriak eta estrategia berriak elikatzeko. Eremu horrek, hain zuzen ere, Amerika Latinoko feminismoaren une guztiak zeharkatu ditu, eta leku aparta izan da adierazle eta diskurtso feminista berriak sortzeko eta agerpen, gai, lotura eta egituraketa berriak sustatzeko. Era berean, Amerika Latinoko feminismoen bilbe politikoak sortu ditu azken 30 urteotan.

80ko hamarkadan, Amerika Latinoko feminismoek "emakumeek arlo pribatuan sentitzen zuten ezinegona politizatu zuten", eta izena zein begirada kolektiboa jarri zizkioten gizartean izenik eta agerpenik ez zeukanari eta banan-banako arazoa izango balitz bezala bizitakoari. Horra hor etxeko indarkeria, indarkeria sexuala, ezkontzan jasandako bortxaketa, abortua, sexualitate gozagarria eta ugalketa. Ordura arte ezin homogeneoagoa zen mugimendu feminista hedatu eta sendotu egin zen, gizarte zibil antolatuaren adierazgarri eta osagai moduan. Estatu nazionalekiko eta estatu arteko eremuekiko elkarreraginak (egon bazeuden ere) mugatuak eta unean unekoak izan ziren, batez ere.

Horiek horrela, laurogeita hamarreko hamarkadan, Amerika Latinoko feminismoen sektore garrantzitsu eta zabalak munduko bileretako nazioarteko eremu ofizialetan sartu ziren. Bertan, zenbat jende bildu zen eta nolako eragina izan zuen kontuan hartuta, 1995ean Beijingen egindako bilera izan zen gertaera historikoa. Amerika Latinoko eta Karibeko Feminismoak "mugimendu moduan" sartu ziren eremu global horietara. Nazio Batuekin borrokatu ziren, prozesua bera feminista baten ardurapean jartzeko, eta loturen zein egituraketen bilbe aberatsa sortu zuten eskualde osoan zehar. Horrez gain, agenda elkarreragilea sortu zuten estatuko erakunde nazionalekin. Irabaziak Beijingeko Plataformatik haratago iritsi ziren. Horra hor antolamenduaren dentsitatea, itun eta estrategi berrien hedapena eta lehen mailako ikaskuntza politikoa. Era berean, tentsioak ere sortu ziren; esate baterako, estatuko eremuekin garatutako negoziaketa aktiboa, sasoi hartan feminismoen agenda kontrakulturalenak desitxuratzen zituzten-eta. Bestetik, agenda feministentzat oso arriskutsua zen feminismoak instituzionalizatzea, zenbait ikuspegi sartzen zirelako liskarrean, aldaketari, subjektibotasunari eta eguneroko bizimoduari buruzko eduki kontrakulturalak eta urratzaileak alde batera utzi gabe emakumeen maniobra-arloak zabaltzeko eremuak nola, nondik eta norekin eratu behar ziren zehazteko orduan.

Azken epealdian, milurteko berriko giro kultural, politiko, sozial eta ekonomikoaren erronkei nola aurre egin bilatzean gertatu ziren jarduketa-dinamiketako aldaketak: XXI. mendeak arrisku berriak ekarri zituen, neoliberalismoaren, militarismoaren, gero eta hedatuago dauden fundamentalismoen eta antzeko indar ahaltsuen hegemonismoaren aurrean. Era berean, milurteko helburuak ere ekarri zituen, eta Beijingeko Ekintza Plataformak lortutako maila murriztu zuten. Hala ere, xede eraldatzaile berriak ere ireki zituen: feministek arlo nazionalean eta orokorrean estatuen eta gobernuen aurrean abian jarritako estrategiek (oraindik ere eragin-eremuak izan arren) euren mugak erakutsi zituzten, eta ageri-agerian utzi zuten premiazkoa zela agenda feministetako dimentsio urratzaileena berreskuratzea eta mugimendu zein egituraketa globalek erradikaltasun berria zein egituraketa sustatu behar zituztela herrialdeetako eraketa demokratikoan.

Inolako zalantzarik gabe, agerpen feminista berriek eta feminista gazteen, beltzen, indigenen, elbarrien, lesbianen eta transen diskurtso berriek eragin handia eduki zuten erradikaltasun berri horretan. Agerpen horien ondorioz, kultura arteko ikaskuntza demokratikoaren berezko tentsioak sortu dira. Feminismoen sektore handi bat instituzionalizatu egin denez, beste tentsio batzuk sortu dira, eta, horren ondorioz, eskualde-mailako egituraketa politiko feministaren moduak eta eremuak berrikusi eta berriak bilatu behar izan dira. Amerika Latinoko eta Karibeko zenbait kanpainak gai gatazkatsuak izan dituzte hizpide (abortua, eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak eta fundamentalismoak), eta borondate feministak bateratzeko eta diskurtso berriak sortzeko modu berriak eskaini dituzte.

Ikuspegi horretan, estrategien orientazioan gertatutako zenbait aldaketa adierazgarriak izan dira prozesu horretan. Izan ere, estatua ez ezik, gizartea eta egunerokotasuna ere badira berreskuratutako politikaren lehentasunezko lekuak. Bestetik, Amerika Latinoko eta Karibeko topaketa feministen internazionalismo feminista eta munduko bilerak eremu feminista globaletarantz eta beste mugimendu batzuekiko eremu elkarreragileetarantz hedatu dira, eta berezko eremua gainditu da, aldaketa helburu duten beste indar eta gizarte-mugimendu batzuekin lotzeko eta edukiak jokatzeko, emantzipazioaren edukiak zabaltzen dituzten elkarreragin zein itun berrie-

tarantz irekitzeko eta botere hegemonikoei aurre egin eta aukerak eskaintzen dizkieten kontrabotereen eraketan aurrera egiteko.

Ez da egituraketa hutsa, prozesu horretan egituraketa harremanetarako eta eraldaketarako jardun politikotzat hartzen delako (Brah, 2004). Horri esker, "zapalkuntzak ez dira zatikatzen, eta zenbait estrategia zehazten dira batera aurre egin ahal izateko, nola lotu eta egituratzen diren ulertuta"…

Arrasto berriak

Begirada feminista berri horien oinarri den esparrua ere goitik behera aldatu da. Globalizazio hegemonikoaren ondorioz, borrokak larregi bereizteko eta zatikatzeko prozesuak sustatu dira. Hori dela eta, ondorio anbibalenteak ere sortu dira. Batetik, "deserroketa" politikoa gertatu da (Lechnerrek aipatutako niaren kulturan oinarrituta. Izan ere, zaila da konpromiso kolektiboagoetan murgiltzea, kultura neoliberalaren adierazgarri) (Lechner, 2003). Bestetik, mobilizaziorako, eraginerako eta ikuspegi globalerako tokian tokiko lekuak sortu dira: Chiapas, Seattle eta, handik aurrera, munduan menderakuntza-ordena horren inguruko alerta nabarmendu zuten mobilizazio historiko guztiak. Horrez gain, hiritar gehienentzat egunerokoa den esperientzia berria berreskuratu ahal izan da, hau da, euren bizitza pertsonalaren atentzioa. Era berean, "bereizteko" eta eskubide berriak eskuratzeko prozesuak gertatu dira. Hori dela eta, tentsioa sortu da errealitate baztertzailearen eta gizarteratzeko eta onesteko eskubidearen inguruko kontzientziaren artean, horizontalagoak eta demokratikoagoak diren harreman-aukerak sustatzeko orduan.

Globalizazioaren ondorioz sortutako aldaketek antzinako ohiturak eta sen tradizionalak ere ahuldu dituzte (Giddens, 1996); esate baterako, sexuen arteko harremana (sexualitate plastikoa eta malgua) eta familia-balio unibokoak. Era berean, gero eta hedatuago dauden fundamentalismoak elikatu badira ere, pertsonen agerpena lehen baino handiagoa da honako ideia hauen aurrean: autonomia, bereizketa, askatasuna, berdintasuna… Horiek horrela, euren buruaren gainean daukaten pertzepzioa aldatu egiten da, bai eta eskubidedun subjektu moduan daukaten izaera ere. Genero-paradigma bera ere aldatu egin da, ez delako aurretiko eredu kapitalistan oinarritzen (gizon hornitzailearen, familia-soldataren eta etxeko andrearen eredua). Emakumeek etxeko arloa politizatu dute, gizon hornitzailea desagertu egin da, familiak anitzak dira… Emakumeak bereizi egin dira, eta oinarri zabalagoak hartu ditu erreferentetzat.

Munduan egoteko modu berriok emantzipazioaren eta erregulazioaren arteko tentsio historikoa jartzen dute aurka, eta, testuinguru berrian, globalizazio hegemoniko neoliberalaren eta alternatiboa dela aldarrikatzen duen globalizazioaren arteko tentsiotzat hartzen da. Izan ere, globalizazio hori eratzen ari da, eta paradigma zaharrak eta bazterketa-modu berriak eta zaharrak jartzen ditu aurka (horren arabera, gizakien hiru laurden txiroak dira eta hiritar-eskubideak murriztu dizkiete). Gizarte bidegabean, arrisku-gizartean gaude, hiritarrei barik merkatuari eta politikari barik ekonomiari lehentasuna ematen dion eredu ekonomikoaren ondorioz. Gizarte kontserbadorea, fundamentalista da, eta, aldi berean, gero eta elkarbizitza biziagoa dauka paradigma berriak eratzeko eta hausnarketa berriak elikatzeko arrastoak uzten dituzten jardun sozial berriekin.

Deserosotasunaren etika: esperientziatik ikastea eta kontzeptuak zalantzan jartzea

Globalizazioan zehar bizitako prozesuek ageri-agerian utzi dute aldaketa handiko garaian bizi garela eta "garai-aldaketa" ere badela. Horren ondorioz, bizimoduak, nortasunak eta subjektibotasunak zaharkituta geratu dira. Astindutako ordena horretan, aurretiko paradigmak nahikoak ez direnez eta berriak eratzen ari direnez, ziurgabetasunak eta anbiguotasunak sortzen dira. Zenbait feministak ekarpenak egin dituzte hausnarketa horretan. Diana Mafia feminista argentinarraren esanetan, premiazkoa da hurbilketa-bide berriak eta diziplina arteko ustezko ordenamenduak asmatzea, ohiko diskurtsoaren legezkotasunari begira "desegokiak diren jakintzen" bidez (Mafia, 2002). Egoera berri horretan, Julieta Kirkwood feminista txiletarraren "*adierazteko lizentzia*" ere badago indarrean (bigarren boladako adierazgarritasun feministaren hastapenetan erabili zuen termino hori). Izan ere, nolabaiteko arduragabetasuna da paradigma zientifikoari eta bere lengoaian onartutako kontzeptuei begira, dendena erraztasun handiz nahasten delako. Hori dela eta, kodeen sailkapena desegin egiten da, eta termino garrantzitsuak alderantzikatu egiten dira (Kirkwood, 1986). Nira Yuval Davis feminista israeldar-ingelesak "*deserosotasunaren etika*" aipatzen du, ikasitakoaren eta konkistatutakoaren aurrean. Era berean, bere ustez, premiazkoa da errealitateari buruzko galdera berriak egitea eta eragileen jardunean bertan jardutea (Yuval Davis, 2004). Ziurgabetasuna eta deserosotasuna aldaketa-bultzatzaile ahaltsuak dira, beraz.

Deserosotasunaren etika horri esker, hitz zaharretarako eduki berriak edo eduki berrietarako adierazpide berriak bilatu ditzakegu, eta arlo politikoa eta eduki zein orientazio politiko berriak ulertzeko eta berreratzeko beste era batzuk sortu ditzakegu. Forma ugaridun edukiok jardun feministetan agertzen dira. Deserosotasunaren etika genero-ikuspegien urrunketan adierazten da, euren eduki urratzailea teknifikatu eta despolitizatu egiten dutelako lehendik dauden harreman sozial eta sexualetatik. Era berean, azterketa-ardaztzat hartutako txirotasunaren gaitzespenean ere adierazten da, aberastasunaren birbanaketa bidegabea nabarmentzeko, karitatera barik justizia sozialera hurbiltzeko modu bakarra da-eta[1]. Dena dela, batez ere, politikaren paradigma berriaren eraketan adierazten dira, bere zentraltasuna berreskuratu dezan, arlo soziala eta politikoa ekonomiaren subsidiariotzat eta osagarritzat hartu ez daitezen, demokrazia eta hiritarren eskubideak berreskuratu eta berpolitizatu daitezen, euren edukiak zabaldu daitezen, aldaketa soziala aldaketa subjektibo eta pertsonalaren bidez egitura dadin, arlo pribatuan proposamen urratzaileak berreskuratu daitezen eta eduki politiko berria izan dezaten. Horrez gain, ageri-agerian uzten dute nolako lotura estua dagoen sexualitatearen, ekoizpenaren eta ugalketaren artean. Gainera, tokian tokiko nazionala ez ezik, premiazko globala ere bada borroka hori.

Zaharkitutako paradigmak kolokan jartzea eta sen-esparru berriak eratzea

Globalizazioaren eraginez, dinamika berriei, indar berriei eta egoera berriei aurre egin behar diegu, eta, horren ondorioz, paradigma zaharrak zaharkituta geratu dira, eta ez

[1] Fraser eta Gordon. Emakumeen eskubideak emakume hiritarren eskubide barik "karitate", hau da, aldebakarreko dohaintza, gobernarien borondate onaren emaitza bihurtu zituen prozesu historikoa berreskuratu behar da.

dakigu zeren bidez eta nola ordezkatuko ditugun. Tokian-tokian eta eskualdean dauzkaten eraginei eutsita, feminismoak global bihurtu dira, eta begirada zein arrasto berriak egiaztatu dituzte, paradigma berriak elikatzeko, agenda feministak zabaltzeko / hedatzeko eta alternatiben nahiz erresistentzien kultura sortzeko, globalizazio neoliberalarekin eta garapen kapitalistarekin batera garatutako indarren aldean. Horretarako, ikuspegi demokratiko erradikala hartzen du kontuan, justiziaren izaera bibalentea berreskuratzeko: birbanaketa moduan eta onespen moduan (Fraser, 1998).

Egoera berriotan lekuratzeko, "irudimena" ere aldatu behar da (Beck, 2004), estatunazioaren oinarritutakotik irudimen kosmopolitara iristeko, eskalak ezeztatu beharrean berriro lekuratzen dituelako. Tokian tokitik elikatu eta egituratu arren, tokian tokiko ikuspegi nazionalak berez ixten dituen perspektibak eta zailtasunak hartzen ditu kontuan. Elizabeth Jelin feminista argentinarraren "ekintzarako interpretazio-esparru berriak ere garatzen dira[2]. Esparru horietan, gizarte-ekintzako osagai kognitibo, pertzepzio, sinesmen, balio, kultura-tradizio eta ideia berberak daude. Oinarri horren gainean, aukera politikoak eratu edo ustiatu egiten dira. Gizarte-ekintza garatzean, esate baterako, zortean edo patuan oinarritutako ekintzarako interpretazio-esparruaren ostean beste bat agertzen da, eta gertaeretan eragiteko gaitasuna nahiz bidegabekeria onesten ditu. Horren ondorioz, egoeren araberako aldarrikapenengatiko mugimenduek zentzu berria daukate, mugimendu zabalagoetan "lekuratzen" direnean eta erreferentziak handitzen dituzten itun berriak egiten direnean, toki-demokraziarako eskariak edo beste mugimendu batzuen eskariak kontuan hartu ahal izateko, feministek proposatutakoaren arabera eguneroko bizimoduko bidezkotasunerako eskubidetzat hartzen dira-eta. Bestetik, toki-egituraketa globala sustatzen dute, eta emantzipazio-zentzu berriak sortzen ditu. "Edozein kasutan, esparrua aldatzen bada, ekintzako subjektua, "guaren" erreferentea eta mugimenduaren ekintza-arloa handitu egin behar dira" (Jelin, 2003: 42).

Prozesu horretan, unibertsaltasunak eduki berria dauka. Unibertsaltasun horrek bereizgarritasun hegemonikoa adierazi du, batez ere, (gizonezkoa, zuria eta mendebaldekoa). Orain, ordea, borroka-esparru iraunkorra da, eta "zentzu-esparru" moduan lekuratu da, apurka-apurka gizarte-eragile berriek ekarritako onespen-eskakizun eta bulkadetatik hedatu ahal izateko. Boaventura de Sousa Santosen esanetan, berdintasuna ezinbestekoa eta premiazkoa bada ere, ez da nahikoa. Berdintasunaren printzipioa birbanaketan hartu behar da kontuan; eta desberdintasunaren printzipioa, onespenean: berdinak izateko eskubidea daukagu, desberdintasunak txikiagotu egiten gaituenean; eta desberdinak izateko eskubidea daukagu, berdintasunak bereizgarritasunik gabe uzten gaituenean, ezkutatzen gaituenean edo ezagutzen ez gaituenean (de Souza Santos, 2006).

Ikuspegi horretatik, berdintasuna eta desberdintasuna borroka-dimentsio osagarriak dira. Celia Amorosek dioenez, unibertsaltasuna eta desberdintasuna azaldu eta egituratu egin behar dira: berdintasuna erreferentetzat hartu behar dugu, unibertsalta-

[2] Gofranek esandakoari eutsita Jelinek dioenez, esparruak interpretazio-eskemen adierazgarri dira, eta, eurei esker, gizabanakoek euren eguneroko bizimoduko eta mundu zabaleko gertaerak lekuratu, antzeman, zehaztu eta marraztu egiten dituzte (hau da, ulertu eta atzeman egiten dituzte). Esparruek esperientzia antolatzen dute, eta banan-banako zein taldekako ekintza bideratzen dute, gertaerak ebaluatzen laguntzean. Esparru horiek ez dira ez adostuak ez bakarrak. Une historiko berean, interpretazio-esparru desberdinak egon daitezke, lehian edo euren arteko borrokan. Era berean, esparru hegemonikoei aurre egin ahal diete, eta aukerako ekintzak iradoki ahal dituzte (Jelin, 41. or.). Eraketa kulturalerako prozesu aktiboa da.

sunaren ikuspegi formalistaren eta gauzatu ezinaren arteko kontraesana azaldu ahal izateko. Desberdintasuna hantxe dago, ezagutu egin daiteke, menperatuta dago eta balioa dauka. Ezin dugu alde batera utzi, eta berdintasuna bera horren arabera eratu behar dugu.

Elizabeth Jelin aurrerago doa begirada horretan, gizarte-mugimenduen ikuspegitik berdintasuna eta desberdintasuna osagarriak direla dioelako. Batetik, guztientzako eskubide berberen alde eta justizia birbanatzailearen alde borrokatzen gara; eta bestetik, menperatutako taldeen (indigenen, emakumeen...) agerpen sozialaren onespenaren eta legezkotasunaren alde. Batak gizartea homogeneizatu nahi du, guztientzako baldintza berberak onartuta. Besteak nortasun soziala baieztatzen du, eta arlo kultural berezia, esparrua eskuratzen du gizartean bertan. Desberdintasunerako eskubideaz ari gara.

Bi ikuspegiak bateratuz gero, ikuspegi berriak sortuko dira, emakumeak harrapatuko dituzte euren heterogeneotasunean eta bereizgarritasunean eta euren emetasuna beste era batera bizi ahal izango dute. Hori dela eta, feminismoen ikuspegi eraldatzailea sustatu egiten da, kritikak menpetasunaren arabera egituratzean eta gizarteko menderakuntza zein bazterketa guztiak kritikatzean.

Txirotasuna hiritarren subjektibotasun berritik desegiten

Pertsonen bazterketa eta bereizkeria aztertzeko erabili den sisteman, mugimendu bikoitza egon da, eta maltzurra bezain despolitizatzailea izan da: txirotasunaren kontzeptuak desberdintasuna ordezkatu du. Gainera, kategoria politikotzat, erreferentziatzat eta aztergaitzat hartutako maila desagertu egin da. Desagerpen horien ondorioz sortutako despolitizazioa agerikoa da erabat.

Nolanahi ere, mailak batzea baino zerbait gehiago da. Esate baterako, aztergaitzat hartutako maila berreskuratzeko, beste dimentsio asko ere berreskuratu behar dira, euren desagerpenak eragina eduki zuelako maila "nagusi" moduan zeukan zentraltasunaren galeran. Beraz, lehen eta bigarren mailako kontraesanen mamutik aldentzen gara.

Horrelako erreferente barik eta hiritartasun demokratikoen eraketarekiko lotura aktibo barik, txirotasuna maila apolitikoa da, ezkutatu egiten duelako gaur egungo arazoa ez dela baliabideen eta aberastasunaren falta, aberastasun horren bidegabeko banaketa itzela baizik (Amerika Latinoa munduko kontinente bidegabeena da, eta, bertan, Peruko egoera nabarmendu beharra dago). Txirotasunaren eragilea zein den ez aurkitzean, desjabetutako masari aurre egin behar diogu, itzalpeko eta laguntzapeko politikak sustatzen diren bitartean.

Txirotasunari lehentasuna ematean, hiritartasunaren balioa galtzeko prozesuak iluntzen dira, eta euren izaera berdintzen da. Horren ondorioz, bazterketak eta bereizkeriak pertsonen bizitzan eragiteko daukaten forma ugariak iluntzen dira. Ez dago ikusterik arraza, maila, etnia, orientazio sexual eta genero mailako bereizkeria menderakuntza-sistema beraren osagaia dela. Hori dela eta, horrelako kategoria bakoitzaren ondorioz sortutako bereizkeriak ezin dira berez aldatu, bazterketa-sistema horren aurkako borroka egituratuan baizik. Beraz, ondorio iraunkorrak sortzen dira baztertuek euren buruaz daukaten iritzian eta gizarteak eurei buruz daukan iritzian.

Horregatik, oso garrantzitsua da pertsonek bizi duten bazterketaren eta bereizkeriaren dimentsioa eskubide-ikuspegitik, subjektuen heterogeneotasunetik, bizi-baldintza desberdinetatik, prozesu-eragile ugarietatik eta ustezko emantzipazio-estrategietatik berreskuratzea. Horren ondorioz, lehendik dauden eskubideak berreskuratu behar ditugu, eta, horrez gain, bazterketan zein bereizkerian opakoagoak diren beste dimentsio batzuk berreskuratu edo argitu egin behar ditugu. Bazterketa batzuk sistematikoak dira, baina subjektiboak eta sinbolikoak ere bai. Izan ere, irudi kulturaletan oinarrituta eratu dira, eta, berezikeria, estigma edo aurreiritzi moduan adierazi direnez, beste bazterketa batzuk sortu dituzte etengabe (Boron, 2006), elkar onesteko dinamika haustean. Ondorioak handi-handiak dira bazterketari buruzko autopertzepzioetan edo eskubideen eskurapenean eta, horren ondorioz, hiritartasun subjektibo, indibidual eta kolektiboetan, bazterketa bera legeztatzen dutelako, beste batzuen aldean eskubide gutxiago merezi dituzten subjektuak direlakoan.

Arlo pertsonalaren dimentsio politikoari buruz egiten duten hausnarketaren bitartez, feminismoek ekarpena egiten dute begirada horretan, eta honako eslogan honetan laburbiltzen da: *arlo pertsonala politikoa da*. Baieztapen horren ondorioz, emakumeen eta gizartearen egunerokotasuna astiro-astiro politizatu eta lekuratu zen bete-betean. Beste batzuek ere ekarpenak egin dituzte begirada honetan. Boaventura de Souza Santosen ustez, subjektua izateak esperientzia subjektiboan onetsia izatea esan nahi du. Bestetik, Lechnerrek egiaztatu egiten du sistemaren logika sakralizatzean subjektibotasun soziala uxatzen dela. Eguneroko bizimoduko emozioek, sentipenek adierazpiderik, izenik ez dutenez, ez dute hausnartzeko aukerarik eskaintzen eta ez dute gizarte-kohesioa eratzeko oinarri subjektiborik sortzen. Politikak eguneroko bizimoduko asmoei, beldurrei eta subjektibotasunei erreparatzen ez badie, politika hori hutsaldu egiten da (Lechner, 2003).

Gorputz politikoa

Agerikoa denez, egoera berri horretan eragiteko eta hitz egiteko, ekarpenaren zeresana zehaztu eta onespena eskatu behar da. Inoiz baino gehiago, lehendik dauden botereekin negoziatu eta eraginkortasunez borrokatu ahal izateko, agenda feministak politizatu, erradikalizatu eta zeresan handiagoa eduki behar dute agenda demokratiko erradikalaren barruan. Borroka-esparrua botere eta eremu hegemonikoei eta botereAren onespenari eta birbanaketari begira agertzen da, kontrabotereak eta esangura kontrakulturalak eratzeko arloan. Marta Rosemberg feminista argentinarraren esanetan, onespen horrek lekua izan dezan, desberdintasunak politizatu behar dira, justiziarako bidea den berdintasunaren inguruko kontzientzia piztu behar da eta desberdintasunen adierazpena babestu behar da, askatasun-egintza da-eta (Rosemberg, 2002).

Feministen askatasun-egintza adierazle berri horien hedapena da, hain zuzen ere. Euren bidez, kontraboterea eratzen dute, elkarreraginean eta aldaketa-ikuspegietako borrokan oinarrituta. Gaur egun, dimentsio kulturalak kontraboterea adierazle berrietatik elikatzen badu, aldaketa pertsonala egituratu behar da gizartea eraldatzeko prozesuen bitartez, eta "aukerako subjektibotasunak" sortu behar dira, maila kontzientean adierazteko eta irudi subjektibo, pertsonal eta sozialetan eragiteko. Dimentsio horretan, feminismoek eduki sozial eta politiko handiko kategoria pertsonal sakonak eskaintzen dituzte: *gorputza* eraldaketa-erreferenteak handitzen dituzten "jakintza desegoki" horietakoa da. Bertatik, gainera, emakumeen (eta gizakien) izaera anitzak berreskuratzen dira, tokian tokikoa eta orokortasuna egituratzen dira, arraza, maila,

generoa eta orientazio sexuala bezalako dimentsioak hartzen dira kontuan eta birbanaketa-politika zein onespen-politika elikatzen dira. Hori dela eta, "leku politikotzat" hartutako gorputza berriro kontzeptualizatu da, eta, bertan, ekonomia neoliberalaren, militarismoaren eta fundamentalismoen indar baztertzaileek eduki dute eragina. Betania Avila feminista brasildarraren esanetan, gorputza "hiritartasundun arlo" bihurtu da, egituraketa ugari sortzen dituzten zenbait esperientzia sozialen bitartez (Avila, 2001).

Ibilbidea handia da benetan: inolako zalantzarik gabe, gorputza diziplinatzeko eremua pertsonen eskubide sexualen eta ugalketa-eskubideen ukoa da. Horren aurrean, dimentsio kontrakulturala sortzen da, eta norberaren gorputzari buruz erabakitzeko eskubidea, plazererako eskubidea eta heterosexuala ez beste sexualitate anitz baterako eskubidea berresten ditu. Hori dela eta, mugimendu feminista eta aniztasun sexualaren aldeko mugimendu ahaltsuak sortu dira mundu zabalean, askatasunerako eta onespenerako eskubideen inguruan, bai eta boterearen zein baliabideen birbanaketaren inguruko borrokak ere. Bestetik, dimentsio biomedikoa dugu. Bere adierazpide ankerrena HIESaren izurritea eta sortzen dituen politikak dira. Gainera, elizen eta estatuen presioen eta erresistentzien helburu dira. Aldi berean, mugimendu paradigmatikoa sortu du sendagaien transnazionaletako patenteen monopolioaren aurkako borrokan. Gorputz politikoaren ibilbidea, ordea, haratago doa, gorputza izuaren eta militarizazioaren ondorioz diziplinatzen denean. Izan ere, ankerkeria ikaragarriaz agertu da gatazka armatuetan eta gerretan. Bertan, hain zuzen ere, emakumeen gorputza bando guztien "ospila" denez, onetsi egin da emakumeek gerran jasandako bortxaketak "gizateriaren aurkako delituak" direla. Ibilbide horretan, azalaren koloreagatik balio gutxiago duen gorputzak maltzurkeriaz elikatzen ditu bazterketa sozial, kultural, ekonomiko eta emozionalak, eta, emakumeei dagokienez, eragin berezia dauka euren gorputz sexualean. Horrez gain, eraginetan gero eta sarriagotan azaltzen da eredu ekonomiko hegemonikoak belaunaldi berrien gorputzei gaitasunak kentzen dizkiela (oro har, itzulezinak dira), bazterketa, desberdintasuna eta gosea uzten dituelako nonahi. Era berean, gorputz emigranteak, gorputz trafikatuak eta klima-aldaketen eraginek suntsitutako gorputzak ere badira. Guzti-guztiek kolokan jartzen dute gizaki guztientzat bideraezinak diren bizimoduak daudela. Hori dela eta, dimentsio horien guztien ondorioz, neoliberalismoaren, militarismoaren eta fundamentalismoen aurkako adierazpenak eta erresistentzia-mugimenduak agertu dira.

Fundamentalismoen aurkako borroka agenda demokratikoetako hizpidea izan behar da

Leku politikotzat hartutako gorputzaren aldeko borrokaren dimentsio bakoitzak ikuspegi fundamentalistei, eredu ekonomikoak berdindu nahi dituzten pentsaera bakarrei, sinesmen erlijiosoei, ikuspegi politikoei eta baliozkotzat eta benetakotzat hartutako ikuspegi bakarrei aurre egin behar diete, gainerako guztien aurrean. Tokian tokikoa defendatzeko asmoz, onespenean eta birbanaketan gertatu beharreko aldaketak gaitzesten direnean, fundamentalismoak sortzen dira etengabe.

Borroka globalak, nazionalak eta tokian tokikoak dira, borroka kosmopolitak dira (kosmosean eta polisean dihardute). Era berean, zenbait ekimenetatik azaltzen dira. Horra hor Marcosurreko Egituraketa Feministak Munduko Gizarte Foroan fundamentalismoen aurka sustatutako kanpaina. Hain zuzen ere, onartu egiten du fundamen-

talismoak "pentsaera bakar" guztiak direla: *"Erlijiosoa, ekonomikoa edo kulturala, fundamentalismoak adierazpide politikoa dauka beti, indarkeria-mekanismoak legeztatzeko eta talde bat beste baten menpe edo pertsona bat beste baten menpe egoteko. Funtsean baztertzaileak eta gatazkatsuak diren fundamentalismoek gizateriarentzako proiektuaren eraketa suntsitzen dutenez, pertsona guztiek ez dute eskubideak edukitzeko eskubiderik. Nortasunaren bilaketa primarioa, tribala da, eta, itxuraz, mehatxatutako kidetza-zentzuak "berrezartzen ditu". Jainkoaren, aberriaren edo merkatu askearen izenean gizartean beste era batera bizi nahi dutenak etsaitzat hartzen dituen nortasun tribal hori, hain zuzen ere, benetako oztopoa da giza elkarbizitzaren etorkizunari begira* (Fundamentalismoei buruzko Adierazpen Politikoa, Marcosurreko Egituraketa Feminista). Kanpaina horren eraginez, norberaren eta inoren pentsaera bakar guztietara zabaldu da fundamentalismoen aurkako borroka.

Fundamentalismoen aurkako borrokak elizako hierarkiako arbitrariotasunei aurre egiten die eskualdeko herrialde guztietako emakumeen eskubide sexualei eta estatuen izaera laikoa berreskuratzeko borrokari dagokienez. Era berean, maila globalean ere agertzen da, feministek ez dutelako nahi Vatikanoa herrialde behatzailea izatea. Ekimen hori "Erabakitzeko eskubidearen aldeko emakume katolikoak" sare globalak sustatu du. Era berean, abortua despenalizatzeko Irailak 28 Kanpainan ere parte hartzen du, bai eta araugarritasun globala handitzeko estrategia feminista berrietan ere. Horretarako, arrazoiketa eratzen du, eta gorputzaren dimentsio politikoa sustatzeko mobilizazioa eta itunak sortzen ditu eskualdeko beste sare batzuekin, Nazio Batuetako Amerika arteko Sisteman Eskubide Sexual eta Ugalketa Eskubideen Amerika arteko Bileraren alde egindako Kanpainaren bitartez. Izan ere, gorputzaren dimentsio politikoa berreskuratzea, eskubideak aitortzea eta eskubideok erabiltzeko bermeak ematea dauka helburu. Era berean, fundamentalismo ekonomikoak ere badaude behaketapean, eta, Amerika Latinoko feminista ekonomialariek diotenez, lekuratu egin behar dira eta ez daude merkatu askearekin bakarrik lotuta. Horrez gain, fundamentalista da hazkuntza ekonomikoa politiken lehentasunezko ardatza eta helburua izatea. Borroka horiek genero eta merkataritza sarretan, ALCAren aurkako borrokan, ekonomia solidarioaren sareetan eta genero-ikuspegia kontuan hartu eta kontuen berri ematen duten partaidetzazko aurrekontu gardenetan azaltzen dira. Era berean, tokian tokiko, eskualdeko eta maila orokorreko beste sare batzuek gayen, lesbianen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta trabestien eskubideak sustatzen dituzte. Izan ere, desberdintasunerako eta onespenerako eskubidea biderkatu dute, eta, horrez gain, generoa bezalako aurretiko kategoriak konplexutu dituzte, dimentsio dikotomikoa kentzeko eta demokratikoagoak diren dimentsio berri eta konplexuetarantz hedatzeko. Giza eskubideen sare askok arrazakeriaren aurkako eta orientazio sexualagatiko bereizkeriaren aurkako borroka hartu dute euren gain.

Horrelako mobilizazio eta borroka ugari aukerako eremu global berrietan ere azaltzen dira; Munduko Gizarte Foroan, esaterako.

Eremu berriak

Munduko Gizarte Foroa: eztabaida demokratikorako eremua

Beste mugimendu batzuekin hainbat eremu sortu dira, eta, bertan, feministak apustuak eta ekarpenak egiten dituzte herrialdeetan, eskualdeetan eta maila globalean. Honako hauexek daude Amerika Latinoan: Itun Sozial Kontinentaleko Emakumeen

Batzordea, Nekazarien Bideko Emakumeak, Hegoaldea Hegoaldea Elkarrizketa, emakumeen Munduko Martxa, Fundamentalismoen aurkako Kanpaina, Eskubide Sexualen eta Ugalketa Eskubideen Amerika arteko Bileraren aldeko Kanpaina, Abortuaren aldeko Irailak 28 Kanpaina, LGBT mugimenduak, Remte, Genero eta Merkataritza Sarea, besteak beste. Maila globalean ere, hainbat eta hainbat ekimen, sare eta eragin-eremu daude. Euretatik, Munduko Gizarte Foroa emantzipazioaren aldeko borrokak bateratzeko eremu global pribilegiatua da.

Begirada berriok indarra eta bultzada aurkitu dituzte Munduko Gizarte Foroan eta antzeko eremu global berrietan. Gaur egun, hain zuzen ere, egituraketak, jakintzak eta pentsaera global demokratikoa eratzeko eremua da gizarte-mugimenduen artean, eta ez da beti onesten feminismoetarantz orientatuta dagoela. Munduko Gizarte Foroan (MGFn) hainbat mugimendu elkartzen dira, eta neoliberalismoak jendearen bizimoduan eragindako ondorio suntsigarriei aurre egitea daukate helburu. Horra hor arlo bateratua. Nolanahi ere, foroak badu alderik, nola eta nondik egin behar den zehazten duelako eta eztabaida-prozesu gehigarriak eskaintzen dituelako. MGFko Printzipioen Gutunean, desberdintasunak onesteko leku zabala dagoen arren, praktikan ez da beti horrela gertatzen. Neoliberalismoen eraginen eta gizartea aldatzeko dinamiken ikuspegia unibokoa bada, beste forma subertsibo batzuei buruzko zentzuzko borrokak baztertu daitezke, aldaketa demokratikoa maila globalean garatzeko.

Feminismoentzat, MGF egituraketak hedatzeko esparrua da, baina boterearen desorekei aurre egiteko eztabaida-eremua ere bai. Desberdintasunen politizazioa askatasun-egintza handiena da MGFn, beste mugimendu eta sare global batzuekin garatutako elkarrizketan eta eztabaidan. Feminismoek zenbait mailatan daukaten agerpena politizatzen dute. Sare feministek MGFko Nazioarteko Batzordean daukaten partaidetza aktiboa eskasa da (eskualdeko eta maila orokorreko 10 sare feminista, eremu horretan parte hartzen duten beste 70 sare eta gizarte-mugimendu batzuen aldean), baina ageriko eragina daukate bertan. Izan ere, itunak eratzen dituzte, MGFk bere metodologian eta edukietan lortutako dimentsio demokratikoenak bultzatu ahal izateko. Beste sare eta mugimendu sozial batzuekin lotzeko eta "itzultzeko" aukera beste estrategietako bat da. Era berean, ekarpena ere bada foroko metodologiari begira, bai eta aniztasunera hurbiltzeko modu desberdina ere. Esate baterako, zenbait eskualdetako sare eta mugimendu feministek azken hiru MGFetan antolatutako "Mugimenduen arteko elkarrizketa" lantaldean, feministak, dalitak, sindikalistak, gayak, lesbianak eta transexualak bildu ziren, euren desberdintasunak onesteko eta euren bateratasuna eratzeko. MGFren hitz anitzak berreskuratzeko ahalegina da, gure baitan eta gu baitatik kanpo gatazkan dauden nortasun ugariekin nola hitz egin behar dugun jakiteko eta gizarte-eraldaketarako agenda ugarietan botereen birbanaketarako eta arrazoien onespenerako elkarreragin demokratikoak nola sendotu behar ditugun zehazteko.

MGFren zentzuzko esparruak handitzea feminismoek bultzatutako beste estrategia bat da. Horra hor MGFn fundamentalismoei buruz hausnartzeko garatutako eztabaida eta estatuen laikotasuna berreskuratzeko eskakizun demokratikoa, herrialdeetan zein Nazio Batuetako sisteman (Vatikanoa herrialde behatzailea ez izateko eskatu dute). Lucy Garridok dioenez, estatu laikoak berez txirotasunaren arazoa konpontzen ez badu ere, demokraziarako funtsezko baldintza da, eremu publiko anitzak bermatzen dituelako eta agertutako eta zalantzan ez jarritako egietan barik arrazoiketa politikoan oinarrituta daudelako eremuok.

Afrikako Nairobin 2007an egindako MGFren ostean, are premiazkoagoa da borroka feministen eduki demokratikoei buruzko zentzuzko esparruak handitzea. Bestetik, oso aberasgarria izan zen MGFren aurretiko helburuetan ia-ia agertzen ez zen kontinentea aurkitzea. Dena dela, Nairobin elizak, kontserbadoreak eta fundamentalistak egon zirenez, lehen forotik gaur arte eutsitako aldaketak jarri ziren kolokan, demokratizazio handiagoari, Printzipioen Gutunean beste begirada batzuk kontuan hartzeko ekimenari, agerpen handiagoari eta proposamen nahiz aldarrikapen feministen izaera demokratiko erradikalari dagokienez. Hasieratik, elizekin lotutako pertsonek betebetean parte hartu dute foroan, feminismoek gai askori buruz hitz egiten dute eurekin eta gorputzari buruzko agendetan eztabaidatzen dute. Marcosurreko Egituraketa Feministak zenbait forotan antolatutako lantaldeetan, "Gorputza agenda demokratikoan" lantaldean gonbidatu genituen elizekin lotutako pertsonak. Hala ere, elizaren agerpen berriek giza eskubideen ikuspegi mugatua daukate, euren moralitatea pentsaera humanisten eta libertarioen aurka dago, pertsonei eta, batez ere, emakumeei, homosexualei, gayei, lesbianei eta transei euren eskubideen, askatasunaren eta autonomiaren onespena kendu nahi diete eta eragin handia daukate emakumeetan, homosexualetan eta foroaren beraren aniztasun demokratikoko izpirituan. Lehen aldiz, abortuaren aurkako "Pro Life" erakunde iparramerikarraren erakustokia egon zen, eta eskuin muturrekoa da emakumeei eta politikari dagokienez. Lehen aldiz, abortuaren aurkako ibilaldia egin zen. Lehen aldiz, amaierako ekitaldian, lesbiana batek hitz egin zuenean, parte-hartzaileen sektore handi baten eraso-maila eskandalagarria izan zen benetan. Edonola ere, aniztasun sexualeko mugimenduen agerpen afrikarra agerikoa bezain aberasgarria izan zen 2007ko MGFn. Eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak eztabaida-ardatzetakoak dira maila orokorrean zein tokiantokian.

Desberdintasunean oinarritutako elkarrizketa feministak

Munduko zenbait eskualdetako sare, egituraketa eta erakunde feministek foroko feministen arteko onespenerako eta elkarrizketarako gunea antolatu zuten. 2003an[3], Marcosurreko Egituraketa Feministak zuhaizpeko bilera antolatu zuen MGFn, eta, horren ondorioz, Elkarrizketa Feministak sortu ziren (lehenengoa, Indiako Mumbayn 2004an egindako MGFn; bigarrena, Brasilgo Porto Alegren 2005ean egindako MGFn; eta hirugarrena, Nairobin 2007an egindako MGFn). Foroa baino lehen egindako hiru eguneko bileran, mundu zabaleko feministak elkartzen dira (180, Mumbayn; 260, Porto Alegren; eta 180, Nairobin). Asko eta asko ez ziren inoiz ohiko elkarrizketan egon eta, are gutxiago, elkarrizketa feminista globalean, era guztietako loturak eduki arren.

Elkarrizketa Feministetan, helburu iraunkorra izan da foro orientazio batzuen inguruan egindako ekarpenak egituratzea (neoliberalismoa, militarismoa), fundamentalismoen ardatza eranstea eta "gorputza" demokrazia erradikala elikatzen duen garapenbideko lehentasun bateratzailetzat hartzea:

> "*Feministak garenez, jakin badakigu gure gorputzak esanahi kultural eta sozialez beteta daudela. Era berean, jakin badakigu emakumeen gorputzak leku garrantzitsuak direla eta, bertan, borroka politiko eta moral asko ematen direla.*

[3] Bilera hau Marcosurreko Egituraketa Feministak antolatu zuen.

Erkidegoa, estatua, familia, indar fundamentalistak (estatukoak eta estatukoak ez direnak), erlijioa eta merkatua emakumeen gorputzaren bitartez ahalegintzen dira euren burua zehazten. Kontrol patriarkalen pletoraren bidez, indar eta instituzio horiek botere-harremanen adierazpide bihurtzen dituzte emakumeen gorputzak. Horiek horrela, emakumeen gorputzak proposamen larderiatsuen edo demokratikoen erdi-erdian daude." (Elkarrizketa Feministen Ohar Kontzeptuala, 2005).

"Milurteko berriko mugimendu feministek proiektu politiko eta demokratiko erradikala aberastea daukate helburu. Bertan, gainera, aniztasuna subjektibotasunez onetsi, onartu eta landu behar da, eta ez da toleratu behar den zerbait izango balitz bezala kontuan hartu behar. Ikaskuntzaren eta aldaketaren bidez feministei adierazteko eta aberasteko aukera eskaintzen dieten eremuen bila gabiltzanez, tokian tokiko, nazio-mailako, eskualdeko eta maila globaleko beste borroka demokratiko batzuk aitortu eta ezagutu egiten ditugu. Horren ondorioz, gai berrien, nortasun berrien, gizarte-eragile berrien... eztandan adierazten diren kultura demokratiko berriak aberastuko dira. Ez dago beste era bateko mundua sortzerik, demokrazia beste era batera ulertzen ez bada. Gainera, beste era bateko demokrazia lortzeko, emakumeen eta gizonen iraultza pertsonal bezain subjektiboak garatu behar dira, aniztasuna bete-betean onartu behar da eta borroken intersekzionalitateak taldearen erronkatzat hartu behar dira." (Demokrazia Erradikalerako Ikuspegi Politikoen Ohar Kontzeptuala. III. Elkarrizketa Feministak, 2007).

Elkarrizketa feministak elikatzen dituen hausnarketa jarrera kritikoan oinarrituta dago. Gandhi eta Sha feminista indiarrek adierazten dutenez, *"guretzat feminismoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren herri-ulermen liberaletik haratago doa..."*. *"Feminismoa ideologia denez, emakumeek egitura patriarkalaren barruan eta sistema neoliberal ekonomiko, sozial eta politikoetan jasaten duten zapalkuntza eta agentzia ulertzen saiatzen da. Feminismoa fundamentalismoaren, kapitalismo globalaren edo inperialismoaren... aurka dago, eta baztertuekin eta indigenekin bat egiten du... Gainera, gure bizitzako egun guztietan jarduten du, eta etengabe bilatzen du funtzionamendu kolektibo eta demokratikoa... Gure ustez, ez zaie lehentasunik eman behar ez berezitasunari ez unibertsaltasunari, bien artean dagoen lotura nabarmendu nahi dugulako. Gure esperientziak unibertsalizatu beharrean, emakumeen mugimendu moduan ditugun ikuspegiak eta helburuak unibertsalizatu behar ditugu."* (Gandhi eta Sha, 2007). Desberdintasunak ezkutatzen ez dituzten borroka ugariak behar ditugu. Horiek horrela, erantzun ugari izango ditugu, tokian tokiko eta maila globaleko esperientzia-esparrua hedatzeko eraldaketa-prozesuak elikatzeko.

Amerika Latinoko esperientzia feminista internazionalistetatik, elkarrizketa feministak dimentsio berria dira. Euren jardun internazionalistak Amerika Latinoko eta Karibeko Topaketa Feministetatik eta munduko bileretako eremuetatik hedatu dira eremu feminista globaletarantz eta beste mugimendu batzuekiko elkarreragin-guneetarantz. "Abokatutza-estrategia" gutxiago eta "kontrabotere-estrategia" gehiago dira (biak Beijingeko prozesuan egon baziren ere, 90eko hamarkadako bigarren zatian lehenengoak izan zuen lehentasuna). Edonola ere, nahi dugun eta ahal dugun feminista guztien partaidetza daukaten Amerika Latinoko eta Karibeko Topaketa Feministen aldean, eremu globaletan ez gaude garen guztiok eta ez goaz nahi dugun guztiok. Talde txikia gara, kostu ekonomikoak handiak direlako eta interes handiagoa daukagulako agenda feminista globaletako gaietan. Oraindik ere, aurrerapenek, uler-

men berriek, desberdintasunen aberasgarritasunak, galdera berriek eta esperientzia horietan oinarritutako ezagutzen sorrerak ez dute nazio-mailan zein maila globalean adierazteko eta metatzeko bide argirik, bertatik elikatzen badira ere. Inolako zalantzarik gabe, erronka handia da eskala ugari horietako diskurtsoak eta jardunak iraztea eta egitate global oro planetako guneren batean tokian tokikoa dela onartzea.

Lau urteotan, elkarrizketa feministak aldatu egin dira, eta are modu argiagoan adierazi dira azken urtean. Lehenengo elkarrizketa feministatik, prozesu metodologikoa ez da erraza izan eta bidean egin dira saiakuntzak, feminista parte-hartzaileen kritikak eta talde antolatzailearen autokritikak kontuan hartuta. Aurretiko metodologien eta orientazioen ondorioz adostasunak eta desadostasunak adieraztea eta etorkizuneko ikuspegiak[4] lantzea zaila zela kontuan edukita, Nairobin lehentasun handiagoa eman zitzaion agenda politiko feministen edukiei buruzko eztabaidari, gaur egungo erronkei erreparatuta. Era berean, ekimen ugariren arabera eratu ziren agenda feminista globalak. Hori dela eta, honako hauexei egin zitzaien elkarrizketa feministetan parte hartzeko deia: *"…mugimendua eratzeko proiektu politikoan engaiatutako feministak…mugimenduen ulermena dinamikoa izan arren eta aniztasunez zein kontraesanez beteta egon arren."* (Elkarrizketa Feministen Ohar Metodologikoa, 2007). Demokraziari, hiritartasunari eta testuinguru neoliberal, fundamentalista eta militaristetako estatuei buruzko eztabaidei ez ezik, estrategia feminista globalei ere eman zitzaien lehentasuna, feminismoetatik bertatik feminismo transnazionalaren aldaketei eta estrategiei buruzko ikuspegi kritikoak eta era guztietako hausnarketak sortu nahian (Estrategia Feministen Ohar Kontzeptuala, Elkarrizketa Feministak, 2007). Bestetik, lehen aldiz, talde antolatzaileak foroan bertan antolatzaile moduan jarduteko erabakia hartu zuen, lehen aipatutako ekintzen bidez: Emakumeen Ibilaldia Askatasunaren Alde, Gazteriaren Karpa Feminista eta foroko laugarren egunean sortutako dinamika, urtean zehar mobilizazio-ekintzak biltzeko eta proposatzeko asmoz. Elkarrizketa feministek antolatutako eremutik, adostutako bi esloganen inguruko mobilizazio-proposamenak sortu ziren: "Emakumeen gorputzen, lanaren eta sexualitatearen gaineko erakunde-kontrolerako" eta "emakumeen subiranotasun pertsonal eta sozialaren defentsa".

Era berean, elkarrizketa feministak ikaskuntza bizia izan dira lehen bultzada eman zuen taldearentzat, gaur egun handitu egin bada ere[5]. Ikaskuntza metodologikoak eta politikoak; beste begirada batzuen, beste ezagutza batzuen eta errealitateari galdetzeko beste modu batzuen aurkikuntza; eta beste emaitza batzuk dituzten estrategia berberak. Oso adierazgarria da nola aurre egiten zaion Mumbayko elkarrizketa feministetan sortutako aborturako eskubideari. Amerika Latinoko feministentzat, emakumeek euren bizitzari buruz erabakitzeko dituzten mugak handitzeko borrokaren adierazpide ahaltsuena da. Abortua despenalizatzea lortu duten feminista indiarrentzat, emakumeentzako askatasun-eremu handiagoak euren aurkakoak dira erabat, gehienek emakumezko enbrioiak abortatzen dituztela. Indiako legeriak aitortutako ugalketa-eskubideek ez diete eman botererik emakumeei, estatuari baizik, jaiotza-tasa kontrolatzeko politika zabalak inposatu dituelako. Hau da, beste kultura batzuk, beste baliabide batzuk, beste gabezia batzuk eta beste arazo batzuk; eta arazo bateratuetarako, arrisku desberdinak eta irtenbide desberdinak.

[4] Era berean, oso eragingarria izan zen talde antolatzaileak dinamikak ekintza edo agenda bateratuetarantz bideratu nahi ez izana.

Aberasgarria da jakitea zer justiziak eta zer askatasunek ez dituzten ez estrategia berberak ez emaitza berberak, egin daitekeenaren mugak zabaldu egiten direlako, feministek maila globalean egindako apustuak konplexutu egiten direlako eta irtenbide unibertsalak zein pentsaera bakarrak kolokan jartzen direlako berriro.

Erreferentzia bibliografikoak

Marcosurreko Egituraketa Feminista, (2002): Fundamentalismoen aurkako Kanpainako agiria. Munduko Gizarte Foroa, 2002. Porto Alegre, Brasil. www.mujeresdelsur.org.uy

Marcosurreko Egituraketa Feminista, (2005): Emakumeen Itsasontzitik egindako prentsa-oharra. Munduko Gizarte Foroa, 2005. Porto Alegre, Brasil. www.mujeresdelsur.org.uy

Marcosurreko Egituraketa Feminista, (2007): Elkarrizketa Feministak. Nairobi, 2007. Aniztasuna ospatzen. Estrategia globalak eratzen. www.mujeresdelsur.org.uy/fsm/2004/diálogos

Avila, Betania. (2001): *Feminismo y ciudadanía: la producción de nuevos derechos*, 16. or. Lima: Flora Tristán, AGENDE, Genero Berdintasuna (Emakumeak, lemazain: eragin politiko feministarako koadernoak, 2. zk.).

Beck, Ulrich. (2004): *Poder y Contrapoder en la Era Global. La Nueva Economía Política Mundial.* Paidós Estado y Sociedad 124. Bartzelona-Buenos Aires-Mexiko.

Boron, Atilio. (2006): *El Foro de Caracas: la otra mirada. Alai amlatina 27.02.06*. de Sousa Santos, Boaventura. 2006. *Conocer desde el Sur. Para una cultura política emancipatoria*. Transformación Global Bilduma. Demokraziari eta Eraldaketa Globalari buruzko Ikaskuntzen Programa. San Marcosko Unibertsitate Nazional Nagusia. Lima, Peru.

Brah, Avtar (2004): Diferencia, Diversidad y Diferencia. En: Otras Inapropiables. Feminismos desde la Frontera. Bell Hooks, Avtar Brah, Chela Sandoval, Gloria Anzaldúa… Ed. Traficante de Sueños. Madrid.

Brah, Avtar. (2004): *Diferencia, Diversidad y Diferencia*. In *Otras Inapropiables. Feminismos desde la Frontera*. Bell Hooks, Avtar Brah, Chela Sandoval, Gloria Anzaldúa… Traficante de Sueños argitaletxea. Madril.

Elkarrizketa Feministak, (2005): Ohar Kontzeptuala. Txosten Orokorra, 2005. Eranskina.

Elkarrizketa Feministak, (2007): Ohar Kontzeptuala. Demokrazia Erradikalerako Ikuspegi Politikoak. III. Elkarrizketa Feministak, 2007.

Elkarrizketa Feministak, (2007): Ohar Metodologikoa.

Elkarrizketa Feministak, (2007): Ohar Kontzeptuala. Estrategia Feministak, 2007ko Elkarrizketa Feministak.

[5] Hona hemen hasierako taldeko kideak: Marcosurreko Egituraketa Feminista, Inform, NNAWG, DAWN, WISEJ, Isis Manila eta FEMNET. Ondoren, honako hauexek sartu ziren: Akina Mama wa África- AmWA, Amerika Latinoko eta Karibeko Batzordea Emakumeen Eskubideen Defentsarako - CLADEM, Eskubide Sexual eta Ugalketa Eskubideen aldeko Gazteen Amerika Latinoko eta Karibeko Sarea - REDLAC, Amerika Latinoko eta Karibeko Emakumeen arteko Herri Hezkuntzarako Sarea - REPEM, Women Living Ander Muslim Laws – WLUML eta Women in Development - WIDE.

Fraser, Nancy. (1998): "From Redistribution to Recognition? Dilemmas of Justice in a "Post-Socialist" Age", in Feminism & Poltics, Anne Phillips ed. Oxford University Press.

Giddens, Anthony. (1996): "Reflexiones de Anthony Giddens sobre el Proceso de Mundialización" (UNRISDen Mundializazioari eta Hiritartasunari buruz emandako hasiera-hitzaldiko testu-zatiak) in *UNRISD Informa*, aldizkarian (Frantzia) 15.zk.

Gandhi, Nandita eta Shah, Nandita. (2007): *Un Espacio Interactivo para Feministas*. www.feministdialogue.isiswomen.org

ISIS, Manila. (2007): Feminists Dialogue. Nairobi, 2007. Ohar Kontzeptuala. 5. azpigaia: *Global Feminists Strategies, challenges and common approaches*. www.feministsdialogues.isiswomen.org

Elin, Elizabeth. (2003): "La escala de la acción de los movimientos sociales". In *Mas allá de la nación: las escalas múltiples de los movimientos sociales*. Elizabeth Jelin (bildumagilea). Buenos Aires. Zorzaleko liburuak.

Lechner, Norbert. (2003): *¿Cómo reconstruir un nosotros?* Giza Garapenerako Aldizkari Latinoamerikarra. PNUD. Txile (formatu elektronikoa).

Mafia, Diana. (2000): "Ciudadanía Sexual. Aspectos legales y políticos de los derechos reproductivos como derechos humanos". In *Feminaria*, XIV. urtea, 26/27-28. zk. Buenos Aires.

Rosemberg, Marta. (2002): "¿Which other world is possible?" in Women's Global Network of Reproductive Rights Newsletter (Amsterdam), N. 75. 5-8. orr.

Uval-Davis, Nira. (2004): *Human/women's rights and feminist transversal politics*. In Myra Marx Ferree & Aili Tripp (ed.), Transnational Feminisms: Women's Global Activism and Human Rights. Minnesota University Press.

Herrixkak, hiriak eta kaiukoak: oparotasunera bidaiak?

Carlos Oya.
School of Oriental and African Studies, Londres

Sentsazionalismotik Espainiara migratzen duten afrikarren errealitatera

Kalkuluen arabera, 2006an 30.000 etorkin baino gehiago iritsi ziren Kanariar Uharteetara kaiukoetan, itsasoan zehar ia 2.000 km egin ondoren. "Etorkin oldea" uda eta urriaren amaiera bitartean gertatu zen batez ere. Emigrazioaren fenomenoa ez da berria; oraingoan, ordea, ikusgarriagoa eta mediatikoagoa izan zen, ontzi hauskor samar horiek Kanarietara iristeko egiten duten bidaia luzea kontuan izanik. Gaiak oihartzun handia izan zuen, Espainiako hedabideetan ez ezik, Senegalgoetan ere bai. Gaiak polemika handia eragin zuen Senegalen. Lehendakaritzarako hauteskundeak oso hurbil zeuden (2007ko otsailaren 25a), eta fenomenoak publizitate oso txarra egiten zion Senegalgo gobernuari. Izan ere, ustez, etorkinen andanak Senegalek eta, bereziki, gazteek pairatzen zuten krisi sozial eta ekonomikoa islatzen zuen. Gainera, abentura horien ondorioz milaka desagertu zeudela esaten zen; 4.000 eta 6.000 artean, prentsa iturri desberdinen arabera.

Estaldura mediatiko sentsazionalista hori eta etorkin oldearen dramatismoa alde batera utzita, ezinbestekoa da Espainiara joaten diren afrikarren eta oro har Afrika Azpisahararreko migrazioaren errealitatea aztertzea. Migrazio prozesu guztietan, txanponaren bi aurkiak ikusi ohi dira: batetik, fenomenoa helmugako herrialdean, eta, bestetik, fenomenoa jatorrizko lekuetan. Alabaina, kontuan hartu behar da migrazioek edo populazio mugimenduek hainbat eremu eta herrialde barne hartzen dituztela, zirkuituaren eta herrialde batean edo beste batean sartzeko aukeren arabera. Horrela, iraganbideko herrialdeak daude, edota iraganbideko herrialde izatetik helmugako herrialde izatera pasatzen direnak, eta alderantziz. Ponentzia honetan ikusiko dugunez, migrazio zirkuituak nahiko konplexuak dira, batez ere Afrikan. Haien

azterketak izebergaren mutur ikusgarri eta mediatikoenarekiko (Kanarietara itsasoz iristen diren etorkinak) sortzen den lilura gainditu behar du.

Lehenik eta behin, esan behar da Espainian erroldatuta dauden etorkin azpisaharararren kopurua oso txikia dela termino absolutu eta erlatiboetan. Errolden arabera, 2006an 29.000 senegaldar inguru zeuden Espainian.[1] Kopuru horrek, termino erlatiboetan, etorkin guztien %1 baino gutxiago, Afrikatik datozenen %4 eta Afrika Azpisaharararretik datozenen %23 hartzen du barne. Senegambia eta Mauritaniak osaturiko eskualdetik datozen etorkinak, 2006ko abenduaren 31n Espainian erroldatuta zeuden etorkin azpisaharararren %43 ziren. Hala ere, beren kopurua hutsala da Europako erkidegotik kanpoko etorkinen guztizkoan. Beraz, desesperatuta dauden gazte afrikarren "inbasioak" ez dira hain handiak, datu ofizialei begiratuz gero. Etorkin azpisaharar "irregular" edo "paperik gabeko" asko daudela onartuta ere, proportzio horiek ez dira gehiegi aldatzen, "irregulartasunak" ez baititu azpisaharararrak bakarrik ukitzen.

Etorkin talde hori Espainian gutxiengoa izateak, pobrezia maila handiagoaren, edo muturreko pobreziaren, eta migrazioaren gorakadaren artean lotura garbirik ez dagoela pentsatzera eraman gaitzake. Hau da, Afrika azpisaharararreko etorkinak, seguruenik, beste eskualde batzuetakoak bezain pobreak edo pobreagoak dira, baina arrakasta edo aukera askoz gutxiago dituzte "Iparraldeko" lan merkatuetara, eta bereziki Espainiakoetara, iristeko. Itxurazko paradoxa hori dagoeneko aztertu da migrazioari buruzko literaturan (Sutcliffe 1998: 113), eta zera uzten du agerian: batetik, migrazioaren kostuak nahiko altuak izan daitezke; eta, bestetik, migratzeko gutxieneko hezkuntza eta trebezia maila eduki behar da, eta horrek migraziorako izangaien artean aberatsenei egiten die mesede, herrialde desberdinei nahiz herrialde bakar bati dagokionez. Alabaina, nahiz eta azpisaharararren presentzia erlatiboa Espainian oso txikia izan, analista askoren ustez, Afrika Azpisaharararrak kontinente arteko emigranteen fluxu oso garrantzitsuak sortzen ditu, eta izangaien balizko kopuru are handiagoa (Castles eta Millar 2003).[2]

Migrazioaren fenomenoaren tamaina absolutu eta erlatiboari Afrikatik begiratuz gero, errealitatea oso desberdin agertzen zaigu. Zenbait herrialdetan, batez ere Mendebaldeko Afrikan, emigrazioa oro har eta atzerrira (zehazki, Europara) egiten dena fenomeno izugarri garrantzitsua da. Datuak lortzea zaila da eta beren fidagarritasuna ere zalantzan jar daiteke. Hala ere, Senegalgo gobernuaren estimazioen arabera, 500.000 eta 700.000 senegaldar artean atzerrian bizi dira. Zenbait ikerketek Maliko emigrazioaren garrantzia azpimarratu dute: 4 milioi maliar baino gehiago atzerrian bizi dira. Ikerketa baten arabera, maliar helduek (35-39 urte bitartekoek) beren bizitzan 1.9 aldiz emigratu dute beste herrialderen batera. Beraz, migrazioaren fenomenoa oso hedatuta dago. Malik migrazio tradizio handia du, eta Europan (bereziki Frantzian) diaspora oso garrantzitsu bat dagoen arren, maliar gehienek Afrika Azpisaharararreko beste herrialde batzuetara migratzen dute, batez ere Boli Kostara.

[1] Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Immigrazio eta Emigrazioko Estatu Idazkaritzaren tauletatik ateratako datuak. Alabaina, Senegalgo prentsaren arabera (*Walf Adjri* egunkaria, 2006ko irailaren 7a), Espainian 60.000 senegaldar bizi ziren, emigrante erregularrek gutxi gorabehera %50 eta "irregularrek" beste %50 osatzen zutelarik.

[2] Zenbait herrialdek fluxu handiagoak jaso dituzte kontinente horretatik, batez ere Frantziak, Belgikak eta Erresuma Batuak. Espainia edo Italia duela gutxi bihurtu dira helmugarik gogokoenak.

Beste ikerketa batzuen arabera, 1975. urtean, biztanle burkinabeen %17 atzerrian bizi zen, eta gehienak Boli Kostan (Nugent 2007: 18).

Datu horiek Afrika Azpisahararreko migrazioaren ezaugarririk garrantzitsuenetako bat uzten dute agerian. Alde handiaz, fluxurik handienak herrialdeen barruan eta eskualdeen artean gertatzen dira. Hau da: historikoki, Afrikako migrazioaren fenomenoa kontinente horretako espazio geografikora mugatu da. Herrialde azpisahararretako mugak oso irekiak dira, eta biztanleriaren mugimenduak Afrikako historia ekonomiko eta sozialaren funtsezko zatia dira. Datu ofizialek Afrika barruko migrazioaren norainokoa erakusten digute, errealitateak zifra horiek soberan gainditzen dituen arren; izan ere, Nazio Batuen Erakundearen arabera, Afrika Iparralde eta Azpisahararreko biztanle emigranteen kopurua %3.2tik %1.9ra jaitsi da 1960 eta 2005 artean.[3] 1990ean "borondatezko" 30 milioi emigrante afrikar zeuden, eta horietatik gehienek azpikontinentearen barruan migratzen zuten (Castles eta Miller 2003: 139). 1997an, kalkuluen arabera, "derrigortutako" 17 milioi emigrante afrikar zeuden (horietatik 4 milioi *errefuxiatuak*), eta gehienak eskualdeko herrialdeetan bizi ziren (ibid: 139). Afrikako zenbait herrialdetan, immigrazioaren fenomenoa bereziki nabarmena da eta Europako herrialdeetan ikusten ditugun kopuruak soberan gainditzen ditu. Adibidez, urteen arabera (2002an hasitako gatazkaren aurretik), Boli Kostako biztanleriaren %15 eta %25 artean etorkina zen edo beste herrialde batean jaioa (Nugent 2007: 18). Etorkin horien gehiengoa eta beraien ondorengoak aldameneko herrialdeetatik zetozen (Mali, Burkina, Niger). Gainera, fenomeno hori Boli Kostako dinamika gatazkatsu berriarekin dago loturik. Izan ere, gatazka sorrarazi zuten prozesuetako bat herritarrak "Boli Kostakotzeko" ahalegina izan zen, etorkinei (aspalditik bertan bizi zirenak barne) hiritar eta nazionalitate eskubideak kentzearen bidez. Orokorrean, Afrika barruko migrazio fluxuak gero eta ohikoagoak eta konplexuagoak dira, 1. mapak erakusten duenez. Bertan, bi herrialderen artean bi noranzkoetan gertatzen diren fluxuak ikus ditzakegu, zenbait erakarpen poloren sendotzearekin batera (Hegoafrika, Nigeria, Gabon eta Boli Kosta, besteak beste). "Eskulan erreserba" izaera duten herrialdeak eta erakarpen poloak direla eta, eskualdeko zenbait migrazio mugimenduk, Mendebaldeko Afrikakoek kasu, morfologia berezia dute (ikus 2. mapa).

[3] Begiratu datuak http://esa.un.org/migration eta www.migrationinformation.org/datahub/comparative.cfm#africa helbideetan.

Mapa – Migrazio mugimenduak Afrikan 1995-2000

Iturria: Castles eta Millar (2003)

2. Mapa – Migrazio mugimenduak Mendebaldeko Afrikan



V.8 La migración en el oeste de África, c. 1991

Iturria: Sutcliffe (1998, 115. or.)

Migrazioak atzo eta gaur

Mendebaldeko Afrikan, eta zehazki Senegal, Gambia eta inguruko eskualdeetan, gertatzen diren migrazio prozesuak ulertzeko modu on bat zera da: kolonizazio aurreko garaitik gaur egunera arte biztanleria mugimenduen dinamiketan egon diren etendura eta jarraipenak aztertzea.

Kolonizazio aurreko garaian nahiz garai kolonialean, biztanleriaren mugimenduak etengabeak ziren. Hain zuzen ere, mugimendu horiek funtsezkoak izan ziren kontinentearen zati handi bateko gizarte eta estatuen sorreran (Hugon 1999; Parker eta Rathbone 2007). Mendebaldeko Afrikako estatuen sorrera, neurri handi batean, langileak mobilizatzeko era bortitzen menpe zegoen (Parker eta Rathbone 2007). Gatazka eta inbasioekin loturiko gerrak, arpilatzeak eta esklabotza erabakigarriak izan ziren, adibidez, Erdi Aroko Ghana, Songhai eta Maliko inperioen jaiotzarako. Gaur egun ere, eskualde hori emigrazio gune garrantzitsua da. Esklabotza (etxekoa edo barrukoa, eta baita hedapen edo defentsarako gerrekin loturikoa ere), sarritan funtsezkoa izan da kolonizazio aurreko gizarteen sorreran, batez ere mendebaldean eta gerriko saheliarrean. Zenbait gizartetan, esklaboen proportzioa %50-60koa izatera iritsi zitekeen (Austin 2005). Esklabotza, razzia eta inbasioen bidez esklaboak eskuratzearekin batera, kolonizazio aurreko zenbait gizarteren ekoizpen moduarekin eta bere ugalketari eragiten zioten egiturazko mugekin hertsiki loturik zegoen (Nugent 2007: 19). Dudarik gabe, eskulanaren eskasiak eta haren sakabanatze erlatiboak, bereziki nomadismoa eta klanak edo talde txikiak bereizgarri zituzten tokietan, langileak mobilizatzeko ekonomiaz kanpoko hainbat modu sorrarazten zituzten (Sender eta Smith 1986).

Argi dagoenez, Saharan eta Ozeano Atlantikoan zeharreko esklabo salerosketak inoiz ikusi gabeko biztanle mugimenduak eragin zituen Afrikako lurralde askotan. Kalkuluen arabera, Ozeano Atlantikoan zeharreko esklabo salerosketak 11 milioi pertsona baino gehiagoren desplazamendua ekarri zuen berekin; gainera, ondorio beldurgarriak izan zituen ukitutako eskualde askotako ekologia eta ekonomia hauskorrean (Lovejoy 2000).[4] Aipatu salerosketa hori, nekazaritzaren eta tratularien ontzien negozioaren bidez esklabotzari probetxu handia ateratzen zioten inperio kolonialen eta Afrikako kostaldeko (Senegaldik Angolara) talde jakin batzuetako buruzagien arteko elkarreragin historikoak ahalbidetu zuen.

Kolonizazioarekin beste desplazamendu mota batzuk ezarri ziren, batez ere eskulanaren eskasia kronikoari irtenbide bat emateko. Herrialdeak modernizatzeko, baliabide naturalak ustiatzeko eta administrazioak sortzeko, agintari kolonialek, zenbait kasutan, bortxazko lanak ezarri zizkieten afrikarrei, eta Asiatik eskulana ekarri zuten (India eta Txinatik batez ere) britainiarren agindupeko eskualdeetara (Nugent 2007). Horren ondorioz arraza eta etnia komunitate berriak sortu ziren, herrialde batzuetako aniztasun demografikoa areagotuz (Kenya, Uganda, Hegoafrika edo Zambian, adibidez). Horri europar jatorriko etorkinak gehitu behar zaizkio, batez ere Afrika Australean eta Kenyan.

[4] Iturri beraren arabera, esklabo afrikarren Saharan zeharreko salerosketak ia 7,5 milioi gizon eta emakumerengan izan zuen eragina; aldiz, 1650 eta 1900 artean 4 milioi esklabo baino gehiago bidali zituzten Asiara (Lovejoy 2000: 142).

Kolonizazio aurreko garaitik ia egunera arte eskualde arteko biztanleria mugimendu handiekin sarritan loturik egon den beste faktore bat krisi ekonomiko eta sozialekin erlazionatutako krisi ekologikoak dira, bereziki eskualde saheliarretan (Baro eta Batterbury 2005). Aldaketa klimatikoekiko sentiberagoak diren inguruetan, adibidez Saharako desertutik gertu edota Afrika Mendebalde eta Ekialdeko sabana erdiaridoetan, horrelako krisiak maiz gertatzen ziren. Gaur egun ere migrazio handiak eragiten dituzte zenbait tokitan, batik bat Afrikako Adarrean eta Mendebaldeko Sahelean. Horren adibide bat Soninke herria da (egungo Mali, Mauritania eta Senegal, besteak beste). Soninkeek betidanik emigratzeko eta etengabe lekuz aldatzeko joera izan dute (Nugent 2007: 19): elkartze mugimenduetatik hasi eta Ghana, Mali eta Songhai estatuen sorrerara, Dakar eta Banjuleko portuetara eramaten ziren nekazaritza produktuen ekoizpen eremuetarako urtaroko migrazioetatik pasatuz, Soninke diasporara arte –egun, gehienak Frantzian bizi dira- (Parker eta Rathbone 2007).

Baina aldizkakoak, batzuetan ekonomiaz kanpokoak eta sarritan bortitzak ziren fenomeno horiek alde batera utzita, merkataritza legitimoa delakoan zehar migrazioak pixkanaka areagotu egin ziren, eta horren ondorioz Europak Afrikan zeukan presentzia sendotu egin zen (Amin 1974). Merkataritza legitimoa baliabide naturalen ustiapenean eta esportaziorako produktuen ekoizpenean oinarritzen zen. Esportaziorako produktu tropikalen ekoizpenak eta ugaritzen zihoan biztanleria elikatzeko hedatutako laboreek oraindik gehiago bultzatu zituzten eskualde barruko biztanleria mugimenduak. Fenomeno hori bereziki garrantzitsua izan zen Mendebaldeko Afrikan. Ehunka milaka urtaroko emigrante eta emigrante iraunkorrek sortutako migrazio zirkulazioko prozesua erabakigarria izan zen hainbat laboreren hedapen ikusgarrirako (adibidez, kakahuetea Senegambian, eta kakaoa eta kotoia Boli Kostan eta Ghanan). XX. mendearen hasieran, aldi baterako emigranteen biztanleria masa flotatzaile hori ia bi milioi pertsonaz osaturik zegoen. Langile emigranteei hainbat modutara deitzen zitzaien beren jatorri eta helmugaren arabera: adibidez, *navetanes* (Senegalera zihoazen egungo Mali, Ginea edo Mauritaniako emigranteak) edo *strange farmers* (Gambiara zihoazenak) (Nugent 2007: 19). Ghanako nekazari emigranteei buruzko historiografia oso zabala da. Emigranteek kakaoa hazten zuten, batez ere. Labore horren zabalkuntza ez ezik, emigranteek beste ondorio batzuk ere ekarri zituzten: ekoizpen harremanak aldatu egin ziren, dirua metatzeko aukerak sortu ziren eta, beraz, kapitalismoa tokiko gizarteetan sartu zen (Austin 2005).

"Gaurko" migrazioek, alegia, deskolonizazioaren ondoko garaikoak, nolabaiteko antzekotasuna dute aurrekoekiko; batez ere, esportazio eremu dinamikoagoetara egiten diren migrazioek, edota mendebaldeko herrialde batzuetako eremu aitzindarietara (nagusiki Boli Kosta, Ghana eta Nigeria) egiten direnek. Ondare koloniala barrualdetik kostaldera edo meatzeak eta industria dauden tokietara zuzenduriko migrazio fluxuen iraunkortasunean islatzen da. Toki horiek erakarpen polo gisa funtzionatzen dute, ez bakarrik herrialde batean, eskualdeetan ere bai (Castles eta Millar 2003: 140). Alabaina, gero eta garrantzitsuagoak diren beste migrazio prozesu batzuk ere nabarmendu behar dira. Batetik, barne migrazioek, batez ere landatik hirietara egindakoek, inoiz ez bezalako neurria hartu dute kolonialismoaren ondoko garaian. Independentzia lortu aurreko urteetan jada, zenbait administrazio kolonialek gune hiritar, administratibo eta industrialak sortzeko inbertsioak egin zituzten, adibidez Dakar, Abidjan edo Accran. Afrika Australean, Hego Afrikak aurrerapen handiak egin zituen urbanizazio eta industrializazioaren arloan, eta bere meatze zein industriek

etekina atera zieten herrialde mugakideetako langile etorkinen fluxu kontrolatu edo administratuei; herrialde horiek eskulan erreserbatzat jotzen ziren, esaterako Lesotho, Botswana, Swazilandia, Mozambike eta Malawi (Nugent 2007). Mendebaldeko Afrikan ere, Independentzia lortu eta gero, zenbait herrialde "eskualdeko eskulan erreserba" bihurtu ziren, eta emigranteak eskualdeko hiri handietara eta potentzia ekonomikoen sail landatuetara joaten ziren lanera (Amin 1974). Erreserba horien adibide nagusiak Mali eta Burkina Faso dira.

1970 eta 1980ko hamarkadetan biztanleria mugimendu behartuak gertatu ziren, zenbait gobernuk proiektu nazional zentralizatuak ezartzearen ondorioz. Adibide bat Etiopia eta Tanzaniako birkokapen famatuak dira, hurrenez hurren eskualdeen artean eta landa eremuetara egindakoak (Adepoju 1998). Beste herrialde batzuetan, gatazka zehatz edo orokortuek "borondatez kontrako" emigranteen fluxu oso handiak eragiten hasi ziren (desplazatuak eta errefuxiatuak), eta mugimendu horiek areagotu egin dira azken 20 urteotan. Sarritan, estatu ahulen, krisi ekonomikoen eta austeritate politiken baturak zenbait herrialdetako erregimen politikoak ezegonkortzen ditu, eta horren ondorioz gatazkak sortzen dira. Eta zenbait kasutan, gatazkek ehunka milaka desplazatu eragiten dituzte denbora tarte nahiko laburrean. Probidentzia-estatutik "huts egindako" estaturako igarotze azkarra, testuinguru aldakor eta oso sentikorretan –Sierra Leonakoa, adibidez-, beste testuinguru batzuetan ere gertatu izan da, baina beti antzeko ondorioekin (Rwanda, Uganda, Boli Kosta, etab.).

Azken hamarkadetan, 1970eko hamarkadaren amaierako krisi ekonomikoen eta austeritate plan nahiz egiturazko doikuntzen bidez krisi horien areagotzearen ondorioz, presioak handitu egin dira, batez ere landa inguruneetatik hirietarako migrazioetan; hala ere, eskualde mailako mugimenduetan ere islatu dira, eta gero eta gehiago, kontinentetik kanporako emigrazioetan (Adepoju 1998). Egia esan, kontinentetik alde egiten duten afrikarren fenomenoa nahiko berria da (Ozeano Atlantikoan zeharreko esklabo salerosketa salbuetsiz, noski).

Era berean, garai horretan, zenbait gobernu, batez ere krisialdi ekonomiko eta politikoa zegoenean, beren mugak zorrozki kontrolatzen hasi ziren, etorkin "ilegalen" kanporatze gero eta masibo eta sarriagoak eginez (Castles eta Millar 2003: 141). Erakarpen edo pasaguneko polo handiek, esaterako Nigeriak, Hego Afrikak, Ghanak edo Boli Kostak, gobernuek komeni zaienaren arabera immigrazioa nola kontrolatzen duten erakusten digute. 1980 eta 1990eko hamarkadetako krisiak nekazaritzaren geldialdiaren, urbanizazioaren eta desindustrializazioaren gurpil zoroan islatu dira sarritan, eta *slum, bidoville eta favela*n planetaren hedapena ekarri dute herrialde askotan. Lan merkatuaren informalizazioak eta etengabe lekuz aldatzea dakarren lan ezegonkorrak (*footloose labour*), dimentsio dramatiko berri bat eman diete barne migrazioei eta Afrika barruan gertatzen direnei. Hiri handietako aldiri kaotikoak, azpiegiturarik gabeak eta letoizko etxez eginak, gero eta kosmopolitagoak eta "panafrikarragoak" bihurtu dira; horren adibide dira Abidjan, Lagos, Nairobi, Johannesburg, Lurmutur Hiria edota Kinshasa.

Azkenik, azpimarratu beharreko "gaurko" beste migrazio mota bat langile erdikualifikatuen ihesa da ("buru argien ihesa"). Sarritan, sektore publikoan lanpostu egonkor samarrak eduki arren, pertsona horiek Iparraldera alde egiten dute, bertan langile kualifikatu eta erdikualifikatuen eskaria etengabe handitzen dagoelako (ERREF). Adibiderik lazgarriena sanitarioena da. Ghana, Zambia eta Hego Afrikan, besteak

beste, osasunaren arloko milaka profesionalek Europara (Erresuma Batura bereziki), Australiara, Estatu Batuetara eta Kanadara alde egiten dute. Ondorioz, beren premia gero eta handiagoak betetzeko Afrikako gobernuek egiten dituzten inbertsioek mundu garatuko osasun sistemetan ematen dituzte beren fruituak. Edozein garapen prozesutan garrantzitsua den ondasun publiko bat (gizarte zerbitzuetako giza kapitala), pixkanaka, ondasun pribatu bihurtzen da (emigranteek beren familiei bidaltzen dieten diruaren bidez).

Eranskineko 1. diagramak, hainbat une historiko eta egoera desberdinetan, Afrika barruko migrazioen faktoreen artean egon diren elkarreragin konplexuak interpretatzen ditu (beren esanahia, arrazoiak eta ondorioak). Hortaz, barne krisi ekologiko eta ekonomikoekin, gizarte harremanen bilakaerarekin eta erresistentzia endogenoen ondoriozko autoritate krisiekin loturiko faktoreei, kapitalismoak Sahara Azpiko egitura sozial eta estataletan izandako barneratze motel, aldakor baina etengabearekin loturiko faktoreak gehitu behar zaizkie. Pizgarrien eta bortxaren bidez (ekonomikoa eta ekonomiaz kanpokoa), esportazioko nekazaritza ekonomien garapenaren eraginez, meatzeen ekonomia politikoaren eta bertako langileak Afrika Australeko eskualdeetan mobilizatzearen ondorioz, eta industriak nahiz egitura administratiboak hiri eremuetan kontzentratu izanaren ondorioz, erakarpen eremuak sortu dira (herrialde bakoitzaren barruan nahiz eskualdeen barruan), "eskulan erreserbak" izenekoekin batera. Prozesu horiek guztiek aldi baterako edo betirako emigratzeko hainbat modu sorrarazi dituzte. Horregatik, afrikarrak munduan gehien emigratzen duten biztanleen artean daude, Iparraldera iristen direnean oztopo izugarriak gainditu behar dituzten arren. Duela gutxi Espainiara (eta Europara) iritsi diren emigrante azpisahararren andanetan interesa duenarentzat ("andana" hitza oso erlatiboa da, kopuruak kontuan izanik), Afrikatik kanporako nahiz Afrika barruko migrazioen iragana eta orainari buruzko azterketa hau oinarrizko abiapuntua izan behar da.

Herrixkak

Egungo migrazio fenomenoaren aniztasuna eta garrantzia oso ongi islatzen dira herrixken egunerokotasunean. Hainbat ikerketa xederekin[5] Mauritania eta Senegalgo toki batzuetan egin nuen landa lanean zehar (Espainian bizi diren emigrante azpisaharar asko herrialde horietakoak dira), migrazioaren garrantzia sarritan geratu zen agerian, arrazoi desberdinengatik. Interesgarriena zera izan da: migrazioaren esperientzia desberdina izan den testuinguruetan, migrazioak eta harekin loturiko "imaginarioek" hartzen dituzten dimentsio eta formak aztertzea.

Senegal ibaiaren arroan kokaturiko herrixka batean, Mauritania eta Senegal artean, kontrako migrazio prozesuen arteko loturak aurkitu nituen.[6] Alde batetik, diaspora garrantzitsu bat zegoen, bi taldetan banatua: a) diaspora nazional hiritarra, hiriburuan (Nouakchott) finkatua eta enplegu nahiko egonkorra zeukana; b) nazioarteko diaspora, Italian finkatua. Diaspora horien zuzeneko onuradunek, dudarik gabe, oparotasun erlatiboa islatzen zuten, kapitala metatzeko eta jarduera ekonomikoak zabaltzeko aukerez gain.

[5] Ikerketak tokiko enpleguaren dinamiketan, landako lan merkatuen sorreran eta muturreko pobreziatik irteteko eta pobrezia horretan erortzeko moduetan oinarritzen ziren. Senegalgo ikerketak 1980 eta 1990eko hamarkadetako krisiak ekoizle jakin batzuetan izandako eragina ere jorratzen zuen; izan ere, beren ustiategien tamainagatik, ekoizle horiek aldi baterako langileak kontratatzen zituzten (ikus Ova 2001).

[6] Ikus 3. mapako zirkulu gorria.

Bestalde, herrixkan eta haren inguruetan etorkinez osaturiko gutxiengo txiki bat zegoen. Horren arrazoietako bat zera zen: herrixkan esportaziora zuzenduriko nekazaritzako ustiategi komertzial bat zegoen, atzerriko kapitala zeukana. Ustiategiak aldi baterako etorkinen eta jornalarien gutxieneko kopuru bat kontratatzen zuen beti, eta etorkin gehienak senegaldarrak ziren (ibai-mugaren beste aldetik etorriak). Tokiko eskulanarekin batera etorkinak kontratatzeko joera oso ohiko da nekazaritzako ustiategi komertzialetan, ez bakarrik Afrikan, eta lanindarra kontrolatzeko mekanismo zehatzak islatzen ditu. Baina interesgarriena zera da: immigranteen eta beste eskualde batzuetatik etorritako langileen zati batek, herrixkako jendearentzat ere egiten zuen lan; batez ere, diasporek bidalitako diruari edo haiek sustaturiko proiektu komunitarioei probetxua ateratzen zieten pertsonentzat. Beraz, tokiko ekonomia dinamiko samarra zeukan herrixka horrek (Mauritaniako landa testuinguruaren barruan), migrazioaren fenomenoaren inguruan landa mikrokosmosetan sortzen diren sinergia, kontraesan eta tentsioak islatzen zituen.

Eremu oso desberdinetan kokaturiko beste herrixka batzuetan, ordea, dinamikak bestelakoak ziren. Herrixka horietan, etengabeko arrisku klimatikoak, lehorteak eta animalien galerak, biztanleriaren zati handi baten muturreko pobreziarekin batera, exodo geldo baina derrigorrezko bat eragin zuen, batez ere hurbilen zeuden bigarren mailako hirietara (egiaz, errepideen alboan kokaturiko "herri" handiagoak ziren, diru iturrietarako aukera handiagoak ematen zituztenak, nahiz eta horiek ere eskasak izan). Zenbait kasutan, herri horiek pasaguneko tokiak izaten ziren, Nouackhottera joan aurretik; azken hogei urteotan, *bidonville* delakoak izugarri ugaritu dira hiriburuaren inguruko dunetan. Bestalde, eskualde kaltetu eta urruti samarretan kokaturiko beste herrixka batzuetan, iragana migrazio mugimendu askoz dramatikoagoekin loturik egon dela egiaztatu nuen. Duela belaunaldi bat eskas sedentario bihurtutako pertsona horiek, beren garai "nomadako" etengabeko mugimenduak gogoratzen zituzten, bizirik irauteko hara-hona ibiltzen zireneko garaia. Ez oso aspaldiko mugimendu horietatik, biztanleek migrazioetako batzuek eragin zuten esklabotasuna edo erdiesklabotasuna zuten gogoan; eskualdeko beste herrialde batzuetan urtean sei hilabete, eta zenbaitetan urte osoak ere bai, morroi gisa egon ziren garaia, etxera janari zaku gutxi batzuk edo oihalak eta azienda xehea baino ez ekartzeko. Denborak eta azpiegiturek ia ahaztutako garai hartan, ez zegoen aberastuta itzulitako emigrantearen mitorik. Jendeak biziraupenarekin, eskasiarekin eta mendekotasunarekin lotzen zuen migrazioa. Eta migrazio zirkulazio hura ezinezko bihurtu zenean eta taldearen ugalketarako behar adina baliabide emateari utzi zionean, taldea sedentario egin zen.

Landa-landa migrazioaren eta migrazio zirkular nahiz "triangeluarreko"[7] prozesuen garrantzia, berriz, Senegalgo Kakahuetearen Arroan gertatzen diren eskulan mugimenduak ikertzerakoan ikusi nuen. Bertan, enpresa ertain-handiak dituzten nekazari aberats samarrak aldi baterako langile etorkinak kontratatzen hasi dira, nekazaritza ekoizpen zikloko eginkizunetarako. Emigrante horiek Senegal Iparraldetik, Mauritaniatik eta Gambiatik datoz, eta baita Hegoaldetik ere (Casamance, Ginea Bissau eta Ginea Conakry). Etorkinak nekazarien etxeetan bizi ziren urtean 6-8 hilabetez, edo zenbait herrixken artean, toki bakoitzean ahalik eta egun gehien lan egi-

[7] Hau da, landa eremu batetik beste batera (nekazaritzan aldi baterako lana bilatzeko); eta hortik, lehen edo bigarren mailako eremu hiritarretara, nekazaritza jarduera gutxiko hilabeteetan.

teko. Eskulan hori kontratatzeko beharra, familietan gizon gazteen kopurua edo herrixketan tokiko eskulana murrizterakoan sortu zen. Izan ere, herrixketako gazteek bigarren mailako hirietara (Touba, Kaolak, Thies) edo Dakarrera alde egiten zuten, edota, paradoxikoki, esportaziorako beste nekazaritza zona batzuetara (Niayesetara; soldatak hobeak dira eta hiriaren gertutasunak aukera gehiago ematen ditu). Hortaz, berriro ere, bi noranzkoko fluxuak (sarrera eta irteerakoak) antzeman daitezke. Tokiko dinamika oso zehatzak islatzeaz gain, aipatutako fluxuak elkarren menpe daude. Nolanahi ere, ezinezkoa da landa eremuetako migrazioa eta haren ondorioak aztertzea mundu hiritarrari begiratu gabe. Izan ere, hiriaren eta landaren arteko mugak gero eta lausoagoak dira.

Hiriak

Dakar Mendebaldeko Afrikako hiri nagusienetariko bat izan da, eta oraindik horrela izaten jarraitzen du. Kolonizazio frantsesaren garaian, Dakar Frantziaren agindupeko gune hiritar pribilegiatuena izan zen, administrazio eraikin eta zerbitzu gehienak bertan zeudelako. Abidjan baino garrantzitsuagoa izatera iritsi zen, nahiz eta kolonialismoaren ondoko garaian hiri horrek Dakarrek baino hazkunde demografiko eta ekonomiko handiagoa izan. Edonola ere, argi dago Dakarrek ez diola hazteari utzi; azken bi hamarkadetan, hazkundea areagotu egin da, eta bertako kaos urbanistikoak 1960 edo 1970eko hamarkadetakoa soberan gainditu du. 4. mapak eta bertako zirkulu obalatu zuriak hiriko paisaian egon den aldaketa erakusten dute. Periferia izugarri zabaldu da (leherketa demografikorik handiena Pikine, Guediawaye eta Thiaroye auzoetan gertatu da); auzo berriek Dakar historikoarekin bat egin dute, Cabo Verdeko penintsulan itogune urbanistiko bat sortuz.

Leherketa demografikoak eta hiri paisaiaren aldaketak zerikusi handia dute 1970eko hamarkadaren amaieran abiarazitako prozesuekin. Alde batetik, 1970eko hamarkadako industrializazioaren ondorioz, Dakarren lana aurkitzeko itxaropenak handitu egin ziren; itxaropen horiek, ordea, ez dira bat etorri denboraren iragaitearekin eta 1980ko hamarkadaren erdialdean hasitako desindustrializazio prozesuarekin. Bestalde, nekazaritza krisian sartu eta/edo gelditu egin da, batez ere Kakahuetearen Arroan; hau da, azken bi hamarkadetan presio demografiko handiena jasan duen eskualdean. Horren ondorioz, landa inguruneko gazte asko hiriburura joan dira. Aldi berean, Dakarreko ekonomia garai berrietara “egokitu” da, “probidentzia-estatutik” “ahal duena salba dadilaren” eta “bazarreko ekonomiaren” kapitalismora igarotzearen ondorioak islatuz. Egiturazko doikuntzaren, austeritate fiskalaren eta estatuak enplegua sortzeko, ekoizpen jarduerak sustatzeko eta gizarte zerbitzuak eskala handian emateko eginkizunak pixkanaka alde batera uztearen ondorioz, jarduera informalak ugaritu egin dira, batez ere, “bazarreko ekonomia” delakoa. Azkena Senegalgo hirietako merkataritza tradizio indartsuan dago oinarrituta, eta baita ere, Europa eta Estatu Batuetako diasporak sortutako merkataritza kapitaleko sare transnazionaletan (*import-export*a eta barne merkataritza ekintzaile senegaldarren kapital metaketarako bide pribilegiatuak bihurtu dira, Dakar eta bere inguruetara berriki iritsitako pertsona askorentzako erreserba sektoreaz gain). Neurri batean, hiri espazio gero eta kaotiko eta ezegonkorrago hori atzerrira irteteko plataforma bilakatu da; diasporarekiko harremanak eta berarekin loturiko negozioek batzuei ateak irekitzen dizkiete, baina beste asko kanpoan geratzen dira.

Gainera, erreferente nazionala ez ezik, Dakar eskualde erreferentea ere bada.

Eskualdeko beste herrialde batzuetako etorkin asko erakartzen ditu, bereziki Mali eta Ginea Konakrykoak; eta azken urteotan, gatazkak jasan dituzten edo jasaten jarraitzen duten herrialdeetako pertsonak ere bai (Sierra Leona, Liberia edo Boli Kostakoak), hainbat gizarte mailatakoak. Dudarik gabe, Boli Kostan berriki gertaturiko krisiak eragin handia izan du Dakarren. Boli Kostako komunitate garrantzitsua dago hirian, eta lehen Abidjanen kokaturiko inbertsio eta kapital asko Dakarrera aldatu dira. Beraz, Dakarreko hiri aglomerazioak Mendebaldeko Afrika bereizi izan duten populazio mugimenduetako asko hartzen ditu bere baitan –batez ere, "gaurko" migrazioak–.

Senegalgo barne eta nazioarteko migrazioaren prozesu, kontraesan eta erronketako batzuk laburbiltzen dituen beste hiri espazioa Touba da, *Mouridisme*aren hiri santua.[8] Hiriak izugarrizko hazkundea izan du azken hamarkadetan, eta ezin hobeki islatzen ditu merkataritza kapital transnazionalizatuaren garapenaren (Europa eta Estatu Batuetan finkatutako merkatarien diaspora; New York-Dakar-Hong Kong artean etengabe mugitzen dira) eta nekazari exodoaren ondorioen arteko kontraesanak. 1965ean 5.000 biztanle izatetik, hiria 450.000 biztanle edukitzera pasa zen, datu ofizialen arabera; urteko garai jakinetan milioi bat ere izan daitezke.[9] Hirian kontraste handiak daude modernotasunaren eta tradizioaren artean. Alde batetik, Italiatik ekarritako luxuzko materialez egindako etxeak eta Europa eta Estatu Batuetako produktuez hornitutako supermerkatuak ikus daitezke; baina eguneroko lanaren eta merkataritzako eragiketen gainetik, mistizismoa eta debozio erlijiosoa dira nagusi. Ezaugarri erdi-kalbinistak dituen *Mouride* ideologia bera itxurazko kontraesan edo alde horien euskarria da.

Migrazioei dagokienez, kontrasterik handienak hirian bizi diren etorkinen artean antzeman daitezke. Alde batetik, landa inguruetako etorkinak daude (Iparraldetik eta Kakahuetearen Arrotik eta *Baol Baol* eskualde historikoetatik datoz, batez ere). Nekazaritzaren krisiak bultzatuta eta hiriaren itxurazko aberastasunak erakarrita etorri dira Toubara, eta baita ere, hiri santuak nolabaiteko "babesa" eta elkartasun erlijiosoa eskainiko diela uste dutelako. Pobrezia Touban ere agerikoa den arren, senegaldarrentzat, hiria gobernuaren kontroletik kanpo dagoen "ongizatearen mini-estatu" bat da, *Mouridismoa*ren estamentuei legitimitate sozial are handiagoa ematen diena. Landatik iritsitako etorkinak Toubaren mugak norabide guztietan zabaltzen ari dira, 5. mapako zirkuluak alderatuz ikus dezakegunez (zirkulu handiak hiri-herrixkaren jatorrizko kokalekua adierazten du, eta txikiak hiriaren zabalkunde zirkularra). Hiri espazioaren posizio zentralak eta inguruko lurraldearen morfologia lau eta erdiaridoak hedapen horri mesede egin diote, hiria kostaldearekin eta Kakahuetearen Arroaren bihotzarekin lotzen duten komunikazio azpiegiturekin batera. Emigranteen beste talde nagusia nazioarteko diaspora da, batez ere Italia eta Espainian kokaturikoa. Pertsona horiek Toubara joaten dira oporretara, eta familiei bidalitako kapital metatua ere bertan berrinbertitzen da[10]. *Mouride* diasporak funtsezko eginkizuna izan du Toubaren dinamismo ekonomikoan. Izan ere, gizarte azpiegituren garapena ez dago estatuaren menpe (hiria erabat autonomoa

[8] *Mouridismoa* Senegalen tradizio handia duen ermandade islamiko bat da, eta, beharbada, azken hamarkadetan gehien hedatu dena, neurri batean, dizipuluen (*talibe*) diasporaren arrakastari esker eta botere politikoaren eta *Mouride*en artean betidanik egon diren harreman estuei esker.

[9] Véase Gueye (2002).

[10] Ikus Riccio (2001).

da); azpiegiturak *Mouridism*oaren buruzagiek kudeatzen dituzte, diasporaren ordezkari arrakastatsuenen (*Moodu-Moodu* delakoak[11]), Senegalen kokaturiko merkatari eta enpresari *Mouride* handien eta hainbat gizarte mailatako milaka *talibe* hiritar edo landatarren ekarpenen laguntzarekin.

Toubaren autonomiaren, bertakoak merkataritza informal edo ez erregistratuan edo kontsumo ondasunen inportazioan aritzearen eta diasporaren eta Senegalgo gobernuaren artean harremanik ez egotearen ondorioz, herritarrei gero eta gutxiago axola zaie estatua bizitza ekonomikotik "urrundu" izana, eta 1980ko hamarkadaren hasieratik Senegalen ezartzen joan den liberalizazio ekonomikoaren alderdi asko babesten dituzte. Hain zuzen ere, Touba, merkatari eta inportatzaile *Mouride*ak eta *Moodu-Moodu*ak, 1980ko hamarkadaren hasierara arte Senegalgo ekonomia politikoa bereiztu zuen interbentzionismo estatalaren aurkako eta askatasun ekonomikoaren aldeko defentsaren adierazgarriak dira. Zalantzarik gabe, egoera horrek talka egiten du barne migraziorako izangaiek (herrixketatik hirietara doazenek) eta nazioarteko migraziorako izangaiek (kaiukoetakoek) duten babesgabetasun sentimenduarekin. Izan ere, horien ustez, gobernuak oso gutxi egin du azken urteotan hiri espazio berrietan pilatu den langile gazteen erreserba gero eta handiagoa xurgatzeko, edota neoliberalismo ekonomikoaren atzaparretan eroritako soroetatik alde egin nahi dutenei laguntzeko.

Beraz, "hiriak" eta horiek kanpoaldearekin zein "barrualdearekin" dituzten loturak funtsezko elkargune dinamikoak dira Afrikako eskualde hori bereizten duten ohiko biztanleria mugimenduei eta azken urteotan Espainiarekiko (migrazioaren helmuga) sortzen ari diren harreman gero eta handiagoei dagokienez. Hiriek, gainera, 1970eko krisialdia gertatu eta erregulatzeko modua aldatzen hasi zenetik Afrika Azpisahararrean orokortu diren politika eta metaketa erregimenen kontraesan asko islatzen dituzte. Hiriak, berez, gizarte aldaketen hazia dira; eta aldaketa horiek ia beti azkartu egiten dira hainbat jatorri, gizarte maila eta ideologiatako emigranteen etorrera nahiz irteerarekin.

Kaiukoak

Orain abiapuntura itzuliko gara; beren bizitza arriskatuz, itsasoa kaiuko famatuetan zeharkatzen duten milaka gazteen irudi ikusgarri eta dramatikoetara. Kaiukoak garai berrien metafora dira. Alde batetik, hedabideei eta batez ere helmugara iristea lortu duten emigranteen istorioei esker, mundu garatua gero eta hurbilago dago afrikarrentzat. Baina, bestetik, mundu garatuak gero eta oztopo legal, teknologiko, ekonomiko eta sozial gehiago jartzen dizkie emigrante azpisahararrei. Gazteen etsipenaren zenbaterainokoa ez ezik, kaiukoetan egindako bidaiek optimismoa ere islatzen dute. Iparraldera iristea lortu zutenen hurbiltasunak sortzen du optimismo hori, *Moodu-Moodu* edo *Faatou-faatou* delako irudien inguruko mitoekin batera (merkatari senegaldarrak dira, Iparraldearen –Europa, Estatu Batuak– eta beren jaioterrien –Touba, Dakar eta Kaolack, batez ere– artean bizi direnak). Aipatutako irudi eta arrakasta ereduek senegaldarren imaginarioan izan duten mitifikazioa da azkenaldian gertatu diren gazte oldeen gakoa, pertsona arrakastatsu horiek helmugaren (adibidez, Espainia) eta jatorriaren artean sortzen dituzten loturekin batera. Migrazio hori

[11] *Moodu-Moodu*en esanahiari, haiekin loturiko mitoei eta Senegalgo egungo kultura nahiz balioetan duten eraginari buruz, ikus Ndiaye (1998).

eskaintzan dago oinarriturik, ez eskarian; ez dago, ezta ere, besteren konturako lan bat eskuratzearen menpe, ongi antolatutako sare batekin harremanetan jartzeko aukeraren menpe baizik. Sare horrek saltzaile ibiltari gisa lanean hasteko laguntzak ematen dizkio etorkinari, eta transnazionalitatutako merkataritza kapital senegaldarra da bere euskarria.

Alabaina, emigrantearen arrakasta ez da beti mito bat izaten. Datuek erakusten dutenez, diru bidalketek izugarrizko garrantzia hartu dute Senegalgo ekonomiarentzat, 500 milioi dolarrera iritsi baitira (ikus 1. grafikoa). Zenbait analistaren iritziz, zenbatutako kopuruak benetako kopuruen %60-70 izan daitezke, eta, beraz, bidalketen benetako eragina are handiagoa da[12]; batez ere kontuan izanik funts horiek onuradunei zuzenean iristen zaizkiela, eta batzuetan komunitateen artean banatzen direla. Horri esker, sektore publikoaren presentzia gero eta txikiagoaren ondorioak arintzen dituzten ongizatearen mini-estatuak sortu dira. Gainera, bidalketen eragina oso agerikoa da; izan ere, neurri handi batean, eraikuntza pribatuaren sektorearen *boom*a azkartu duten ondasun higiezinetako inbertsioak ekarri dituzte. Sektore hori Senegalgo hazkunde ekonomikoaren eragile dinamikoenetako bat izan da azken bost urteotan.[13]

Kaiukoen krisia izebergaren muturra baino ez da. Senegalgo ekoizpen sarea etengabe ahultzen doa, eta gazteek gero eta zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko, baita sektore informalean ere. Gainbehera prozesu hori senegaldarrek politikarien promesekiko duten mesfidantza gero eta handiagoan islatzen da, eta, baita ere, familiek eta gizabanakoek gobernuagan duten konfiantza eskasean, duela 30 urte zutenarekin alderatuta. Orduan, izan ere, probidentzia-estatuak aginpide ia aitatarra zeukan biztanle askorentzat. Kapitalismo neoliberalaren logikaren aurrean, “garapen nazionaleko” proiektuek

1. Grafikoa. Senegalera zuzenduriko diru bidalketak (milioi dolarretan)



[12] Serigne Mansour Talleri egindako elkarrizketa, Dakar, 2006ko uztaila. Beste ikertzaile batzuek, adibidez Fallek (2002), diotenez, bidalketen guztizko bolumena kalkulatzeko, zenbatutako kopuruak hirukoiztu egin beharko lirateke.

[13] Ikus Tall (2000).

porrot egin dute, biztanleen nahiak eta itxaropenak mugatuz, eta klase intelektual eta administratiboan nolabaiteko kezka eta etsipena sorraraziz. Egoera horrek sektore publikoarekiko eta estatuaren ekintzekiko mesfidantza areagotu du, familien eta interes korporatibo zehatzak babesten dituzten taldeen ekintzen mesedetan. Testuinguru horretan, Iparraldera emigratzea obsesioa bihurtzen da gazteentzat, Senegalen nahiz eskualdeko gainerako herrialdeetan aukerak agortu egin direlako.

Obsesio eta nahi horiek, ordea, ezingo lirateke gauzatu emigranteen trafiko sareen testuingurua 2006an aldatu izan ez balitz. Orduan, Senegalgo egoera ekonomiko eta soziala ez zen hiru edo lau urte lehenago zegoenetik oso desberdina; hipotesi hori berresteko daturik ez dago behintzat. Beraz, litekeena da duela gutxiko oldeak Maroko eta Mauritaniatik lan egiten zuten trafiko sareen kontrolean egindako aldaketen ondorioa izatea. Aldaketok aipatutako herrialdeetako gobernuen, Espainiako gobernuaren eta EBren arteko akordioen emaitzak izan dira. Akordio horien eta emigrante batzuek Senegalgo kostaldetik Kanarietara itsasoz iristea lortu izanarekin ondorioz, ibilbide berri bat ireki zen berehala. Ibilbide hori, gainera, Maroko edo Mauritanian zehar egindakoa baino askoz merkeagoa da; izan ere, Senegalgo arrantzale asko eta askok, arrain eskasiak bultzatuta, emigranteentzako kaikukoak egiten dituzte orain. Gazteenek bidaia 300 euroren truke egin dezaketela uste da (Jabardo 2007: 54). Aldiz, hegazkinez iristeko edo Sahara zeharkatzeko, etorkin askok 2.000 eta 4.000 euro artean ordaindu behar izaten zituzten, eta, dudarik gabe, aldea oso handia da.

Kaiukoen fenomenoa, beraz, azpiko egiturazko arrazoien, epe ertainerako joera berrien eta denborazko baldintzen batura izango litzateke. Kaikukoak migrazio fluxu azpisahararren joera berrien metafora dira; fluxu globalizatuago eta beharbada ausartago batzuen isla.

Amaitzeko: oparotasunera bidaiak?

Ponentzia honetan Mendebaldeko Afrikatik, eta bereziki Senegaletik, Espainiara doazen egungo migrazio fluxuak interpretatzen saiatu naiz, beren testuinguru historiko eta geografikoaren barruan. Testuinguru horrek migrazioak Mendebaldeko Afrikako gizarte eta estatuen sorreran duen funtsezko eginkizuna erakusten du. Historikoki, barne migrazioa eta eskualde barrukoa izan dira migrazio fluxu nagusiak, eta oraindik horrela izaten jarraitzen dute. Aldiz, Iparralderako emigrazioa nahiko fenomeno berria da. Ondorio orokor gisa zera azpimarra dezakegu, batez ere fluxu berrienei dagokienez: esperientziak eta migrazio fluxuak oso anitzak diren arren, emigratzeko erabakiak, banakakoa nahiz taldekoa izan (familiarena, komunitatearena edo beste talde batena), erresistentzia mekanismo gisa *exit*ak (irteerak) duen garrantzia islatzen du sarritan, *voice*aren gainetik.

Kaiukoen errealitateak zein metaforak eta Senegal bezalako herrietako gazteei gero eta gehiago eragiten dieten migrazio joera berriek (Jabardo 2006: 55), halaber, *posibilitatea*ren eta *probabilitatea*ren arteko tentsioa eta lehenaren nagusitasun erlatiboa islatzen dute. Horrela, kaiukoen fenomenoak, abentura izugarri arriskutsua izan arren, *posibilitatea*ren logika gailentzen dela uzten du agerian; hau da, *baten* arrakastak beste askoren porrota konpentsatzen du. Ez dira probabilitateko kalkuluak, gizabanakoen erabaki "arrazionalen" prozesuak imitatu nahi dituzten eredu matema-

tiko konplexuetan aztertzen direnak bezalakoak. Arrakasta izateko posibilitatea, berau lortzeko edo imitatzeko baldintzak erdiesteko probabilitatea txikia izan arren, nahikoa da xede baten alde borrokan hasteko. Horri gizabanakoaren eta taldearen arteko tentsioa gehitu behar zaio. Gainera, egungo balio aldaketaren ondorioz, gizabanakoari lehentasuna ematen zaio familia edo taldearen gainetik: orain *self-made man (woman)* senegaldarra goraipatzen da, hau da, *Moodu-Moodu* eta *Faatu-Faatu* delakoa.

Lurralde ezezagun eta beharbada ezinezkoetarako migrazio azpisahararren itxurazko paradoxak ulertzeko, ezinbestekoa da jendeak hobeto ordaindutako lan bat aurkitzeko bakarrik emigratzen duelako ideia baztertzea. Hirietarako migrazio fluxuak horren adibidea dira. Hiriek, izan ere, gero eta lanpostu duin gutxiago eskaintzen dizkiete heldu berriei. Sarritan, hirietarako emigrazioaren arrazoiak gizarte azpiegiturei eta "aukerei" (edo probabilitateei) dagokienez landaren eta hiriaren artean dauden alde handiak izaten dira.

Laburbilduz, gaurko migrazio mugimenduak iraganeko mugimenduen eta aldi berean egungo egoeraren isla dira; gaur egun ere, jendea etengabe mugitzen da eta erronka berriak sortu dira, batez ere gazteentzat. Ezin dugu ahaztu desberdintasunez beteriko kapitalismo "global" eta dinamiko horretan, migrazioa *beharrezkoa* dela (ez bakarrik *aukera* bat) emigranteentzat edo emigraziorako izangaientzat. Aldi berean eta mundu mailan, migrazioa kapitala hedatzeko eta langileria kontrolatu nahiz banatzeko *tresna* bat da, "nazioarteko eskulan erreserbak" eta sistemaren "hondakinak" metatzen doazen bitartean. Nolanahi ere, askorentzat, bereziki "munduan beren tokia aurkitu" nahi duten pertsona horientzat (senegaldarrak, maliarrak, burkinabeak, espainiarrak...), emigrazioa izan daiteke, bai, "oparotasunerako" bidaia bat. Oparotasun horrek, ordea, "aurpegi itsusia" du, apaindura edo erromantizismorik gabea; kapitalismo gero eta globalizatu eta bidegabeago baten metafora baino ez da.

Erreferentzia bibliografikoak

Adepoju A. (2003): *"Migration in West Africa", Development,* 46 (3).

Amin, S. (1974): "Modern Migrations in Western Africa", in S. Amin (ed.) *Modern Migrations in Western Africa*, pp. 65–124. London: Oxford University Press.

Austin G. (2005): *Labour, Land and Capital in Ghana: From Slavery to Free Labour in Asante, 1807-1956,* Rochester, NY: University of Rochester Press.

Baro M. eta S. Batterbury (2005): "Land-based Livelihoods", B. Wisner, C. Toulmin eta R. Chitiga (ed.) *Towards a New Map of Africa* lanean, London: Earthscan.

Castles S. eta M. J. Millar (2003): *The Age of Migration. International Population Movements in the Modern World*, London: Palgrave MacMillan.

Fall, A. S. (2002): "Enjeux et défis de la migration internationale de travail ouest-africaine", *Cahiers de Migrations Internationales* 62F. Genève: IOM.

Guèye, C. (2002): *Touba: La capitale des mourides*. Dakar/Paris: CNDA – Karthala.

Hugon P. (1999): *L'économie de l'Afrique*, Paris: La Découverte.

Jabardo M. (2006): "Nuevas perspectivas para pensar la inmigración senegalesa",

Afkar-Ideas Políticas, 12. zkia.

Lovejoy P. (2000): *Transformations in Slavery*, Cambridge: Cambridge University Press.

Ndiaye, M. (1998): *L'Ethique Ceddo et la Société d'Accaparement*. Dakar: Presses Universitaires de Dakar.

Nugent P. (2007): "Migración, fronteras y creación del Estado: comparación de los patrones del África Occidental y del Sur", *Nova Africa*, 20. zkia., 7-26. orr.

Oya C. (2001): "Large and Mid-scale Farmers in the Context of Liberalization" *Journal of Agrarian Change*, 1 (1).

Parker J. eta R. Rathbone (2007): *African History: A Short Introduction*, Cambridge University Press.

Riccio B. (2001): "From "ethnic group" to "transnational community"? Senegalese migrants' ambivalent experiences and multiple trajectories", *Journal of Ethnic and Migration Studies*, Volume 27 (4), pp. 583 - 599

Sender J. eta S. Smith (1986): *The development of capitalism in Africa*, London: Methuen.

Sutcliffe B. (1998): *Nacido en ninguna parte: Un ensayo sobre la migración internacional, el desarrollo y la equidad*, Bilbo: Hegoa.

Tall, S. M. (2000): *Les investissements immobiliers à Dakar des émigrés Sénégalais*, Thèse de géographie, Université Louis Pasteur, Strasbourg.

Eranskina

1. diagrama. Afrikako migrazio mugimenduen azalpen historiko baterantz



3. Mapa. Landa lanaren eremuak Senegal eta Mauritaniako herrixketan



4. Mapa. Dakar eta bere inguruak

5. Mapa. Toubaren hedapena



6. Mapa. Touba, tradizioaren eta modernotasunaren artean



Lokalismoa, globalizazioaren beste amarru bat: hiru mito eta proposamen bat

Víctor de Currea-Lugo.
Doktorea da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsetik

1. Globalizazioaren gaineko zehaztasun kontzeptual bat

Lehenik eta behin, hasteko, orain dela gutxi berrirakurri nuen testu baten paragrafo bat aipatu nahi dizuet; honelaxe dio: "Merkatu berriak aurkitzeko beharrizanak bultzada ematen dio burgesiari, eta hala planetako bazter batetik bestera jotzen du (...) Garai batean zeuden industria nazionalek behea jotzen dute (...) Gaur egun, ez da nagusi garai bateko merkatu nazional hura, bera bakarrik ondo moldatzen zena eta kanpoko ezeren beharrik ez zuena. Orain, merkataritzako sarea unibertsala da, eta sare horretan estatu guztiak sartzen dira, elkarren arteko mendekotasunezko lokarriz josita".

Paragrafo hori ez du idatzi Ekonomiako Nobel saria jaso berri duen pertsona batek XXI. mendearen hasieran. Ez, lerro horiek XIX. mendearen erdialdean idatzi zituen Karl Marx izeneko gizon batek[1]. Marxek lerro horiek idatzi zituenean, merkatua nazioarteko bihurtzen ari zen. Orain, aldiz, finantza-kapitala eta ekoizpena bera ari dira nazioarteko egiten; baina, hitzaldi honi dagokionez, ez dago alde handirik.

Horrekin guztiarekin, ideia bat azpimarratu nahi dut bakarrik: globalizazioa izeneko zera hori kapitalismoaren aldi berri bat besterik ez da, eta aldi berri honetan aditzera ematen da Estatu-nazioa krisian dagoela[2]. Baina estatua ez dago krisian *per se*, zahartzen eta "berez" heriotzara hurbiltzen ari den gizakiaren gorputza izango balitz bezala. Ez, estatuaren kasua, gizakiaren asmakizun guztiekin gertatzen den bezala, ondo hausnartutako erabakien ondorioa da. Egungo estatua dagoeneko ez da funtzionala kapitalismoarentzat, eta, beraz, kapitalismoak, aldi berri honetan, eraldatu egiten du estatua. Lehenago, monarkiaren aurrean, Estatu-nazioa aldarrikatu zuen modu

[1] MARX, Karl, ENGELS, Friedrich: *Manifiesto del Partido Comunista*, 1848.

[2] Estatua, berez, Erdi Aroaren ondoko alderdi politikoen bereizgarria da, alegia, Estatua, berez, modernoa da. Ikusi: BOBBIO, Norberto: *Stato, governo, società. Per una teoria generale della Politica.* Giulio Einaudi editore, Torino, 1985. Kontsultatutako edizioa: *Estado, Gobierno y Sociedad. Por una teoría general de la política.* Fondo de Cultura Económica. José F. Fernández Santillánen itzulpena. Mexiko, 1989, 89-92 or.

berean, orain, berriz, kapitalismoak uko egiten dio estatuari, oraingo bertsioan behintzat. Kapitalismoa Saturno bezalakoa da: ez du zalantza egiten, eta, beharra baldin badu, irentsi egiten ditu bere seme-alabak.

Nolanahi ere, iruzurra hauxe da: uste dugu hainbat globalizazio daudela, baina kontua ez da horrela; kontua da kapitalismoaren aldi berberaren adierazpide desberdinak daudela, alegia, gertakari berberaren abiadura desberdinak daudela. Egun hauetan, itxura batean, konplexutasun handia dugu hizkuntza-aldetik, polisemia da nagusi, alderdi askoko zerak, balio-aniztasuna, kultura-aniztasuna, nazio-aniztasuna eta diziplina-aniztasuna; eta, hortaz, bada, ematen du globalizazioa kapitalismo aurreratua baizik ez dela esatea sakrilegio txiki bat dela, baina horixe besterik ez da: gaur egun dagoen Estatu-nazioaren eredua gainditu nahi da, orain Estatu-nazioa baita lehentasunezko esparru politiko-ekonomikoa kapitala arautzeko garaian, eta kapital hori, beraz, hainbat modutara ematen baita aditzera, hala nola, finantza-merkatua nazioarteko bihurtuz. Estatu-nazioa ez da desagertuko; aitzitik, beste logika batera egokituko da. "Azken batean, honek guztiak esan nahi du "bigarren iraultza kapitalista" dugula aurrean. Hau da, modu globalean garatu den eta ideologia politikoa duen kapitalismoaren garaipenaren aurrean gaude (...), eta horri honela esaten zaio: neoliberalismo politiko eta ekonomikoa"[3].

Egia da globalizazio horrek hainbat adierazpide dituela. Gehien aipatu ohi direnak honako hauek dira: teknikaren eta komunikazioen globalizazioa (baina kontuan izan behar dugu teknika horretaraino iristeko bidea ez dela unibertsala; Kofi Annanek esaten zuenez, gizateriaren erdiak baino gehiagok sekula ez du telefono-dei bat egin, ez eta jaso ere[4]); kulturaren globalizazioa (kontsumoko ereduak masifikatu dira); globalizazio ekonomikoa eta finantzarioa ("munduko industria-ekoizpenaren heren bat baino gehiago enpresa transnazionalek egiten dute[5]), politikaren globalizazioa (eredu kapitalistaren garaipenaren adierazpena), eta abar. Alabaina, adierazpide horiek gorabehera, horrek ez du esan nahi globalizazioa askotarikoa denik (globalizazioak direnik, alegia); izan ere, kapitalismoa garatu zenean, prozesua ez zen lineala eta bateratua izan, eta, hala ere, ezin dugu esan hainbat kapitalismo izan zirenik.

Argi dago globalizazioak alderdi onak dituela, benetan gauzatu zen sozialismoak eta kapitalismoak berak izan dituzten bezala: Pinocheten diktadurak ere alde "onak" izan zituen, baina ondo ikusi beharko genuke zein izan ziren gauza on horiek eta norentzat izan ziren onak; eta ikusi beharko genuke ea dena delako abantaila hori azken helburu bat ote den, edota, modan dagoen hizkeran adierazita, ea "kalte kolateralak" baizik ez diren, alegia, ez direla prozesu globalizatzaileak azken helburu gisa bilatu dituen onurak. Kapitalismoa, kapitalismoa da, berdin dio zein izen ematen diogun, dela merkatuko ekonomia, dela globalizazioa. Globalizazioa kapitalismoaren aldi berri bat baldin bada, ezin dugu esan "baliteke beste globalizazio-mota bat egitea", beste kapitalismo-mota bat egin daitekeela edo beste matxismo-mota bat egin daitekeela esatea ezinezkoa den bezalaxe. Globalizazioa ez da izan litekeena, globalizazioa da oraintxe den horixe bera. Hortaz, ezin dugu nostalgiarik izan, sekula izan ez den globalizazio bat dela eta.

[3] FARIÑAS DULCE, María: *Globalización, ciudadanía y derechos humanos,* Madril, Dykinson, 2000, 10 or.

[4] ANNAN, Kofi/NAZIO BATUEN ERAKUNDEA: *Nosotros los pueblos: la función de las Naciones Unidas en el siglo XXI*, 2000ko apirilaren 3a, 54 paragrafoa.

[5] DE SOUSA SANTOS, B., hemen aipatua: FARIÑAS DULCE, María: *Globalización, ciudadanía y derechos humanos,* Madril, Dykinson, 2000, 6. or.

Gaur egun, inoiz baino ondasun gehiago besterentzen da gizartean, eta gaur egun sekula baino aberastasun gehiago dago munduan; alabaina, txiro gehiago dago eta, gainera, aberatsen eta txiroen artean dagoen aldea gero eta handiagoa da. Nazio Batuen Garapen Programari jarraiki, 1999. urtean, munduko hiru pertsonarik aberatsenek zituzten aktiboak gutxien garatuta dauden herrialdeetako 600 milioi biztanleren barne-produktu gordinaren parekoak ziren[6]. Frantzian, 1999. eta 2000. urteen artean, han zeuden lehenengo 500 aberastasun pertsonalek %67ko igoera izan zuten, eta, aldi berean, gutxieneko soldata %3,2 baizik ez zen igo[7]. Gaur egun, inork ez du borrokatzen lan duin bat lortzeko, gaur egun aski da edozein lan eskuratzea, nahiz eta lan-baldintzak esklabutzaren modukoak[8] izan, sindikaturik gabe, gutxieneko soldatarik gabe eta ordutegirik gabe. Gaur egun, amets gutxiago dago, eta amesgaizto gehiago. Gaur, sekula baino gehiago, kontu guztiak daude merkatuaren mendean: hasi informazio genetikoarekin, eta ilargira joateko bidaiekin bukatu, nazioarteko lankidetza ere aintzat hartuta.

Estatu-nazioaren krisiari dagokionez, tartean dagoen hautabide bakarra da "gutxieneko estatua" izen okerrarekin gaizki deitutako aukera: administrazioaren monopolioa deszentralizatzea, arlo lokalean[9] ere bai, eta estatua murriztea bere adierazpenik txikienean utzita. Izan ere, estatuak ondo bete zuen bere zeregina kapitalari zerbitzatzen, bai, behintzat, aurreko bi mendeetan estatu-nazioa ulertu genuen gisan. Gaur egun, Estatu-nazioaren etsaia kapitalismoa bera da, alegia, garai batean estatu-nazioa aldarrikatu zuen horixe bera. Baina kontua ez da zehazki gutxieneko estatua: estatu horri esker, finantza-bankua onik eta bizirik atera zen krisialdietatik, eta orduan estatuaren esku-hartzea justifikatu zen. Hala, beraz, zergatik ez utzi bankuak merkatuaren "bidezko indar arautzaileen mende", eta ospitaleak bai? Izan ere, desagertuko dena ez da Estatu-nazioa, baizik eta estatu horrek gizarte-arloan dituen instituzioak: ez Indar Armatuek, ez eta burokraziak ere, ez dute honen guztiaren kalte handirik hartu.

Estatu-nazioa indar osoz agertzen da bankuak onik atera daitezen hala behar denean, edo herriko mugimenduak zapaldu behar direnean, edota enpresa transnazionalen aldeko legeak aurrera atera behar direnean; horrelako kasuetan, ez dago gutxieneko estaturik. Neoliberalen harrotasuna den Txileko ereduak ez zituen kobrezko meatzeak pribatizatu, ondo baitzekien guztiz estrategikoak zirela diktadurarentzat: han, ez zen neoliberalismorik izan. Hala, beraz, Estatua oraindik ere funtsezkoa da merkatuarentzat, eta ez merkatua kontrolatzeko, baizik eta tresna gisa baliatzeko. "Merkatu librea, instituzio gisa, estatuko botereak sortu duen zera bat da (...), eta bizirik iraungo du Estatuak herritarren arriskua kontrolatzeko eta segurtasuneko zereginak bere mendean dituen bitartean"[10].

---

[6] UNDP: *Human Development Report 1999,* New York, Oxford University Press, 3 or.

[7] TEITELBAUM, Alejandro: *La crisis actual del derecho al desarrollo,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 2000, 14 or.

[8] Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) orain dela gutxi aditzera eman zuenez, bakarrik Brasilen, 25.000 pertsona bizi dira esklabotzako baldintzetan. LANEren ustez, Latinoamerikan eta Kariben 1,3 milioi pertsona daude esklabo bihurtuta bezala, ezinbestean nahitaezko lanak egitera behartuta. Jarduera horien adibideak ikusteko, begiratu hemen: LANE: *Trata de seres humanos y trabajo forzoso como forma de explotación,* Ginebra, 2006.

[9] Kasu honetan lokalismoa nazioz azpiko kontuei dagokie, alegia, Estatu-nazioaren barruan dauden eskualdeei eta herriei (berdin dio eskualde edo herri politiko, ekonomiko edota geografikoak diren).

[10] MARTINEZ DE BRINGAS, Asier: *Globalización y derechos humanos,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 2001, 37. or. Lan honek, oro har, argi eta garbi azaltzen du gutxieneko estatuaren mitoa.

"Gutxieneko estatua" izen okerrarekin deitutako zera horrek lortu nahi duena ez da bakarrik estatuaren tamaina murriztea; ez, logika berri bat eratu nahi du Estatuaren eta pertsonaren arteko harremanetan, eta, horretarako, giza eskubideak erlatibizatu nahi ditu eta tresna berriak sortu nahi ditu gizartea antolatzeko: orain, sarritan aipatzen dira deszentralizazioa, fokalizazioa edo ardaztea, erkidegoaren parte-hartzea, eta horrelakoak. Deszentralizazioak huts egin du tresna gisa, eta erkidegoaren parte-hartzeak ere bai; horiek denak Munduko Bankuak berak gomendatu dituen estrategiak dira, xede bakar hauxe lortu nahi baita: gizarteak bere gain har ditzan berez Estatuari dagozkion zereginak. "Baterako gobernu" faltsu horrek gizartearen bizkar uzten ditu Estatuari dagozkion zereginak, eta ez dio erantzukizunik eskatzen Estatuari, gizartemugimendua desmobilizatzen du, eztabaidak ardatzik gabe uzten ditu, eta lortzen du botereak bere horretan iraun dezan, ezertan ukitu gabe, nahiz eta gobernua beste esku batzuetara joan.

Joera neoliberala ate joka dago Europako atarian bertan: Suedian urrats izugarri handiak egin dira osasun-arloa pribatizatzeko; Frantzian dagoen arazorik handiena etxebizitzen gabezia da, eta arazo hori duten pertsonei "Sans domicile fixe", "etxe finkorik gabekoak" esaten zaie; Europa osoan langile arruntak lehia bizian ari dira etorkinekin lan-merkatuan, eta borroka horretan kapitalak irabazten du, era horretan langileria areago eta txiroagoa izango delako. Neoliberalismo hori berriro ari da esaten etorkizunean kontuak askoz hobeto egongo direla, eta etorkizun oparoa daukagula aurretik. Baina badira 500 urte Latinoamerika etorkizun oparo horren zain dagoela, eta oraindik ez dugu inondik ikusi.

Globalizazioa ez da "errealitate neutral eta saihestezin bat"; gizakiek sortu zuten eta, beraz, gizakiek dute bera aldatzeko ahalmena. Ez da neutrala, edo, hobeto esanda, ez da kapitalismoa baino "neutralagoa", ez eta benetan gauzatu zen sozialismoa baino neutralagoa ere. Ez da neutrala, globalizazioak bere baitan duen diskurtsoa guztiz bateraezina delako Estatu sozialarekin; eta, hortaz, abiaburutik bertatik (ez helmugan bakarrik) gizarte-eskubideei uko egin behar dielako[11]: esate baterako, neoliberalismoan, guztiz ezinezkoa da osasunerako eskubideari eustea[12]. Egia da eskubide horiek sekula ez direla ondo bateratu kapitalismoarekin, baina, aurreko garaietan –besterik ez bada ere, tartean arrazoi instrumentalak zeudelako (esate baterako, komunismoaren aurrerapena geldiarazteko, langileek zuten eskuratzeko ahalmena handitzeko, eta abar)– eskubide horiek ezarri eta hobetu ziren. Globalizazioa ez da gertaera "natural" bat, ezta urrik eman ere, ez da teknikaren produktu aseptiko bat. Neoliberalek "asepsian oinarritzen dute haiek lortu nahi duten errugabetasun hori; baina, azken batean, guztiz parekoak dira jokaera hori eta pertsona bati bultzada eman eta hamargarren pisutik behera bota ondoren, heriotza hori zuritzeko, grabitatearen legea aipatzen duen gizakiaren arrazoibidea"[13].

Beste batzuen iritziz, giza eskubideak nazioarteko bihurtzea globalizazio-prozesuaren barruko zati bat da, baina hori ez da egia. Giza eskubideak izaera unibertsala izate-

[11] HAYEK, Friedrich: *The Constitution of Liberty,* University of Chicago Press, 1959.

[12] DE CURREA-LUGO, Víctor: "La encrucijada del derecho a la salud en América Latina", hemen: YAMIN, Alicia (argit.) *Los Derechos Económicos, Sociales y Culturales en América Latina: del invento a la herramienta*, Plaza y Valdes, Mexiko, 2006, 215-234 or.

[13] ARRIZABALO MONTORO, Xavier: *Milagro o quimera. La economía chilena durante la dictadura.* Los libros de La Catarata, Madril, 1995, 125 or.

ko asmo garbiarekin jaio ziren, kapitalismoak –ondo finkatuko bazen– mugak behar zituen garai batean jaio ere. Hala, Nazioarteko Gorte Penala bezalako ahaleginak ez dira, inola ere, globalizazioaren adibideak. Nabaria da industria farmazeutikoen eta medikamentuak eskuratu behar dituztenen artean dagoen tentsioa; nabarmena da, halaber, "laneko malgutasuna"[14] izeneko politiken eta langileen eskubideen artean dauden tirabirak; ageri-agerikoa da elikatzeko eskubidearen eta herrialde txiroetan nekazaritzako merkatua nahitaez irekitzeko beharraren arteko tentsioa. Azken batean, laburbiltze aldera, nabaria da giza eskubideen eta nazioarteko merkataritza-akordioen artean dagoen tirabira; eta horrek argi erakusten digu gaur egun giza eskubideak ez daudela globalizaturik (globalizazioa esaten zaion horren zati bat izango lirateke orduan); aitzitik, giza eskubideen aldeko borrokak hortxe irauten du, globalizazioa gorabehera, edo, hobeki esanda, globalizazioaren aurka.

Beste batzuek, berriz, sarriago aipatzen digute "zirkularitate etereo" bat dagoela globalizatuta dagoen pertsona horri dagokionez, begien bistakoa dena ukatzen duen sare sozial bat, zentralitate-aniztasun bat: baina, dena dela eta esanak esan, txirotasuna eta txirotasun hori sortzen duen esplotazio kapitalista bene-benetakoak dira. Esaten digute globalizazioak zehatz-mehatz erabakitzen dituela gizakiaren alde guztiak, baina, ez al zituen, bada, feudalismoak artea eta etika zehatz mugatu? Errenazimentua ere ez al zen nabarmenki erabakigarria izan garai hartako gizakiarentzat? Bobbioren arabera, hiru eremuk baldintzatzen dute dena, hain zuen, honako hauek: botere ideologikoak, ekonomikoak eta politikoak[15]. Hala neoliberalismoak nola benetan gauzatu zen sozialismoak, hala faxismoak nola kapitalismoak, denek ezarri nahi digute munduaren kontzepzio zehatz bat, eta ondasunen kontrola eta jendea hertsatzeko tresna batzuk. Hortaz, bada, gizaki determinatua/hertsatua lortzeko dagoen bilaketa hori ez dagokio soilik globalizazio kapitalistari. Enpresak pribatizatzeak, merkatu askeak, mugarik gabeko finantza-merkatuak, desarautze juridikoak eta beste holako alderdi batzuek gizaki berezi bat sortu dute, jakina, Erdi Aroko gizakia ez bezalakoa dena. Lehenago esan dugunez, globalizazioak hainbat abiadura ditu, eta aurpegi ugari eta desberdin horiek erabakigarriak dira gizaki globalizatua determinatzeko/hertsatzeko.

Eta zer proposatzen du neoliberalismo globalizatzaileak txirotasunari aurre egiteko? Bada, haren aurka borrokatzea, baina baliatu nahi duen tresna fokalizazioa da, alegia, ez du aberastasuna beste era batera banatzeko ezer egin nahi: fokalizazioaren diskurtsoaren bidez, aditzera eman nahi da honezkero ez dela borrokarik egin behar gizakiaren beharrizanak betetzeko, eta, aitzitik, gutxieneko beharrak eskuratzeko baizik ez dela borrokatu behar. Hala ere, fokalizazio horrek porrot egin du. Milurteko Helburuek argi erakusten dute politika hori nola gauzatu den Nazio Batuen barruan: ez dute eskubiderik lortu nahi, gutxienekoaren minimo bat baizik ez dute lortu nahi, eta, gainera, ingurune politikoa inola ere aztertu gabe eta boterea ezertan ere ukitu gabe. Adibidez, kontzeptu aldetik, osasunerako eskubide osoa, orain, hiru ardatzetara murriztu da; hauek dira ardatz horiek: haurren heriotza-tasa gutxitzea, amen osasuna hobetzea, eta GIB/HIESaren, paludismoaren

[14] Kategoria hau erabiltzen dugu –malgutzea, alegia– modu masiboan erabiltzen delako; hala ere, Stiglitzi jarraiki, zehaztu behar dugu lan-merkatua malgutzea deitzen den zera hori "praktikan, klabean idatzitako esaera baizik ez dela, benetan esan nahi duena hauxe baita: soldata baxuagoak eta lan-babes gutxiago". STIGLITZ, Joseph: *El malestar en la globalización,* Taurus, Madril, 2002. Carlos Rodríguez Braunen itzulpena, 115 or.

[15] BOBBIO, Norberto: *Igualdad y Libertad,* Paidos, Bartzelona, 1993, 133 or.

eta bestelako gaitzen aurka egitea. Era berean, hiru ardatz horietako bakoitzak oso xede txikiak ditu, xede txiki-txikiak benetan kontuan hartzen badugu zein beharrizan dagoen eta egoera horiek errotik aldatzeko benetan dauden ahalmen globalak. Eta, hala ere, Kofi Ananek onartzen zuenez, "gaur egungo joerek bere horretan irauten badute, herrialde txiroenetako askok ezin izango dituzte helburu horietako asko bete"[16].

Alabaina, Estatu-nazioa ez da gure azken ametsa; ez dut uste Estatu sozialak giza jabekuntzaren arazoa konpondu ahal izango duenik, baina, nolanahi ere, guztiz lagungarria izan daiteke bizitza-baldintza batzuk hain duintasun gutxikoak eta hain lotsagarriak izan ez daitezen. Hortaz, bada, oso garrantzitsua da haren alde egitea, baina, betiere, etapa gisa harturik, ez helburu gisa harturik. Estatu sozial hori lorpen handia izan da, eta lorpen hori zor hori diogu Alemaniako, Suediako, Espainiako eta Frantziako langileriari eta gizarte-mugimenduari, eta, oro har, mundu osoko langileen mugimenduari. Gizarte-klase hori gaur egun ahul eta desegituraturik egon arren, bizirik irauten du.

2. Lokalismoaren mitoa, eta erregea biluzik ez badago?

Garapen kapitalista transnazionalaren aurrean, bizkor ari gara joaten mito baterantz, uste baitugu mito hori garapen horren antitesia dela: lokalismoaz ari gara. Alabaina, lokalismoa, postmodernitatearen gozagarriekin ondo apailatuta, ez da inola ere garapen kapitalista horren antitesia, bere osagarria baizik. Lokalismoa ez da nahitaez ona, lokala edo tokikoa izateagatik: Kolonbiako paramilitarrak ere prozesu lokal bat dira; Boliviako Santa Cruzko aberatsak lokalismoaren alde eta Estatu zentralaren aurka daude; lokalismoak aukera emango liguke Palestinako gatazka zatitzeko eta zati bana emateko Gazari eta Zisjordaniari, batzuek proposatu duten gisan.

Lokalismoak, baina, hainbat arazo ditu: arazoetako bat da –lokalismoaren bertsio postmodernoak– printzipio unibertsalei uko egiten diela. Gogoan dut behin, eskubide ekonomikoei eta sozialei buruzko foro batean nengoela, eskubide horiek nola ulertzen diren ari ginela eztabaidatzen. Bertan zeudenak taldeetan aritu ziren lanean. Azkenean, aditzera eman zuten nekazariek, indigenek, emakumeek, beltzek, gazteek eta sindikalistek eskubide ekonomikoei eta sozialei buruz zituzten ikuspegiak. Baina inork ez zuen erantzun zein ote ziren nekazari, indigena, emakume, beltz edo sindikalista ez zen pertsona horren eskubideak. Horrek ez du urratzen ekitatearen eta bereizketa positiboaren printzipioa, baina joera arriskutsu bat erakusten digu; hauxe: ghettoan nago, beraz, existitzen naiz. Mekanismo horixe bera da nazionalismoek erabiltzen dutena. Nortasuna baliatzen dute osagai zatikatzaile gisa", eta horrek aukera ematen dio kapitalari esaera ospetsu hau gauzatzeko: "zatitu ezazu eta irabaziko duzu". Modernitatearen ideia horren guztiaren kontra dago. Habermasek esaten zuenez, "guztiz modernoa izatea" da "kontuan izatea hizkeran, pentsaeran eta jokaeran printzipio unibertsalak daudela". Gaur egun, berriz, unibertsaltasun horri muzin egiten zaio, lokalismoaren alde jokatze aldera.

Bigarren arazoa hauxe da: lokalismoak borroka deslokalizatzen du, eta, hala, borroka ezin da izan kapitalismo transnazionalaren aurkako borroka bat. Aitzitik, borroka

[16] NAZIO BATUAK: *Objetivos de desarrollo del Milenio. Informe de 2005*, New York, 2005, 3 orr.

herriko aberatsaren kontrako borroka bilakatzen da. Hortaz, bada, nazioarteko frontea desmobilizatzen du eta dituen indar eta energia gehienak tokiko kontu lokaletara mugatzen ditu; eta, hala –sirenek Ulisesi egin zieten bezala– laudorioak egiten dizkie zentralak ez diren gatazkei. Erdialdeko Amerikan kafea landatzen duen nekazari batek ez du bere produktuaren prezioa erabakitzen, eta tokiko edo nazioko merkatuek ere ezin dute kontu hori erabaki. Ez, prezio hori erabakitzen duena Wall Streeten dagoen gizon bat da, beharbada bere bizitza osoan kafe-mulu bat ere ikusi ez duen pertsona bat. Kolonbiako ospitaleko langileek doan egiten dute lan "beren" ospitalea aurrera atera dadin, eta, hortaz, negoziazioan aritzen dira tokiko boterearekin. Alabaina, ospitalea bat-batean ixteko erabakia ez da maila horretan ebazten: Munduko Bankuaren oniritziarekin, Estatuko Gobernuak ezarri dituen lege neoliberalen mende dago erabaki hori. Tokiko gobernuek eta tokiko gizarte-mugimenduek elkarren aurka jarduten dutenean, kapitalismoak gogotik egiten du barre.

Bi arazo horietaz gain, badago hirugarren arazo bat; honako hau: batzuetan, borroka lokalak ez duela ezertarako balio, ez baitu benetako etsaia ukitu ere egiten. Ez da zuzentzen zuzendu behar zuen tokira, arreta beste toki baterantz desbideratzen du, eta, azken batean, poetika elikatzea besterik ez du egiten. Aldarrikapen lokal askok ez dute mugimendurik ez kontzientziarik sorrarazten; erreformen erreklamoak baizik ez dira, ez baitute kapitalismoaren funtsa ukitzen, ez eta kapitalismoaren bizimodua ezertan baldintzatzen ere. Eta zergatik hori? Bada, hain zuzen, aldarrikapen lokalak direlako. Horrenbestez, ikusten dugunez, borroka lokala gehiegi balioesten da, neurriz gain. Esate baterako, Suediak hiriak senidetzen ditu eta "conflict prevention" izenekoaren kredoa hedatzen du nazioarteko lankidetza-proiektuetan, baina, aldi berean, armak ekoizten jarraitzen du.

Bestalde, ematen du "udal autonomo erreboltari zapatistek" eta "Gobernu Onerako Batzarrek"[17] egin duten proposamena oso iraultzailea dela. Alabaina, proposamen horrek ez du inolako ondoriorik kafearen prezioan tokiko ekoizleei dagokienez, zeren kafearen prezioa ez baita tokiko merkatuan erabakitzen. Nazio osoko energia hidroelektrikoaren %55 Chiapasetik dator, eta Mexiko osoko energia elektriko guztiaren %20 ere hortixe dator; hala ere, Chiapaseko etxebizitzen heren batek baizik ez du argi elektrikorik[18]. Hortaz, bada, botere lokalek ez dute arazoa konpontzen, alegia, ez dute konpontzen baliabide naturalak banatzeko nazioan dagoen eztabaida.

Laurogeita hamarreko hamarkadan Kolonbiako gerrilla askorekin egin ziren bake-negoziazioetan, "…hartu ziren akordioetan gehien baztertu eta alde batera utzi behar izan zena agenda ekonomikoa eta soziala izan zen". Hala, bada, borroka guztiz murriztu zen, garapen lokal batzuk gauzatzera mugatu baitzen: "programen hondakinak itundu ziren, "eskualdea garatzeko" xede zutenak, eta horiek ez zituzten inola ere kontuan izan gatazka armatuaren egiturazko aldagaiak; azken batean, inbertsio publikoen programa bat besterik ez zen egin, eta lurraldeko erakundeek ia ez zuten konpromisorik hartu beren gain"[19].

[17] EZLN: *Sexta Declaración de la Selva Lacandona,* Mexiko, 2005eko ekaina.

[18] EZLN: *Chiapas: el Sureste en dos vientos, una tormenta y una profecía.* Selva Lacandona. Mexiko, 1994ko urtarrila.

[19] SANGUINO, Antonio: "La paz de los noventa: el regreso de los rebeldes", hemen: Hainbat egile, *El regreso de los rebeldes*, Corporación Nuevo Arco Iris, Bogota, 2005, 77 eta 84 orr.

Eta, laugarren arazoa hauxe da: lokalismoa ez da erantzun egokia globalizazioaren aurrean; kasurik onenean, globalizazioaren aurkako nahien izendapen erreaktiboa izango da, baina, gehienetan, globalizazioaren beraren ondorioa da. Gaur egun, kapitalak ez du Estatu-naziorik behar garai zaharretan bezala. Egun, kapitalak herrixkak behar ditu, finantza-kapitala askatasunez eta mugarik gabe ibil dadin horietatik. Polizia duten herrixkak behar ditu, immigraziorik sar ez dadin; eta merkatu irekiak bere produktuak saltzeko. Herrixka lokal horrek, tokiko merkatu horrek, nazioarteko merkatu batekin antolatuta, ez dio inolako kalterik egiten kapitalari; aitzitik, onura egiten dio, funtzionala baita kapitalarentzat, eta desiragarria ere bai: gizarte-mugimenduak desmobilizatzen ditu, eta ez du agenda unibertsalen beharrik.

Beharbada erregea ez da biluzik egongo, edo agian inori ez zaio horrelakorik axolako. Horixe gertatzen ari da proposamen lokal askorekin: inori ez zaio axola, proposamen horiek ez baitute ezer eraldatzen, eta, gainera, kontsolatzen dute eta ematen du kontsolamendu hori aski dela. Hala, beraz, lokalismoa ez da kontu geografiko bat, politika ikusteko modu bat da, eta arrisku bat da ghettora itzultzeko mito gisa hartzen bada. Azken batean, Platonen leize-zulotik ateratzea lortu dugu, eta orain horra itzuli nahi dugu atzera berriz, dena itzal lokalen bitartez azaltzeko. Espainiako irakasle batek esaten zuenez, *besterentzea* kontzeptua ez zen kapitalismoarena edo ekonomia-arloarena soilik[20], eta, hargatik, zintzo galdetu behar diogu geure buruari ea lokalismoa eta harekin egin den mitifikazioa ez ote diren nola edo hala lagungarri besterentze horri begira.

Pentsamendu postmodernoko joerak lagungarri suertatu dira lokalismoaren kontu hau amarru bilakatu dadin. Orain dela hamarkada gutxira arte, zientzia iraultzailea zen, arrazoi unibertsalen alde jotzen zuelako; baina gaur egun, berriz, atzera egiten ari gara Erdi Aroko garaietara. Baten batek noizbait konparatu zuen sobietarren komunismoaren porrotaren aurrean izan zen erreakzioa eta Latinoamerikako tribu indigena batzuek egiten zituzten hiletak: hildakoa ezkontidearekin eta jabetzekin batera lurperatzen baitzuten. Era berean, Berlingo harresia erori zenean, batzuen iritziz, txirotasuna desagertu zen, injustizia erori zen, zientzia hil zen eta Marx lotsatzeko moduko zera bat bilakatu zen. Gaur egun, neoliberalak eta postmodernoak bat datoz, kredo bera baitute: gizarte-mailak desagertu dira, giza duintasunaren aldeko printzipio unibertsal guztien aurka daude, eta lokalismoa mitifikatzen dute, horixe baita beren ustez hausnarketa egiteko eta kontuak gauzatzeko toki nagusia.

Kapitalismoak teknologia modernizatu nahi du, baina modernitaterik gabe. Beste aldean, baina ildo beretik joz, batzuek uko egiten diote globalizazioaren "unibertsaltasunari" eta, horren ondorioz, giza eskubideak ere arbuiatzen dituzte, teknologiaren aurka azaltzen dira eta, horrela, ez dute zientzia onartzen, desberdintasuna azpimarratzen dute eta, beraz, ghettoa sendotzen dute. Eta giza eskubideei uko egitea, pentsamendu zientifikoa arbuiatzea eta ghettoa sendotzea, azken batean, kapitalismoaren aldi berri honen bereizgarriak dira, alegia, globalizazioaren bereizgarriak dira.

Etniaren eta arrazaren ghettoak, berez eta funtsean, Alemaniako faxismoaren eta Israelgo sionismoaren logika berbera du: izaera baztertzailea du, eta hautatuak izan

[20] Francisco Rubio Llorenteri jarraiki, besterentzearen auzia ez dagokie soilik kapitalismoari, ez eta ekonomia-arloari ere. Ondoko liburuaren itzulpenaren hitzaurrea: MARX, Karl: "Primer manuscrito" *Manuscritos. Economía y filosofía*, Alianza Editorial, Quinta Edición, Madril, 1974, 40-41 orr.

direla eta eskubide bereziak dituztela uste dute. Logika horri jarraiki, uko egiten diegu pentsamendu zientifikoari eta unibertsaltasunari, leporatu egiten diegu soilik mendebaldekoak eta ez beste inongoak direla, egozten diegu globalizazioaren alderdi txarra direla, baina kontua justu kontrako da: globalizazioaren aurka borrokatzeko dugun tresnarik onena dira.

Ondo zehaztu behar dugu Mendebaldea eta Modernitatea ez direla kontu bera, nahiz eta historiako eta geografiako alderdi batzuk biek batera eduki. Modernitateak balio batzuk dakartza berekin, baina balio horiek ez dituzte ezinbestez betetzen Europako estatuek, eta, gainera, balio horiek betetzea ez dagokie soilik Europako estatuei eta ez beste inori. Modernitatea eta Mendebaldea nahasteak onura egiten dio Mendebaldeari, zehazki, Mendebaldearen ikuspegi kolonialistari, eta kalte egiten die printzipio unibertsalei. Batzuek Modernitatearen ideiak Kosovoko bonbardaketekin nahasten dituzte inolako zigorrik jaso gabe. Axolagabekeria handiz berdintzen dute Rousseauren demokrazia Estatu Batuek ezarri duten demokraziarekin.

3. Politika poetika gisa ulertzeko mitoa

Postmodernitateak eta lokalismoak hirukote bat osatzen dute poetikarekin batera. Barkamena eskatu beharko diegu poetei, hemen "poetika" hitza erabiltzen dugunean, hauxe adierazi nahi baitugu (modu ironikoz): ekintza politikoa murriztu dela edota haren ordez diskurtso metaforiko eta hipersinboliko bat erabiltzen dela. Ikuspegi horren arabera, poetika hori da dagoen era zuzena eta bakarra, poetika hori da gizartean dagoen injustiziari erantzuteko dagoen era bakarra. Alabaina, ezin gara geratu banderak erretzen besterik gabe, urliak esaten zuen moduan, alegia, "uste zuen etsaia irabaziko zuela fantasiaren bidez, etsairik ez zegoela adierazte hutsarekin baztertuz, baina, horrela, galtzen zuen oraina ulertzeko aukera oro, zain zuen etorkizuna ezer egin gabe itxoiten"[21]. Baina kontu bat baieztatze hutsarekin, ezin dugu frogatu, ez eta ukatu ere.

Hori guztia, argi eta garbi ikusten da Palestinari dagokionez[22]. Esate baterako, Suediako talde solidario baten eztabaidaren ardatza hauxe zen: Suediako gazteak Palestinara joatea bisitan. Alabaina, talde horrek alde batera uzten zuen kontu hau: Suediako boterean sozialdemokrazia eta Ezkerreko Alderdia zeudela. Horiek horrela, talde horrek egin zezakeen konturik eraginkorrena hauxe zen: Suediako gobernuari aldarri egitea, gobernuak Israeli eska ziezaion nazioarteko zuzenbidea errespetatzeko. Ez zioten horrenbesteko lehentasunik eman behar Palestinara bidaiatzeko kontuari. Horixe bera esan dezakegu Espainiari dagokionez. Gobernu berriko Kanpo Harremanetarako Ministerioan Miguel Angel Moratinos dago; bera, garai batean, Arafaten lagun mina zela adierazi zuen harrotasunez, eta, orain, berriz, ez du ezer esan nahi Israelen aurka, itzuri egiten du auzi hori.

Ekintzaileak Palestinara bidaian joateak onurak edukiko ditu, baina, hala ere, hori arrisku bat da; eta, gainera, horrelakoak sarritan uneko gertaerak besterik ez dira, ger-

[21] MARX, Karl: *Las luchas de clases en Francia de 1848 a 1850. El dieciocho brumario de Luis Bonaparte.* Espasa Calpe, Madril, 1995. A. S. Cuper-en itzulpena, 218 or.

[22] Zatika harturik liburu honetatik: DE CURREA-LUGO, Víctor: *Palestina: entre la trampa del muro y el fracaso del derecho,* Icaria, Bartzelona, 2005, 133-135 orr.

taera horiek ez dute prozesu bat osatzen, eta, beraz, azken batean, poetika hutsa dira, eta ez dira politikara iristen. Gainera, badirudi kontu hori behin eta berriz gertatzen dela Palestinari elkartasuna erakusteko izaten diren ekintzetan. Kritika hori begi txarrez hartzen dute talde solidarioek, eta, hala, ematen du ez direla ohartzen kontsigna politikoetatik harantz dagoen horretaz, ez direla konturatzen Palestinako banderekin ibilalditxoak egiteaz aparte zerbait gehixeago dagoela. Poetika argi agertzen da, esate baterako, nazioarteko lankide boluntarioek Israelek eraikitako harresia margotu zutenean, bertako jendeak ez baitzuen harresi ederrik eduki nahi. Horixe bera gertatu da Nazio Batuen Garapenerako Programarekin: haiek antolatu zuten Ronaldok Palestinara egin zuen bidaia (eta futbolaria 2005eko maiatzean joan zen hara). Hori poetika hutsa da, ez da politika inola ere ez. Nazio Batuetako agentziek badute zeregin bat, ez dute bakarrik balio futbolariei gonbidapenak egiteko (futbolari horren bisitak, gainera, ez zuen aldaketa bat bera ere eragin hango gatazkako baldintzetan). Agentziek sortu ziren Nazio Batuei laguntza eta sostengua emateko, Nazio Batuek duten eginkizun horretan: nazioarteko bakea eta segurtasuna bermatzen laguntzeko, alegia.

Ez da aski egin ahal dena egitea; egin behar dena egin beharra baitago. Solidarioek, batzuetan, mozkorraren txiste txar eta zaharrean gertatzen dena errepikatzen dute: mozkorrak kaleko zokorik ilunenean galtzen ditu giltzak, baina argituta dagoen aldean bilatzen ditu, zergatik-eta argi gehiago baitago alde horrexetan. Errazagoa da harresi bat margotzea, prozesuak abian jartzea baino. Israelen aurkako boikot-ekimenek berek ere, azken batean, ez dute estrategia argirik sorrarazten; eta, gainera, batzuen ustez, boikota Hegoafrikari zegokienez ondo zegoen, baina Israelen kasuan, berriz, neurri "antisemita" bat da. Kasurik onenean, kontsumitzaileari eskatzen zaio, esate baterako, Israelgoak diren baina azken batean Palestinako lurretan ekoitzi diren aguakateak ez erosteko. Eta arazoa da ez dela ezer gehiagorik egiten, eta nahiz eta asmo onez jokatu horrela sistematikoki, kontua da aguakaterik ez erostea politika aldetik baliagarria izan daitekeela, baina ekonomia aldetik ez duela inolako eraginkortasunik, ez ondoriorik; ez, behintzat, eskala handian eta beste estrategia batzuekin batera egituratzen ez bada.

Israelgo talde solidarioei dagokienez, kontuan izan behar dugu Israelen dauden gobernuz kanpoko erakundeak oso gutxi direla, garrantzi handirik ez dutela, eta haietako askok ez dutela elkartasunik adierazi beharrizan gehien izan den uneetan. Israelgo zutabegile batek esaten duenez, orain ezinezkoa da galdera honi itzuri egitea: non ote zeuden Israelgo ezkerreko alderdi guztiak Palestinako haurrak hil zituztenean, Rafahko etxeak behera bota zituztenean lurrarekin berdinduz, Zisjordaniako olibondoak suntsitu zituztenean, harresia eraiki zutenean, juduentzako baizik ez diren apartheideko errepideak egin zituztenean eta herrialde oso bat espetxeratu zutenean urteko *checkpoints* edo kontrol-puntuen bidez?[23]. Baina Israelgo gizarteak horretan izan duen erantzukizuna aipatzeak kalte egiten dio orain bolo-bolo aipatzen den "tolerantziaren" poetikari.

Orain, Mexikoko kasua aipatuko dugu. Zalantzarik gabe, zapatisten diskurtsoari esker, Chiapas nonbait bazela ageri zen egunkarietan eta agendetan. Alabaina, zapatisten diskurtsoa, haien salbaziorako taula izan den arren, haien amarrua ere izan da

[23] LEVY, Gideon: "Good morning to the Israeli left", *Haaretz*, February 13, 2005.

aldi berean: "Mexikoko hirira egin zen ibilaldiak arrakasta handia izan zuen propaganda aldetik –indar biziz argitzen duen baina berehala itzaltzen den bengala bat bezala–, baina ez zuen inolako ondoriorik izan politika aldetik. Bazirudien zapatistek ez zekitela zer egin arrakasta horrekin, ematen zuen ez zekitela nola atera etekin politikoa komunikabideetan izan zuten agerpen handi horri. Berehalako baldintza politiken arabera estrategia berriak inprobisatzeko izan zuten ahalmenak abantaila handiak ekarri zizkien iraganeko aldietan, baina bazirudien ahalmen hori agortuta zegoela ordurako."[24].

Baina agortze hori ez zen uneko kontua izan; esanak esan, zapatismoa eraikitzeko hartu den oinarria poetika indigenista-nazionalista autoerreferentzial bat da, eta hor zapatismoa Marcosen irudira mugatu da, eta aldi berean Marcos bera bere buru-berokiaren irudira mugatu da. Zapatismo horrek onartzen du ez daukala ekarpen handirik hautabideak eraikitzeko: "Oposizio independentearen proiektuetan gabezia bat dugu eta hori, gaur egun, behin ere baino erabakigarriagoa da: guk ez dugu babesten gure herrialdea suntsitu nahi duen proiektu bat, horren aurka gaude, baina, hala ere, ez dugu estatu berri bat eraikitzeko proposamenik, ez dugu nazioa berreraikitzeko proposamenik"**[25]**. Oso ondo definitzen ez dakiten horri aurre egiteko, zapatistek aurkezten duten hautabidea da Itxaropenaren Internazionala sortzea**[26]**.

Erabilera sinboliko horretan, zapatismoak ez du argi azaltzen bere proposamena; izan ere, nazionalismo mexikarra aldarrikatzen du, indigenismoa oso modu instrumentalean erabiltzen du, ez du kapitalismoa gaitzesten eta, gainera, ez doa boterearen bila. Marcosek berak honelaxe esan zuen: "guk ez dugu asmorik boterea eskuratzeko"[27]. Batzuek, berriz ere poetikaren mailan kokatuta, hitzak aurkitzen dituzte zapatisten isiltasunean ere[28]. Alabaina, berriro ere azpimarratu behar dugu hori baliagarria izango dela literaturan, baina ez politikan.

Zehaztugabetasun hori ikusita, argi "uler dezakegu zer dela-eta zapatismoaren nortasuna beti interpretatu den modu politiko guztiz desberdinetan, interpretazioa egiten duenaren ikuspegiaren arabera. Adibidez, badugu zapatismo bat kultura-aniztasun gisa ulertzen dena (batez ere, Estatu Batuetako berriemaileen iritziz); badugu beste zapatismo-mota bat unibertsaltasun-mota jakin bat irudikatzen duena (batez ere Frantziako egileen ustez). Bestalde, badugu Askapenerako Teologiaren zapatismo kristaua (darabilen Itun Zaharreko hizkera horrekin, Jaungoikoak hautatu duen eta bere barnera bilduta dagoena herri bat –indigena– aipatzen duena); badugu mugimendu anarkista berrien zapatismoa (mugarik gabeko promesa orokor baten moduan ulertzen dena); badugu mugimendu politiko postmoderno gisa hartzen den zapatismoa ("kapitalismotik eta sozialismotik harantz doana"), badugu indigenen susperraldia irudikatzen duen zapatismoa (jatorriko eta funtsezko arima maia gaurkotzen duen mugimendua), eta beste hamaika holako. Beti izaten da aukera paragrafo bat, testu bat, esaldi bat aipatzeko, norberaren ideiak indartze aldera"[29].

---

[24] PITARCH, Pedro. "Los zapatistas y el arte de la ventriloquia". Lan honen hainbat bertsio desberdin eta hurrenez hurren eginak argitaratu zituzten argitalpen hauetan: *América Latina Hoy*, 19 zk. (Salamanca, 1998), 5-23 orr.; *Letras Libres*, 1 zk. (Madril, 2001), 50-56 orr. *Claves de Razón Práctica*, 138. zk. (Madril, 2003), 63-72 orr.

[25] EZLN, *Cuarta Declaración de la Selva Lacandona,* Mexiko, 1996ko urtarrila.

[26] EZLN*: Contra el Neoliberalismo y por la humanidad. Primera Declaración de la Realidad,* Mexiko, 1996ko urtarrila.

[27] BBC: "Marcos: la entrevista", 2001eko martxoaren 16a.

[28] RAJCHENBERG, Enrique, HÉAU-LAMBERT, Catherine: "Los silencios zapatistas", *Chiapas 16*, Mexiko, 2004.

[29] PITARCH, "Los zapatistas y...".

Askapen Nazionaleko Armada Zapatista (EZLN) kexu da nekazaritza-arloko politikak direla-eta, politika hidroelektrikoaren ondorioz Chiapaseko biztanleek beren baliabideak ezin eskuratu ditzaketela-eta, nekazaritzako produktuen salneurria dela-eta. EZLNren Seigarren Adierazpenari jarraiki, "borroka egin nahi dugu gu bezalakoxeak diren herritar xume eta apal guztiekin, beharrizan handiak baitituzte, eta aberatsen eta haien gobernu txarren zapalketa eta lapurreta pairatu behar baitute"[30]. Zapatisten agenda hori baldin bada, erantzuna zein ote da? Botererik ez duenaren diskurtsoa? Garai batean, 1994. urtean, armak hartu eta berariaz adierazi zuten "hiriburuaino joango zirela" eta hainbat kontu gehiago. Kontu horiek guztiak, zertarako egin zituzten? Boterea hartzeko? Edo ekintza sinboliko bat baizik ez zen izan, hildakoak eragin eta errepresioa piztu zuen ekintza bat? Zer egin nahi du Marcosek, kontuak aldatu edo atentzioa eman?

Boterea ez da deuseztatzen taldeak hausnarketa egite hutsarekin. Boterea ukitu nahi ez izatea ez da zapatisten ekintza inozo bat, zalantzarik gabe ekintza guztiz funtzionala baita botereareentzat. Nola uler daiteke "askapeneko armada" izatea, eta nazioa askatu nahi izatea baina boterea ukitu gabe? "Basati onaren" asaldurak eragindako erantzuna ematean, Marcosek gehiago azaldu du aurre-modernismotik postmodernismotik baino. Eta 1994. urteko kuartelik gabeko guda goraipatu hura orduan iritsiko zen; botererik ez hartzeko ekintza izan arte?

Kolonbian esaten dutenez, garrantzitsuena ez da nork jartzen duen lehergailua, baizik nori egiten dion onura horrek. Eta Palestinan, Gazako herritar batek Mohamed Dahlanen ustezko kolaborazionismoari buruzko eztabaida bukatzeko, aditzera eman zuenez, garrantzitsuena ez zen hura kolaborazionista zen edo ez jakitea, baizik eta kolaborazionista balitz bezala jarduten zuela ikustea. Hemen ez dugu esan nahi zapatistak kolaborazionismoan aritzen direnik, baina ondo nabarmendu nahi dugu haien diskurtsoak, Latinoamerikan oihartzun txikia eta Europan oihartzun ozena izan duena, gizarteko mobilizazioak geldiarazten dituela epe luzera.

Hala, bada, indigenismoaren poetika dela-eta, Marcos buruzagi bat dela ematen du, baina ez da horrela. Bestela, kofia eta Palestinako bandera eramateko poetika aski izango litzateke Israelen okupazioarekin bukatzeko, ahalegin gehiago egin beharrik gabe; eta, era berean, mendebaldeko saharararrentzat, aski izango litzateke desertuaren poetika baliatzea.

4. Bakezaletasunaren mitoa

Giza eskubideekin,ekologismoarekin eta genero-ikuspegiarekin gertatu den bezala, bakezaletasuna ere moda bilakatu zen. Nik ez dut arbuiatu nahi doktrina gisa, moda gisa baizik. Baina mitoa den heinean ere, haren aurka nago: bakezalea izateak aukera bat izan behar du, ez moda bat: bakezalea izanda ere, horrek ez du esan nahi ezkertiarra naizenik; eta, era berean, indarkeria tresna gisa erabiltzeko aukera onartzeak ere ez du esan nahi eskuindarra naizenik.

Gaur egun bakea beharrizan bat da, hala Palestinan nola Kolonbian, eta, aldi berean, beharrizan bat da kapitalismo globalizatzailearentzat[31]. "Bakea" hitza politikoki

[30] EZLN: *Sexta Declaración de la Selva Lacandona,* Mexiko, 2005eko ekaina.

[31] FANEK, Fahed: "Globalization Needs Peace to Thrive", *Daily Star*, Global Policy Forum izeneko web gunean argitaratua, 2003ko urtarrilean.

zuzenegia da; eta, hala, beraz, bakezalea ez den jarrera bat hartzea jarrera suizida bat da. Alabaina, hemen azaltzen dugun ez-bakezaletasuna ez da sortu auzia jarrera inozo edo laño batetik ikusita, ikuspegi hori ez da sortu gerra zer den ez dakigulako, edo gerraren ondorioak zein diren ez dakigulako. Aitzitik, horren gaineko kontzientzia izan arren, jarrera ez-bakezale bat hartzea erabaki dugu, uste baitugu badirela balio duinagoak eta garrantzitsuagoak bakea baino, batez ere pertsona arrunten bakea eta Galtungek bake negatiboa deituko zuen hori kontu berbera direnean (zirkulu akademikoetan izan ezik)[32].

Beste hitz batzuetan esanda, balio absolutua bakea baldin bada, orduan, injustiziakuota bat onartu beharko dugu; eta, aldiz, balio absolutua justizia baldin bada, orduan, nolabait uko egin beharko diogu bakeari. Ez da hau tokirik egokiena onarpenaren ehunekoak neurtzen ibiltzeko, baina leku egokia da azken balioei buruz eztabaidatzeko, eta nire jarrera justiziaren aldekoa da erabat.

Hitlerri indarkeriaren bidez irabazi zioten, gerrilla sandinistek indarkeria erabiliz baizik ez zuten lortu Somoza agintetik botatzea. Beste adibide batzuk dira Frantziako partisanoak eta Gerra Zibilean Espainiako Errepublikaren alde borrokatu zutenak. Indian, Portugal Goatik bidaltzeko, Gandhik indarkeria erabili behar izan zuen eta horretarako tropak hara bidali. Hala, bada, indarkeria erabilgarria da helburu batzuk lortzeko: inozoa da esatea "indarkeriak indarkeria baizik ez duela sortzen": faxismoari irabazteko, frankismoaren garaian gizartea kontrolatuta izateko eta Pinocheten diktadurapean helburu horixe bera lortzeko, guztiz nahitaezkoa izan zen indarkeria. Estatu torturatzaile, errepresiogile eta zapaltzaile batek askoz hobeto bermatuko du bake-egoera bere barnean.

Indarkeria tresna bat da; tresna den heinean, erabat gaitzetsi dezakegu (esate baterako, bakezaletasun-mota batek horrelaxe egingo luke), edo, bestela, eztabaidatu daiteke politika aldetik egokia den. Baina inola ere ezin egin daitekeena da moral bikoitza erakutsi haren aurrean, alegia: batzuek erabiltzen dutenean bidezkotzat jotzea, eta beste batzuek baliatzen dutenean, berriz, bidezkoa ez dela esatea. Legezko indarkeria onar dezakegu, baina legezkoa izan arren ezin izango dugu inola ere ukatu indarkeria denik. Eztabaidatu dezakegu indarkeria bidezkoa den edo ez, egoera jakin batean, edo moralki baliagarria den (este baterako, "esku-hartze humanitarioak" deitutakoei buruz gaur egun dagoen eztabaida). Baina indarkeria onari edo txarrari buruz hitz egitea ez da zuzena, ez eta baliagarria ere. Horrez gain, indarkeriari buruzko eztabaida egitean, gaur egun, ez da dikotomia faltsuetan erori behar, alegia, bakezaletasuna versus terrorismoa dikotomian. Ondo bereizi behar dugu erresistentzia eta terrorismoaren artean. Baina, horretarako, terrorismoa gaitzetsi behar da, arrazoi juridikoak, moralak edo politikoak kontuan izanik. Ondotxo dakite hori palestinarrek. Ez da kontu bera Ho Chi Min eta Pol Pot.

Latinoamerikan, iraganean, borroka armatua justifikatzen zen, garai hartan han justiziarik ez zegoela argudiatuta. FMLNko komandante batek honelaxe zioen: "Indarkeria erabiltzeko eskubidea ez da aukera erradikal bat, ez kristauen ustez, ez marxisten ustez; aitzitik, indarkeria erabiltzeko eskubidea beharrizan bat gisa hartzen

[32] GALTUNG, Johan: *Peace by peaceful means: Peace and conflict, development and civilization*, London, SAGE, 1996; eta egile beraren beste lan hau: *Conflict transformation by peaceful means*, Geneva, United Nations, 1998.

dugu, bestelako bideak agortuta daudelako"[33]. Camilo Torresek hauxe esan zuen: "hautatu behar den bideari buruzko azken hitza ez dago herri xehearen esku, herriak –gehiengoa osatzen duenez– boterea eskuratzeko eskubidea duelako. Hobe izango litzateke oligarkiari galdetzea ea nola emango duen botere hori; modu baketsuan egiten badu, guk modu baketsuan hartuko dugu boterea; baina boterea emateko asmorik ez badu edo indarkeriaren bidez egin nahi badu, guk indarkeria erabiliz hartuko dugu"[34]. Engelsek horixe bera adierazi zuen XIX. mendearen erdialdean: "Ezin dira jarraitu horrela, parlamentuko egoitzara (Rejchstagera) sartzeko bidea guri ixten. Sartuko gara, ez dago zalantzarik; orain eztabaidatu behar dugun kontu bakarra da zein atetatik sartuko garen"[35].

Aurreko hamarkadetan gerrillei laguntza eman zietenek injustizia eta aukera politikoen gabezia hartu zuten argudio gisa horretarako. Hala, bada, orduan, baldintza objektibo horiek aldatzen badira, uko egin beharko diote gerrillen gerrari, eta ez Berlingo harresia erori delako. Beste aukera bat izan da borroka armatua errefusatzea eta errealitate bidezkoagoak lortzeko beste bide batzuk aukeratzea, baina ondo neurtuz ba ote dagoen errealitate berri horiek sortzerik eta errealitate horiek aski ote diren lortu nahi den justizia eskuratzeko.

Nolanahi ere, indarkeria edozertarako baliatuz gero, politikoki bidezkoa den neurtzeko erabiltzen den iragazkitik igaro ondoren eta aukera praktiko gisa harturik, osagai etiko bat hartu behar da aintzat, eta hori, gutxienez, bi arlotan ematen da aditzera; hona hemen zein diren arlo horiek: zibilei errespetua izatea eta barneko militarismoaren aurka jotzea. Gerrak arautua izan behar du, eta horrelaxe jokatu behar da, baina ezin izango da arautu aurrez onartzen ez bada (ezinezkoa da bakezalea izatea eta, aldi berean, Ginebrako Hitzarmenak aldarrikatzea).

Indarkeriaren erabilera benetako errealitatea da zenbait kasutan, hala nola, Palestinan edo Bolivian. Gaur egun Bolivian egiten ari den borroka ez da Konstituzioaren Testua aurrera ateratzeko, besterik gabe; ez, boterea hartzeko ari dira borrokan. Evok argi esan zuenez, "kontu bat da gobernua izatea eta beste kontu bat da, berriz, boterea izatea". Bolivian, indigenek eta oro har herriko mugimenduak gobernua hartu zuten gizartean mobilizazio handi bat izan zelako, eta mobilizazio hori ez zen bereziki baketsua izan. Mobilizazio horri esker lortu zuten lege neoliberalak aldatzea, uraren enpresa transnazional bat bertatik botatzea eta lehendakariak behera botatzea[36]. Era berean, Parisko periferiako auzuneetan bazterkeriaren aurka borrokatzeko izan diren gaitzespenak eta kexak ere ez dira batere baketsuak izan; ez eta Oaxakan, Mexikon, gobernu txarraren kontra egin zirenak, edota Lurrik Gabeko Mugimendukoek Brasilen lurrak berreskuratzeko egindakoak ere. Irakeko eta

[33] HARNECKER, Martha: *Guerra en El Salvador. Entrevistas con comandantes del FMLN,* Tercera Prensa, San Sebastian, 1989, hemen aipatua: PEREYRA, Daniel: *Del Moncada a Chiapas. Historia de la lucha armada en América Latina*, Editorial Canguro, Buenos Aires, 2000, 196 or.

[34] Jean Pierre Sergent kazetari frantziarrari onartu zion elkarrizketa, 1965. urteko bigarren erdialdean egina. Espainolez, hemen argitaratu zuten: *Voz Proletaria*, Bogota. 1967ko otsailaren 17an eman zuten argitara, Camilo hil eta handik bi egunera.

[35] Ondoko liburuaren 1895. urteko edizioari F. Engels-ek egin zion hitzaurrea: MARX, *Las luchas de clases...* 80 or.

[36] Ikusi: Hainbat egile: *Para que no se olvide. 12-13 de febrero 2003*, APDHB/ASOFAMD/DIAKONIA, La Paz, 2004; eta GARCIA ORELLANA, Alberto; GARCIA YAPUR, Fernando; QUITON HERBAS, Luz: *La "guerra del agua",* Programa de Investigación Estratégica en Bolivia, La Paz, 2003.

Palestinako erresistentziak, era berean, ez dira bakezaleak. Eskatu ahal izango zitzaien juduei, nazien kontzentrazio-esparruetan zeudela, bakezaleak izan zitezen?

Kolonbiari dagokionez, herrialde hau da Latinoamerika osoan gerrillen gerra-kontuetan eskarmentu gehien izan duen herria, eta, bertan, borroka armatuak porrot egin du. Alabaina, han txirotasuna dago, bazterkeria ere bai, eta era berean borrokatzeko indar asko pilatu da. Kontua da FARCek borroka armatua lapurtu ziola herriari, bereganatu egin zuela borroka-mota hori; eta, gero, zibilen aurkako erasoz bete zuten borroka, beste gerrilla batzuei ere eraso egin zien, eta sarraskia eta neurririk gabeko indarkeria nagusitu ziren. Hala, bada, gaur egun FARCek nekez esan dezake talde ezkertiarra denik; izan ere, burgesen estatu autoritarioa[37] goitik behera errepikatu du, eta, beraz, talde eskuindar bat da.

Benetako eztabaida da ea bakezaletasuna –dituen baliabideekin– gizartea eraldatzeko gauza den. Izan ere, une jakin batean, herriek dikotomia honi egin behar izaten diote aurre: a) egin beharreko erreformak egitea, gizartean bakea eta adostasuna edukita; b) eraldatze horiek egitea, nahiz eta horretarako indarkeria erabili behar izan[38]. Dena dela, hemen bultzatu dugun ideiari jarraiki oinarrizkoena justizia denez, bakea bigarren mailako balio bat da. Bakea balio gorena izango balitz, orduan, justizia utzi beharko genuke alde batera bakearen mesedetan, baina hori ez da gure jarrera. Herriek ondo jakin behar dute "beren egoera hobetzeko egin daitekeen mugimendurik txikiena ere, errepublika burgesaren *barruan*, *utopia* bat dela; eta utopia benetako errealitate bilakatu nahi izanez gero, krimen bilakatzen dela berehala"[39].

Latinoamerikan borrokak eta ahaleginak egiten ari dira etengabe aldi honetan, erreformak eta iraultzen mehatxuak, hauteskundeak eta konstituzio berriak, itxuraz berriak ematen duten kontratu sozialak, itun berriak. Azkenean, emaitzak jakingo ditugu, baina emaitza batzuk aurrez ikus ditzakegu honezkero. Mito hau nolabait laburbiltze aldera, Palestinako kasua ekar dezakegu hona: Palestinan, bakea lortzeko, hangoak ez dira ibiltzen elkarri besarkadak ematen. Palestinako gatazkak ez du bakarrik bakea behar (bake negatiboa, ia gehienek ulertzen duten era horretan); ez, bakearekin batera justizia behar dute han. Palestinako erresistentziak indarkeria erabiltzen du: eta indarkeria hori bidezkoa da, zilegi da, legezkoa da eta moralki baliagarria da.

5. Hiru proposamen

Oinarrizko hiru kontu daude auzi honi ekin ahal izateko; honako hauek dira:

1. Historiaren amaierara iritsi garela dioen mitoa suntsitu behar dugu. Mito horrek aurkezten digun diskurtso teknokratiko-formalak, itxuraz, neutrala eta aseptikoa dela ematen du, diskurtso horrek dioenez, denok itsasontzi berberean bai-

[37] Ideia honi buruz, ikusi: HORKHEIMER, Max (1940): *El Estado autoritario.* Argumentos, Bogota, 1983. Rubén Jaramillo Vélez-en itzulpena.

[38] Dikotomia hau dela-eta Frantziako langileria-mugimenduko langileak aurrez aurre jarri ziren 1848. urtean, eta egin zuten akatsa izan zen iraultza egin nahi izan zutela baina instituzioak bere horretan utzita. Marx-ek honela zioen: "Frantziako langileek ezin izango dute urrats bat ere aurrera egin, ezin izango dute burgesen ordena horretako ile bat ere ukitu, iraultzak ordena horren aurka altxatzen ez bada"; eta honelaxe jarraitzen zuen: "Frantziako Estatua erabat iraultzen ez bada, ezinezkoa izango da Frantziako Estatuko aurrekontuak iraultzea". MARX, *Las luchas de clases...* 98 eta 168-169 orr.

[39] MARX, *Las luchas de clases...* 113 or.

koaz elkarrekin. Alabaina, diskurtso horrek ahazten du kapitainak eta arraunlariak daudela azaltzea, ez baitu horren aipamenik egiten. Diskurtso horrek kapitalismoari globalizazioa deitzen dio, eta kontu naturala balitz bezala aurkezten du kapitalismoa, arduradunik edo erantzulerik egongo ez balitz bezala. Baina egon badago kapitain bat: finantza-aroko burgesia transnazionala. Ezkerreko alderdietan askok esaten dute ez dutela sinesten historiaren bukaerara iritsi garenik; baina, hala ere, horren banderak jaso zituzten, gizarte-mailen nozioari uko egin zioten, ondo egokitu ziren *establishment* deitutako horretara; eta orain "giza aurpegia duen kapitalismoaz" hitz egiten dute, fokalizazioan sinesten dute eta gizarte zibilarekin batera egindako gobernuaren alde agertzen dira.

2. Gaur eguneko garaiei begira, demokraziak eskuratu dituen lorpenak bultzatu behar ditugu eta, horrez gain, modernitatean sakondu behar dugu[40]. Giza eskubide unibertsalak eta osoak –berez, horrelakoxeak baitira beren definizioaren arabera–, tresna egokia dira burujabetze politikoa lortzeko, eta burujabetze politiko horri ez zaio inola ere uko egin behar, giza eskubideak Europan asmatu zirela aitzakia gisa harturik (ildo horretatik joz gero, matematikak arabiarrak dira eta, hala ere, ez dira musulmanak). "Giza eskubideen globalizazioaz" hitz egiten da, baina giza eskubideak asmo, aldarrikapen eta joera unibertsal batekin sortu ziren, merkatu globalaren beharrik izan gabe, hau da: giza eskubideak ez dira unibertsalagoak gaur egun globalizazioa dela-eta; aitzitik: unibertsalagoak dira egun globalizazioa egon arren[41]. Aski da ikustea zer-nolako kaltea egiten dien globalizazioak giza eskubideei[42]. Are gehiago, gaur egun garrantzitsuagoa da Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMAk) giza eskubideen arloan duen arautegia Nazio Batuek arlo horretan duten arautegia baino. Hortaz, bada, ez da giza eskubideen globalizaziorik izan. Aitzitik, gertatzen dena da globalizazioak uko egiten diela giza eskubideei. Nazioarteko gizarte-arloko kontratu horiek (giza eskubideak, eskubide humanitarioak, Kyotoko akordioa eta beste batzuk) alde batera uzten dira, traizioa eginda, MMAk ezartzen eta betearazten dituen politiken mesedetan. Laburbiltze aldera, gure eginkizuna da iraultza burgesak lortu zituen garaipenak berreskuratzea eta horiek gainditzen ahalegintzea. Hau da, "gutxieneko estatuari" mozorroa kentzea eta zuzenbideko gizarte-estatua berriz ezartzea.

Azpimarratu behar dugu modernitatea eta bere jarduerak ez direla "europearrak eta gaiztoak": esaiezue hori Boliviako indigenei, sindikatuetan antolatzen ari diren horiei; esaiezue hori Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimendukoei, lurraren jabetze-eskubidea lortze aldera borrokan ari diren horiei; esaiezu, era berean, Tailandian haurrak lan egitera behartzen dituen politikaren aurka borrokan jarduten dutenei. Esaiezue, bada, sindikatuak, jabetzako eskubidea eta haurtasunaren kontzeptua alde batera utzi behar ditugula, kontzeptu horiek guztiak europarrak direlako. Bolivian bilatzen ari den eta Kolonbian lortu den Konstituzioa kontratu sozialen adibide adierazgarriak eta argiak dira. Palestinan, biktimek eskatzen duten kontu bakarra da giza eskubideak

[40] Marxek berak azaldu zuen demokrazia burgesaren eta boto unibertsalaren aldeko borroka langile-klasearen eginkizuna zela *Manifiesto Comunista* (1848) liburuan, eta ideia bera aldezten du, idealizaziorik egin gabe, hemen: *Las luchas de clases.*

[41] Giza eskubideen globalizazioari buruz gehiago jakiteko, ikusi: MARTINEZ DE PISON, José: "Globalización y derechos humanos", *Claves de Razón Práctica, 111. zk.* (Madril, 2001eko apirila), 40-48 orr.

[42] TEITELBAUM, Alejandro: *La crisis actual...*

errespeta daitezen: arrazoibideak ematen dituzte etxeak bertan behera bota ez ditzaten, prozesua dela-eta, tortura gaitzesten dute eta bereizkeriarik ez egitea eskatzen dute; eta argudio horiek guztiak giza eskubideen logikatik ematen dituzte aditzera (eta, hor, eztabaida ez da mugatzen emakumeen belo musulmanaren gaira). Orduan, bigarren proposamen honi jarraiki, jarrera argia hartu behar da joera postmodernoen aurka, joera horien oinarrian –modu instrumentalean edo benetan–, etnia, generoa, klana, ghettoa edo azalaren kolorea bezalako argudioak baitaude. Kontua ez da desberdintasunari ezikusia egitea; kontua da "nortasunari" gaur egun egiten zaion kultu horri uko egitea, azken batean zatikatzen duen indarra baita.

3. Etorkizunari begira, utopia berreskuratu behar dugu. Horrek ez du esan nahi atzera itzuli behar dugunik, eta norbanakoari uko egin behar diogunik benetan gauzatu zen leninismo-estalinismoan gertatu zen moduan. Aitzitik, ozen aldarrikatu behar dugu norbanako heldua, adin-nagusia eta erabakitzeko ahalmena duena. Kontua ez da ukatzea benetan gauzatu zen eta huts egin zuen sozialismoaren akatsak, baizik eta erantzun bat egituratzea gaur egun dugun neoliberalismoari aurre egiteko. Utopia berreskuratzeko, gizartea eraldatzeaz mintzo den diskurtsoa (berriz) eraiki behar dugu, gizartea aldatzeko xedea izango duen diskurtsoa; baina diskurtso hori ez da hutsetik abiatuko, orain arte ibilitakoa eginda baitu honezkero. Hala, beraz, zeregin aspergarria baina erraza dugu egiteko, hain zuzen, klasikoak berriz irakurtzea eta hausnartzea, moda neoliberalarekin batera ez doazela arrazoituta gaitzesten hasi aurretik. Ezin diogu ezeri uko egin, ez dugu etorkizuneko borroka utzi behar eta, horren ordez, orainaldi zapuztu hau hartu. Era berean, ez dugu nazioarteko kontzepzioa alde batera utzi behar eta, horren ordez, ghettoa hartu; ez eta zientzia baztertu eta horren lekuan obskurantismoa hartu ere.

6. Subjektu politiko berri baterantz

Irtenbide egoki bat izan daiteke subjektu politiko eta sozial bat egituratzea, prozesuen buru izateko gai izango den subjektu bat. Lehen, subjektu hori langileria izan zen, baina gaur egun ez du eskura buruzagitzako postu hori, ezta gizarte-arloko dinamikan ere (horrek ez du esan nahi langileria desagertu denik). Gero, hirugarren mundua ageri zen, herrialde txiroek inperioen boterearen azpian pairatzen zuten sufrimendua bideratzen zuen agente gisa; gaur egun, baina, agente hori ere ez dugu. Nik ez dut uste nazionalismoek lortuko dutenik zeregin hori betetzea, bakoitza bere itsukerian harrapatua egoten baita. Era berean, nire ustez, subjektu hori ez da izango indigenismo baztertzailea, kutsu arrazistak baititu.

Subjektu berri hori feminismoa izan liteke, baina, gutxienez, bi osagai ditu aurka: batetik, gaur egun feminismoak jendea mugitzeko ahalmen gutxi edo ahula duela (adibidez, duela gutxi Suedian sortu zen alderdi feminista batek porrot handia izan zuen hauteskundeetan, ez baitzuen diputatu bat ere lortu); eta, bestetik, feminismoak orain arte ez duela lortu ondoko zeregin hau burutzea (nahiz eta bide onetik joan): teoriatik ateratzea eta egunerokotasunean murgiltzea. Feminismoa subjektu berri hori izan dadin, kontu asko hobetu, landu eta ondu behar dira (dena dela, ez dut baztertzen feminismoa subjektu berri hori izateko aukera). Nolanahi ere, ez da aski izango genero-arloan dauden kontraesanak gainditzea: gizartean dauden kontraesanak ere gainditu behar dira. Horkhaimerrek esaten zuen moduan, klase sozialen kontraesa-

nak ez diren beste kontraesan batzuk aldatu arren, klaseak ez dira deuseztatuko[43]. Beste hitz batzuekin adierazita: gizarte patriarkala ezin da gainditu kapitalismoa ukitu gabe; baina kapitalismoa ukituz gero, horrek ez du nahitaez ekarri behar gizarte patriarkalaren suntsipena[44].

Zer dela-eta esaten dut horrelako ziurtasun handiz gobernuz kanpoko erakundeak ez direla subjektu politiko berri hori izango? Bada, gaur egun ditugun gobernuz kanpoko erakundeek uko egin ziotelako elkartasun politikoaren banderari, zertarako-eta neoliberalismoaren logika teknokratikoari heltzeko. Garapenerako lankidetzak, ekonomia- eta gizarte-arloko eskubideak bezalako kontzeptuen esparruko ekintzak egiteaz gain, eskubide zibilak eta politikoak ere barne hartu beharko lituzke, eta, ildo horretan, demokrazia sendotu, eta onuradunen herritartasun osoa (soziala eta politikoa) bermatu.

Esperientziak argi erakusten digu kasu askotan proiektuek desmobilizatu egiten dituztela. Orain ez dugu justizia sendotu nahi, oraingo moda "peace building" delakoa baita. Alabaina, subjektu politiko eta sozial batek ez du "peace building" bezalako kontuetan pentsatu behar. Horren ordez, justizia sozialaz egin behar dugu gogoeta, bakerako indar gutxiago eta justiziarako gogo gehiago behar baitugu. Lankidetzan oso ugariak dira "capacity building", "empowerment", "conflict prevention"[45], "conflict resolution", "peace culture"[46] edo "confidence building" bezalako terminoak, baina gobernuz kanpoko erakundeek ezin dute ondo zehaztu zer den hori guztia. Hargatik, arrazoi dute salaketa hau egiten dutenek: politikarik egin nahi ez dugunean, benetan egiten duguna "garapenerako lankidetza" da.

Palestinan, Kolonbian, Saharan, Bolivian, herrialde askotan, gizarte-mugimenduak desmobilizatu ditugu; eta "proiektuak egiteko" erakunde bilakatu nahi izan ditugu. Fakturaren tiraniak, adierazlearen tiraniak eta diru-laguntzen loteriak osatzen duten hirukoaren bidez, hemengo eta nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde asko kontratista huts bilakatu dira. Lankidetza-arloko gobernuz kanpoko erakundeek erabat zokoratu dute internazionalismoa; baina internazionalismo horrexek, langileriaren internazionalismoaren ikurra jasoz, borrokan jardun zuen Espainiako Gerra Zibilean. Orain, horren ordez, lankideak ditugu, baina lankide horiek ez dute ikuspegi politikorik, proiektuak besterik ez dituzte buruan. Hala, bada, egoera politikoaren azterketa egin beharrean, "Proiektuaren Zikloa" egiten dute, baina horren bidez ez da politikarik egiten, egiten den kontu bakarra da arroza banatzea. Elkartasuna teknokratizatu denez, horren ondorioz, fede mitikoa diogu gaur egun kudeatzeko tresnei, eta ez gara gai ulertzeko Esparru Logiko horretatik harantz hainbat gauza daudela.

Egiten diren ahalegin internazionalista bakanak lorpenak izan dituzte, eta akatsak ere bai. Indian Munduko Gizarte Foroa egin ondoren, artikulu txiki bat eman nuen argitara, "¿Otro foro es posible?" ("Ba al liteke bestelako foro bat egitea?") izenburua

[43] Kontu hau are baliagarriagoa da Latinoamerikan, hor, Europan "gizarte-mugimendu berriak" deitzen diren horiek ez baitute parekorik; aitzitik, mugimendu zahar berberak dira, nahiz eta klase soziala osagai nabarmena eduki.

[44] Kasu sandinistari dagokionez, generoari buruzko eztabaida han nola atzeratu zen jakiteko, ikusi hau: MURGUIALDAY, Clara: *Nicaragua: revolución y feminismo (1977-89)*, Ed. Revolución, Madril, 1990.

[45] Oso interesgarria izango litzateke geure buruari modu akademikoan galdetzea ea zenbat gatazkari hartu zaion aurre munduan praktika honi esker, teorian ondo dabilela ematen baitu baina gero praktikan, errealitatean, izugarrizko porrota izaten baita.

[46] Palestinian Youth Union-ek (PYU) Zisjordaniako zenbait alderditan gai honi buruz egin ziren lantegietan, oro har, inkoherentzia handia izan zela ikusi zen, bakearen kulturari buruz mintzo baitzitzaien Israelen okupazioko biktimei.

zuena. Artikulu horretan, hainbat galdera egiten nituen Foroak bere gain hartzen ez dituen zereginen gainean, esate baterako, antolamenduaren gainean. Hor ere lokalismoarekiko kultuak arazoak sortzen ditu: "…baldintza horien ondorioz, eskualdeko edo sektoreko "jarrera" bakoitzak duen erresistentzia ahalmena balioestera jotzen da, eta, era berean, ekintza globalak indarra galtzen du, eta, hala, esparru horretan nabarmen ikusten dira mugimenduak dituen ahuldadeak"[47].

Garapenerako lankidetzari dagokionez, zintzotasunez galdetu beharko genioke geure buruari ea zer aldaketa eragin dugun lankidetza hori jaso duten herrialdeetan, hainbeste urte igaro ondoren, eta hainbeste bidai, lankide eta miloi euro erabili ondoren. Munduan herrialde bat ere ez dago lankidetzaren bidez garatu dena; alabaina gizarte-mugimendu asko eta asko geldiarazita geratu dira proiektuen ondorioz. Hala gertatu da Palestinan, bertako gobernuz kanpoko erakundeekin Bigarren *Intifada*ren garaian; izan ere, gobernuz kanpoko erakundeen agenda ez dago dinamika politikoaren mende, baizik eta lankidetza ematen duenaren lehentasunen mende[48]. Eman dezakegun erantzuna ez da ghettoaren trintxeran geratzea, erantzuna internazionalismoa da. Lankide gutxiago eta internazionalista gehiago behar dugu; gizarte- eta kultura-arloko animatzaile gutxiago, eta gizarte- eta kultura-arloko asaldatzaile gehiago behar dugu; "conflict prevention" gutxiago eta "injustice prevention" gehiago behar dugu; garapenerako lankidetza gutxiago eta nazioarteko elkartasun gehiago behar dugu; laguntza humanitario gutxiago eta giza eskubide gehiago behar dugu.

Subjektu politiko berri batek ez du ukatzen gizarte-klaseak daudela. Aitzitik, subjektu politiko berri horrek bere gain hartzen du auzi horren konplexutasuna, behar bezala antolatze aldera. Alabaina, alderdi zahar bat egiten badugu, izen berria jarrita, eta leninismoz betetzen badugu, eta hauteskundeetako borroketan sartzen badugu, taktikari lehentasuna emanez eta estrategia baztertuz, orduan, horrek esan nahi du aski zaigula tokiko botere txiki batzuk lortzea eta tokiko erreforma txiki batzuk egitea, hainbesterekin konformatzen garela, alegia. Eta, horrela jokatuz gero, ez dugu lortuko subjektu politiko bat egitea, baizik eta beste aparatu politiko bat egitea.

Neoliberalismoak mito bat azaltzen digu: politikaren bukaera. Latinoamerikari dagokionez, alderdi politikoen krisiaz hitz egiten da; baina alderdi politiko horietaz hitz egitean, ez da gaineratzen "tradizional" izen-laguna; izan ere, horiexek dira krisian dauden alderdiak, tradizionalak. Politikan ez dago holako krisi larririk, ekonomiaren mende jartzera behartuko gaituenik. 2006. urtean Latinoamerikan dozena erdi bat hauteskunde izan ziren, eta horrek argi erakusten digu gezurra dela politikaren bukaerara iritsiak garenik (batzuek honako hauek garai post-politikoak direla esaten dute[49]). Emaitzek erakusten digutenez, jendeak bozkatu zuen, ilusioz bozkatu ere, eta kontzientzia gehiagoz ere bai; eta, era berean, argi ikusten da boterea lortu nahi duten alderdi politiko alternatiboei eman ziola botoa. Akademiko batzuek oraindik

[47] Munduko Gizarte Foroari buruzko balantze kritiko bat irakurtzeko, ikusi: EGIREUN, Josu; GARÍ, Manolo; ROMERO, Miguel: "FSM-2005- Un futuro difícil" *Viento Sur núm 79*, 2005eko martxoa.

[48] Honi buruz, ikusi nire lan hau: DE CURREA-LUGO, Víctor: *Palestina, entre la trampa*, 75-90 orr.; horrez gain, ikusi honako hau: HANAFI, Sari; TABAR, Linda: *The Emergence of a Palestinian Globalized Elite. Donors, International Organizations and Local NGOs*, Institute of Jerusalem Studies/Muwatin, Jerusalem, 2005.

[49] Deigarria da "post-aren garaia", honela irudikatu litekeena: batzuek esaten dute postmarxismoan gizarte zibila eta klase sozialak kontu berbera direla; postmodernoek esaten dute gizateria toki guztietara joaten dela, ibilbide guztiek toki guztietara eramaten gaituztelako; postkapitalismoaren arabera, gaur egun gizarteak ez daude industrien mende, industriek ekoizten duten finantza-kapitalaren mende baizik; Kolonbian, justizia-zantzu bat izan denez, orain ez da esaten barneko gerra dagoenik, horren ordez post-gatazka dagoela azaltzen dute; alderdi politikoen krisiari post-politika esaten zaio.

jarraitzen dute botoa ematen duen hiritarra aintzat hartzen neurketak egiteko; baina, hala ere, gero eta beharrezkoagoa da aintzat hartzea bizi izaten den hiritarra hartzea aintzat. Hala, subjektu politiko berriaren zeregina da berriz eskuratzea politikaren esparrua, talde osoaren erabakiaren esparrua, gizarteko egiaren esparrua, esparru hori gaur egun guztiz itxuragabetuta baitago kapitalaren mendeko ekonomialariek egiten dituzten estatistikekin. Subjektu politiko horrek aurre egin behar dio gaur egun dagoen mitoari, alegia, politikoak ez diren indarrek mugitzen dutela merkatua dioen horri. "Desarautzea, malgutzea eta parte ez hartzea dira gaur egun politika egiteko dauden modurik erasotzaileenak"[50].

Subjektu politiko eta sozial horrek ez du zertan homogeneoa izan behar; izan ere, gaur egun gizarte-mugimendu gisa gehien nabarmentzen den zera horrek ezer gutxi du homogeneotasunetik, sektore eta adierazpide askoren nahasketa bat da. Alabaina, mosaiko horrek ezin du onartu denak balio duela eta dena denentzat balio duela. Aitzitik, gutxieneko baldintza batzuk ezarri behar ditu, eta ez bakarrik aditzera emate aldera, benetan eragiteko ere bai. Hori guztia eta beste arrazoi batzuk kontuan izanik, gaiztoa eta maltzurra da "gizarte zibil" hitza erabiltzea[51], hitz horrek erabat baztertzen baitu oraindik ere bizirik dugun kategoria bat: klase sozialak. Klase horiek ukatzen dituztenetako batzuek, gero, etnien eta lokalismoen aldeko banderak jasotzen dituzte. Gizarte zibilak uko egiten dio demokraziari, zeren, bere lan politikoa garatzeko, Estatu-sozietate zibilaren arteko bezero-harremana sendotzen baitu. Hau da, subjektu politikoaren eta sozialaren heterogeneotasunak muga bat du, eta muga hori klase-jarrera da; izan ere, ezin da kapitalismoaren aurka borrokatu, burgesiari eskutik helduta. Edota, beste hitz batzuekin esanda, subjektu politiko horrek argi erabaki behar du noren alde dagoen: globalizatuen alde dagoen edo globalizatzaileen alde dagoen.

Subjektu politiko eta sozial horrek ez du beldurrik izan behar antolakuntzan urratsak egiteko. Horrelaxe jokatu dute Bolivian, Sozialismorako Mugimendua (MAS) izeneko tresna politikoa sortu dutenean; bai eta Kolonbian ere, Polo Demokratiko Alternatiboaren inguruan eratu duten batasunari esker. Horrez gainera, subjektu politiko eta sozial horrek ez dio beldurrik izan behar demokraziari; horren adibidea da Hamasen jokaera Palestinan. Subjektu politiko eta sozial horrek kritikoa eta autokritikoa izan behar du. Espainiari dagokionez, esate baterako, elkartasun akritikoa erakusten dio Fronte Polisarioari, uko egiten baitio frontearen estalinismoari[52] edo lokalismoan oinarritzen baitu. Horixe gertatu zen Latinoamerikan kapitalismoari aurre egiteko hautabideak eraiki zirenean: hantxe geratu ginen Lenin irakurtzen eta haren akatsak makillatzen.

Subjektu politiko eta sozial horrek gai izan behar du lehen aipatu duguna ulertzeko: ez da aski gobernua edukitzea; ez, horrez gain, boterea ere eskuratu behar da. "Aldatzea, baina botererik hartu gabe" esaldia poetika hutsa da; baina boterea hartzea aldaketarik egin gabe, traizioa egitea da. Horixe da Correak Ekuadorren duen erronka. Horixe izan da behin gobernura iritsi ziren Latinoamerikako ezkertiar askok egin duten akatsa. Kontua ez da botereko tresnak denboraldi baterako mailegutan

[50] MARTINEZ DE BRINGAS, *Globalización y derechos humanos...*, 39 or.

[51] Bolivian, Evo Moralesen gobernuaren kontra ari diren Santa Cruzko eliteak ere gizarte zibila dira. Kolonbian, gizarte zibila nozioa erabiltzeak dituen arriskuak jakiteko, ikusi nire lan hau: DE CURREA-LUGO, Víctor: "Sociedad civil ¿La ilusión necesaria?" *Nova et Vetera,54. zk.* (Bogota, 2005), 81-101 orr.

[52] Egileak orain dela gutxi izan dituen optika-akatsak gorabehera, merezi du ondoko lan hau aztertzea: GARCIA, Alejandro: *Historia del Sahara*, La Catarata, Madril, 2002.

eskatzea; ez, kontua gizartea aldatzea da. Brasilen Lulari egiten zaion kritika horixe da: erreformista dela (eta, gainera, ustelkeriako eskandalu larria izan zen PTn). Pablo de Rokhak Pablo Nerudari esan ziona berrituz: "Zer ari ote naiz egiten, etsaiek ere txalotzen baitidate?".

Subjektu politiko horrek nazioarteko ikuspegia izan behar du, eta ez bakarrik beste leku batzuetan borrokan aritzeko aliatuak daudelako, etsaiak berberak direlako ere bai. Esate baterako, zer dute batera Irakeko okupazioaren aurkako borrokak eta Boliviako neoliberalismoaren aurkako borrokak? Bada, Betchel uraren enpresa transnazionalak ahaleginak egin zituela Bolivian ura pribatizatzeko, baita euri ura ere; eta, horren ondorioz, Boliviako mugimenduek, sututa eta berotuta, bertatik bota zutela enpresa[53]. Eta enpresa horixe aberasten ari dela Irak berreraikitzeko eskuan dituen proiektuen bitartez[54]. Subjektu politiko berri horrek jarrera bat erakutsi behar du, eta poetikari dagokion zeregina eman behar dio, baina ez gehiago, eta argi adierazi behar du pentsatzen duena, gezurretan aritu gabe. Adibidez, Hamasek ez zien gezurrik esan ez palestinarrei ez nazioarteko erkidegoari gobernurako plana argi eta garbi aurkeztu zuenean. Ezin dugu onartu honela jarraitzea, alegia, burgesiak boterea eskuan duela eta guk banderak besterik ez.

Subjektu politiko horrek ez du inola ere ahaztu behar botere politikoa eskuratzea ez dela azken helburua; azken helburua gizartea aldatzea baita. Horixe da Latinoamerikan boterea eskuratu ondoren maiz izaten den iruzurra. Izan ere, ematen du ezkerreko alderdi batzuek ahaztu dutela Estatua tresna bat dela, eta hala Estatua salbatzen ahalegindu dira. Hala, bitarteko bat besterik ez zena, azken helburu bilakatu zen; eta, kontuak horrela, ezinbestekoa dena atzeratuz joaten da beti. Era berean, beste arrisku bat da subjektu politikoa bilakatzea helburu, eta ez bitarteko. Dagoen eginkizuna ez da "instituzioak sendotzea", baizik eta instituzioak garbitzea, aldaketa egiteko tresna diren bitartean. Ez dugu nahastu behar itxurazko zuhurtzia eta beldurra[55].

Subjektu politiko horrek argi ulertu behar du lokalismoaren aldeko apustu egiteak kostu bat duela, eta modernitateak dituen beste aukera batzuk aztertu behar dituela, hala printzipioak nola tresnak, esate baterako giza eskubideen arlokoak. Horrek esan nahi du indigenismoaren banderak taktika bat izan behar duela, eta ez estrategia bat; eta ekitatearen eta bazterkeriarik ez egiteko ideian oinarritu behar dela. Herritarra ez da soilik botoa ematen duen gizakia, eskubideak dituen gizakia ere bai baita, eta eskubide horiek zibilak eta politikoak izateaz gain, gero eta indar handiagoa du ondoko nozioak: garapen juridikoa aurrera doan heinean, Estatu soziala zuzenbide Estatuaren zati bat dela. Baina zuzenbideak ez du taldeen borroka politikoa ordezkatzen. Gero, hurrengo urratsa da zuzenbidea gainditzea, eta politika publikoak eratzea, biktima gainditzea eta hiritarrengana iristea, zuzenbidea gainditzea eta politika egitea.

Subjektu politiko eta sozial horrek ez du beldurrik izan behar gauzei dagozkien izenekin izendatzeko; izan ere, Serrat kantariak esaten duen bezala, ezer gutxi balio du "Karl Marx hilik eta lurperaturik" egoteak. Hala, bada, ez da beldurrik izan behar *sis-*

[53] GARCIA eta beste batzuk: *La "guerra del agua..."*

[54] GUTIERREZ DE TERAN, Ignacio: "La cuestión económica, social y sanitaria en Irak: los límites del colapso", hemen: GUTIERREZ DE TERAN, Ignacio (koord.): *Irak. Invasión, ocupación y caos,* Catarata, Madril, 2006, 175-178 orr.

[55] Ideia hau, Latinoamerikako egoerari begira, argi eta garbi azalduta du Sergio Otálora Montenegrok, Ian honetan: "El cansado buey de la revolución" *El Espectador,* Bogota, 2007ko urtarrilaren 17an.

tema eta *klasea* eta *esplotazioa* eta *elkartasuna* hitzak erabiltzeko. Jende askok esaten du gaur egun ez dagoela klaserik eta gizarte zibila besterik ez dagoela; eta era berean, gaur egun ez dagoela txirorik, dagoena laguntza gutxien jaso duten edo ekonomia aldetik ahulak diren taldeak direla; eta, bestalde, gaur egun ez dela esaten *lankidea* hitza, *adiskidea* baizik; eta ez dagoela proletariorik, dagoena bulegariak direla. Ildo berean, gero eta jende gutxiagok janzten du langile-jantzia, baina gero eta langile gehiagori deitzen zaio *enplegatua*; eta ez dago herririk, jendea baizik; ez dago kapitalismorik, globalizazioa baizik; eta ez dago internazionalismorik, irtenbide lokalak baizik. Hitz egiteko modua pentsatzeko modua ere bada, eta, beraz, subjektu politiko eta sozial hori osatzen duten pertsonen kontzientziak klaseko kontzientzia izan behar du[56].

Subjektu politiko horrek ez du beldurrik izan behar neurri gogorrak hartzen dituenean erradikala dela esaten badiote. Oso ohitura zaharra da gorria etiketarekin gaitzestea, nahiz eta *status quo* delakoan egindako aldaketa txiki-txikia izan[57]. Kolonbiari dagokionez, argi eta garbi ikusten da hori: "Polo Demokratikoak erabakitzen baldin badu –Kolonbiako gizartean– *status quo* delakoa besteek baino hobeto administratzeko zeregina bere gain hartzea, orduan ez du inolako eginkizun historikorik bete behar. Areago dena: ez du merezi denbora galtzea Polo Demokratikoa eratzen (...) Horretarako ez baita Polo Demokratikoa behar. Horretarako, alderdi liberala eta alderdi kontserbadorea baizik ez dira behar (alderdi tradizionalak, alegia), orain arte ondo bete baitute eginkizun hori. Eta hori ez da ultra-ezkerrekoa eta iraultzailea izatea. Hori da oinak lur gainean izatea"; eta, horren ondorioz, jabetza ukitu beharra dago; "atzo baten batek kritikatu zuen tesi hau, eta aditzera eman zuen guk ezin diogula erasoa jo jabetza pribatuari. Baina zein jabetzaz ari dira? Kokainaren eta motozerren bidez eskuratutako lurraren jabetzaz? Hori defendatzera etorri al gara gu? Guk egin behar duguna da lurra hartu eta nekazarien artean banatu. Ez diegu bestelako konturik esan behar nekazariei (...) zeren zuzenbideko estatua landa-eremuetan eraikiko badugu, lurra nekazarien artean banatu beharra dago"[58].

Hori guztia bat dator une honetan ezinbestekoa den eztabaida batekin; hauxe da eztabaida: iraultzak egitea (alegia, eraldatzea) edo erreformak egitea. Halaxe adierazi zuen Chek 1967. urtean: "...edo iraultza sozialista edo iraultzaren karikatura"[59]. Horrek ez du esan nahi dena egin behar denik eta gainera oraintxe bertan egin behar denik; ez, kontua da helmuga harantz eraman behar dela, eta ez dela aski erreforma txiki batzuk egitea[60]. Langileen Alderdiak (Brasilgo PT) adibide ona izan liteke argi ikusteko nola huts egin duen tresna sozial eta politiko bat sortzeko prozesuak, ez baititu espero ziren erantzunak eman: Lurrik Gabeko Mugimenduak ez du hizketakide zuzenik edo bidezkorik aurkitu han, ustelkeriako eskandaluak ez dira gutxi izan, eta azkenean nahastu egin dute bitartekoa edo baliabidea (Alderdia) helburuarekin.

[56] Politikoki zuzena den hizkera maila guztietan agertzen da: gaur egun ez dago beltzik, afroen ondokoak baitira; ez dago baliaezinik, minusbaliatuak baitira (nahiz eta haien egoera ezertan ez aldatu); Kolonbian, txiroei lehen "desechables" esaten zieten ("erabili eta botatzekoak"), eta gaur egun, berriz, "recuperadores ambientales" esaten diete ("ingurumenberreskuratzaileak"), eta abar.

[57] "Aldarrikapen guztiak, burgesek finantzen erreformarik oinarrizkoenak, liberalismorik arruntena, errepublikanismorik formalena, edota demokraziarik hutsalena ere, den-denak zigortu egiten dira, "gizartearen aurkako atentatutzat" jotzen dira eta "sozialismoaren" estigmatizazioa jasotzen dute". MARX, *Las luchas de clases...,* 219 or.

[58] Gustavo Petrok Polo Demokratikoaren programari buruzko eztabaidan aipatu zituen hitzak, Bogota, 2004ko ekainaren 11.

[59] GUEVARA, Ernesto: "Mensaje a los pueblos del mundo a través de la Tricontinental", 1967.

[60] Kolonbian, Polo Demokratikoaren barruan, eztabaida gutxi gorabehera honen gainekoa da: demokrazia gehiago edo gutxiago, ezkerrerantz gehiago edo gutxiago lerratzea, itunak edo borrokak, parlamentuko alderdiak edo masa-mugimenduko alderdiak, kaleak edo parlamentua, eta abar.

Subjektu politikoak ulertu behar du eta onartu behar du –Horkhaimerren esanak hona ekarriz– kapitalismoari buruz hitz egin nahi ez duenak ez duela eskubiderik globalizazioaz hitz egiteko[61]. Subjektu politiko eta sozial berriaren kontu honek ba al du zerikusirik Alderdi izeneko aparatu zahar bati izen berria jartzearekin? Nik uste dut kontua ez dela soilik izena aldatzea, betiere, iraganean egindako akatsak berriz egiten ez badira. Ildo horretan, esaten ari naizena oso oinarrizkoa da, ez da bereziki garrantzizkoa; berritasuna da ikustea nola joan den gauzatzen (edo nola ez den gauzatu) ingurune berezi batzuetan, hala nola, Latinoamerikan aurkitu ditzakegun horietan.

Zein da tresna politikorik ez edukitzeak dakarren kostua? Argentinan finantza-krisiari eta "corralito" deitutakoari eman zitzaion erantzuna neurririk gabekoa izan zen, bai forma-aldetik bai eta irismen-aldetik ere. Hasieran bat-batekoa izan zen, helburu politiko argirik ez zuelako eta ez zelako gai ezer ikusteko egiten zuen kaltetik harantz. Eduki izan bazuen osagai biltzaile bat, gizartearen erantzuna desberdina izan zatekeen. Hala, beraz, hobe da tresna politikoa izatea, bera gabe egote baino.

Latinoamerikan, demokrazia ahulak pixka bat baretu du egoera politikoa, baina oraindik ez die erantzun gerra zibilen eta gobernu militarren garaietan egin ziren galderei, justizia sozialari eta barneratze politikoari buruzko galderei. Gaur egun, Latinoamerikan "ezkertiar" gehiago dago, baina ezker gutxiago, hala kaleetan nola gobernuetan. Rousseauk aipatzen zuen borondate orokorra edo guztien interesa gauzatzeko prozesuak gora egin ez badu, ezin esan daiteke demokraziak aurrera egin duenik. Era berean, nazioarteko finantza-erakundeen erabakiak herrien erabakiak baino indar gehiago badu, demokraziak ez du aurrera egin.

Bukatze eta gehiago zehazte aldera, aditzera eman nahi dut globalizazioa kapitalismoa dela, eta, beraz, kapitalismoak dituen gaitz guztiak dauzkala. Hemen zalantzan jarri ditugun bakezaletasuna, lokalismoa eta poetika bezalako kontzeptuak ez dira aukera txarrak *per se*, baina negatiboak dira mitoak diren heinean. Azken batean, mundua okerrago egongo litzateke gobernuz kanpoko erakunderik gabe, hobeto dago haiekin; baina hori ez da aski erakunde horiek gizartean duten zeregina balioesteko, batez ere kontuan hartzen badugu erakunde horien agendak ez duela gizarte-borroka barne hartzen. Ilustrazioa gillotina baino zerbait gehixeago da, eta han eta modernitatean dauden zenbait osagai berreskuratu ahal dira eta berreskuratu behar dira gainera. Eta subjektu sozial eta politikoak berriz eraikitzeko proposamena ez da ideia abstraktua, gaur egun Latinoamerika den zera horren egiaztapena da.

[61] Horkheimer-ek esaten du ez dagoela prest kapitalismoari buruz hitz egiteko, ez duela eskubiderik faxismoaz mintzatzeko; HORKHEIMER, (1940): *El Estado autoritario...*